# Gipuzkoako Aldizkari Ofiziala

# Boletín Oficial de Gipuzkoa

2007ko urtarrilak 31 asteazkena
22 Zenbakia

Miércoles 31 de enero de 2007
Número 22


## LABURPENA — SUMARIO

*Orrialdea*


| | | |
|---|---|---|
| 3 | Gipuzkoako Lurralde Historikoko Xedapen Orokorrak. | 2.657 |
| 4 | Gipuzkoako Lurralde Historikoko Administrazioa...... | 2.704 |
| 5 | Estatuko Administrazioa ................................ | 2.714 |
| 7 | Udal Administrazioa..................................... | 2.754 |
| 8 | Justizia Administrazioa.................................. | 2.782 |
| 9 | Iragarkiak ............................................... | 2.783 |


*Página*


| | | |
|---|---|---|
| 3 | Disposiciones Generales del T.H. de Gipuzkoa........... | 2.657 |
| 4 | Administración del T.H. de Gipuzkoa.................... | 2.704 |
| 5 | Administración del Estado .............................. | 2.714 |
| 7 | Administración Municipal ............................... | 2.754 |
| 8 | Administración de Justicia .............................. | 2.782 |
| 9 | Anuncios.................................................. | 2.783 |


## 3 GIPUZKOAKO LURRALDE HISTORIKOKO XEDAPEN OROKORRAK DISPOSICIONES GENERALES DEL TERRITORIO HISTORICO DE GIPUZKOA 3

### GIPUZKOAKO FORU ALDUNDIA

*Gipuzkoako Lurralde Historikoko Bizikleta Bideei buruzko urtarrilaren 24ko 1/2007 FORU ARAUA.*

GIPUZKOAKO DIPUTATU NAGUSIAK

Jakinarazten dut Gipuzkoako Batzar Nagusiek onartu dutela «Gipuzkoako Lurralde Historikoko Bizikleta Bideei buruzko urtarrilaren 24ko 1/2007 Foru Araua» eta nik aldarrikatu eta argitara dadin agintzen dut aplikagarria zaien herritar guztiek, partikularrek nahiz agintariek, bete eta betearazi dezaten.

Donostia, 2007ko urtarrilaren 24a.—Joxe Joan Gonzalez de Txabarri Miranda, diputatu nagusia.

(813) (941)

### DIPUTACION FORAL DE GIPUZKOA

*NORMA FORAL 1/2007 de 24 de enero, de Vías Ciclistas del Territorio Histórico de Gipuzkoa.*

EL DIPUTADO GENERAL DE GIPUZKOA

Hago saber que las Juntas Generales de Gipuzkoa han aprobado y yo promulgo y ordeno la publicación de la siguiente «Norma Foral 1/2007, de 24 de enero de Vías Ciclistas del Territorio Histórico de Gipuzkoa» a los efectos de que todos los ciudadanos, particulares y autoridades a quienes sea de aplicación la guarden y hagan guardarla.

Donostia-San Sebastián, a 24 de enero de 2007.—El diputado general, Joxe Joan Gonzalez de Txabarri Miranda.

(813) (941)

AURKIBIDEA

HITZAURREA

ATARIKO IDAZPURUA Xedapen orokorrak

I. ATALBURUA ............ Xedea, definizioak eta eremua, oinarrizko printzipioak
1. artikulua .................... Xedea
2. artikulua .................... Bizikleta-bideen definizioa eta bide motak
3. artikulua .................... Aplikazio eremua
4. artikulua .................... Oinarrizko printzipioak
5. artikulua .................... Foru bizikleta-bideetako babesguneak
6. artikulua .................... Herri-jabarigunea
7. artikulua .................... Zorgunea
8. artikulua .................... Jabari-erregimena
9. artikulua .................... Foru Bizikleta Bideen Sarearen Katalogoa
10. artikulua .................. Foru bizikleta-bideen izendapena
11. artikulua .................. Jabetzaren eskualdatzeak

II. ATALBURUA .......... Ezaugarri orokorrak
12. artikulua .................. Bizikleta-bideen ezaugarri orokorrak
13. artikulua .................. Foru bizikleta Bideetako Seinaleen Katalogo Ofiziala
14. artikulua .................. Zorua eta zolaketa
15. artikulua .................. Argiztapena
16. artikulua .................. Elkarguneak
17. artikulua .................. Aparkatzeko zuzkidurak
18. artikulua .................. Zirkulazioa

I. IDAZPURUA ............ Foru bizikleta-bideak planifikatzea eta eraikitzea

I. ATALBURUA ............ Gipuzkoako bizikleta-bideen sareari buruzko lurraldeko plana
19. artikulua .................. Xedea eta izaera
20. artikulua .................. Ekonomiaren eta lurraldearen plangintzarekin koordinatzea
21. artikulua .................. Bideratzea eta onartzea
22. artikulua .................. Lurraldeko Planaren ondorioak
23. artikulua .................. Aldaketa eta berrikuspena
II. ATALBURUA ........... Eraikitzeko, hobetzeko eta artatzeko obren proiektuak eta obrak gauzatzea
24. artikulua .................. Eraikitzeko proiektuak. Edukia
25. artikulua .................. Eraikitzeko proiektuak bideratzea eta onartzea
26. artikulua .................. Proiektuak onartzearen ondorioak
27. artikulua .................. Aldez-aurreko proiektuak

III. ATALBURUA .......... Lurzoruen erabilgarritasuna. Desjabetzeak
28. artikulua .................. Ondasunak eskuratzea eta hartzea
29. artikulua .................. Desjabetzea legitimatzea. Herri-onura eta herri-lurrak hartzeko beharra
30. artikulua .................. Desjabetzea zorgunean

INDICE

PREAMBULO

TITULO PRELIMINAR Disposiciones Generales

CAPITULO I ................ Objeto, definiciones y ámbito, principios inspiradores
Artículo 1 ...................... Objeto
Artículo 2 ...................... Definición y tipos de vías ciclistas
Artículo 3 ...................... Ambito de aplicación
Artículo 4 ...................... Principios inspiradores
Artículo 5 ...................... Zonas de protección de las vías ciclistas forales
Artículo 6 ...................... Zona de dominio público
Artículo 7 ...................... Zona de servidumbre
Artículo 8 ...................... Régimen demanial
Artículo 9 ...................... Catálogo de la Red de Vías Ciclistas forales
Artículo 10 .................... Denominación de las vías ciclistas forales
Artículo 11 .................... Traspasos de titularidad

CAPITULO II ............... Características generales
Artículo 12 .................... Características generales de las vías ciclistas forales
Artículo 13 .................... Catálogo Oficial de Señales de las Vías Ciclistas Forales
Artículo 14 .................... Firme y pavimentación
Artículo 15 .................... Alumbrado
Artículo 16 .................... Intersecciones
Artículo 17 .................... Dotaciones de aparcamiento
Artículo 18 .................... Circulación

TITULO I ...................... Planificación y construcción de las vías ciclistas forales

CAPITULO I ................ Plan Territorial de Vías Ciclistas de Gipuzkoa
Artículo 19 .................... Objeto y naturaleza
Artículo 20 .................... Coordinación con la planificación económica y territorial
Artículo 21 .................... Tramitación y aprobación
Artículo 22 .................... Efectos del Plan Territorial
Artículo 23 .................... Modificación y revisión
CAPITULO II ............... Proyectos y ejecución de obras de construcción, mejora y conservación
Artículo 24 .................... Proyectos de construcción. Contenido
Artículo 25 .................... Tramitación y aprobación de los proyectos de construcción
Artículo 26 .................... Efectos de la aprobación de los proyectos
Artículo 27 .................... Proyectos previos

CAPITULO III .............. Disponibilidad de terrenos. Expropiaciones
Artículo 28 .................... Adquisición y ocupación de bienes
Artículo 29 .................... Legitimación expropiatoria. Utilidad pública y necesidad de ocupación
Artículo 30 .................... Expropiación en zona de servidumbre

PAPER BIRZIKLATUA PAPEL RECICLADO

VI. ATALBURUA ......... Finantzaketa
31. artikulua .................. Finantza-baliabideak

V. ATALBURUA .......... Obrak gauzatzea
32. artikulua .................. Udal lizentziak eta baimenak
33. artikulua .................. Mugaketa eta mugarriak jartzea

II. IDAZPURUA ........... Foru bizikleta-bideak ustiatzea

I. ATALBURUA ............ Ustiatzearen xedea eta ustiatzeko erak
34. artikulua .................. Xedea
35. artikulua .................. Ustiatzeko erak

II. ATALBURUA .......... Foru bizikleta-bideen eta beren babesguneen erabilera
36. artikulua .................. Foru bizikleta-bideen erabilera
37. artikulua .................. Erabilerak herri-jabarigunean
38. artikulua .................. Erabilerak zorgunean
39. artikulua .................. Seinaleak
40. artikulua .................. Sarbideak zehaztea eta berrantolatzea .......................................
41. artikulua .................. Lursailetako itxiturak eta bizikleta-bidetik bereizteko elementuak
42. artikulua .................. Zainketa

III. IDAZPURUA ......... Baimentzeko eta zigortzeko prozedurari buruzko araubide orokorra

I. ATALBURUA ............ Baimenak
43. artikulua .................. Administrazioaren baimena behar duten jarduketak
44. artikulua .................. Eskumena
45. artikulua .................. Izaera
46. artikulua .................. Prozedura eta ebazpena. Administrazioaren isiltasuna
47. artikulua .................. Tasak
48. artikulua .................. Bermeak
49. artikulua .................. Ondorioak
50. artikulua .................. Baimena beste baimen batzuekin bateragarria izatea
51. artikulua .................. Indarraldia eta iraungipena
52. artikulua .................. Baimenak baliogabetzea eta baldintzak aldatzea
53. artikulua .................. Baimenak etetea

II. ATALBURUA ........... Arau-hausteak, prozedura eta zigorra
54. artikulua .................. Tipifikazioa eta sailkapena
55. artikulua .................. Arau-hausteen erantzuleak
56. artikulua .................. Arau-hausteen preskripzioak
57. artikulua .................. Zigortzeko ahala
58. artikulua .................. «Non bis in idem» printzipioa
59. artikulua .................. Sailkapena
60. artikulua .................. Heinekotasuna
61. artikulua .................. Zigorren preskripzioa
62. artikulua .................. Erantzukizunaren iraungipena

III. ATALBURUA ......... Neurri osagarriak
63. artikulua .................. Kaltea konpontzea eta kalte-ordainak
64. artikulua .................. Hertsazeko isunak eta berearazte subsidiarioa

CAPITULO IV ............ Financiación
Artículo 31 .................... Recursos financieros

CAPITULO V .............. Ejecución de las obras
Artículo 32 .................... Licencias y permisos municipales
Artículo 33 .................... Deslinde y amojonamiento

TITULO II .................... Explotación de las vías ciclistas forales

CAPITULO I ................ Objeto y formas de explotación
Artículo 34 .................... Objeto
Artículo 35 .................... Formas de explotación

CAPITULO II ............... Uso de las vías ciclistas forales y de sus zonas de protección
Artículo 36 .................... Uso de las vías ciclistas forales
Artículo 37 .................... Usos en la zona de dominio público
Artículo 38 .................... Usos en la zona de servidumbre
Artículo 39 .................... Señalización
Artículo 40 .................... Determinación y reordenación de accesos
Artículo 41 .................... Cerramientos de fincas y elementos de separación de la vía ciclista
Artículo 42 .................... Vigilancia

TITULO III ................... Régimen general de autorizaciones y procedimiento sancionador

CAPITULO I ................ Autorizaciones
Artículo 43 .................... Sometimiento a autorización administrativa
Artículo 44 .................... Competencia
Artículo 45 .................... Carácter y naturaleza
Artículo 46 .................... Procedimiento y resolución. Silencio administrativo
Artículo 47 .................... Tasas
Artículo 48 .................... Garantías
Artículo 49 .................... Efectos
Artículo 50 .................... Compatibilidad con otras autorizaciones
Artículo 51 .................... Vigencia y caducidad
Artículo 52 .................... Revocación y modificación de condiciones
Artículo 53 .................... Suspensión de autorizaciones

CAPITULO II ................ Infracciones, procedimiento y sanción
Artículo 54 .................... Tipificación y clasificación
Artículo 55 .................... Responsables de las infracciones
Artículo 56 .................... Prescripción de las infracciones
Artículo 57 .................... Potestad sancionadora
Artículo 58 .................... Principio «non bis in idem»
Artículo 59 .................... Clasificación
Artículo 60 .................... Proporcionalidad
Artículo 61 .................... Prescripción de las sanciones
Artículo 62 .................... Extinción de la responsabilidad

CAPITULO III .............. Medidas accesorias
Artículo 63 .................... Reparación del daño e indemnización
Artículo 64 .................... Multas coercitivas y ejecución subsidiaria

PAPER BIRZIKLATUA PAPEL RECICLADO

| | |
|---|---|
| IV. ATABURUA ............ | Zigortzeko prozedura |
| 65. artikulua .................. | Printzipioak |
| 66. artikulua .................. | Administrazio-prozesua eta prozesu penala |
| 67. artikulua .................. | Prozedurara noiznahi sartzeko printzipioa |
| 68. artikulua .................. | Organo eskudunak |
| 69. artikulua .................. | Interesatuak |
| 70. artikulua .................. | Egozpen-akatsa |
| 71. artikulua .................. | Ofizioz hastea |
| 72. artikulua .................. | Prozedura hasteko erabakaia |
| 73. artikulua .................. | Froga |
| 74. artikulua .................. | Ebazpen-proposamena |
| 75. artikulua .................. | Entzunaldia interesatuei |
| 76. artikulua .................. | Epeak murriztea eta luzatzea |
| 77. artikulua .................. | Errekurtsoak |
| 78. artikulua .................. | Ekintza osagarriak |
| 79. artikulua .................. | Prozeduraren ebazpena |
| IV. IDAZPURUA .......... | «Gipuzkoako Bidegorriak» izendapena |
| 80. artikulua .................. | «Gipuzkoako Bidegorriak» izendapena |
| V. IDAZPURUA ........... | Bizikletaren erabilera sustatzea |
| 81. artikulua .................. | Gipuzkoako Bizikletaren Estrategia |
| 82. artikulua .................. | Gipuzkoako Bizikletaren Kontseilua |

Lehenengo xedapen gehigarria

Bigarren xedapen gehigarria. Araugintza ebaluatzea

Xedapen indargabetzailea

Azken xedapen lehenengoa

Azken xedapen bigarrena

| | |
|---|---|
| I. ERANSKINA ............ | Foru bizikleta-bideetako seinaleen katalogo ofiziala |
| II. ERANSKINA ........... | Ereduzko sekzioak |
| III. ERANSKINA ......... | Herri-jabaria. Babesgunea |
| IV. ERANSKINA .......... | «Gipuzkoako Bidegorriak» marka |


## HITZAURREA

Azkeneko hamarkadetan, lekualdaketak era esponentzialean igo dira, eta hori izan da, hain zuzen ere, gizarte aurreratuen ezaugarrietako bat; bestalde, badirudi hori bera izango dela etorkizunean, lurraldearen plangintza egitean, aintzakotzat hartu beharko diren alderdietako bat. Gaur egun herritar gehienentzat argi dago trafikoa mugikortasun-beharrek sortutako eskaeraren kudeaketaren bidez kontrolatu behar dela, ibilgailu motordunen trafikoan dauden itotze maila handien ondorioz ekonomiaren, gizartearen eta ingurumenaren esparruetan sortu diren arazoei irtenbidea eman ahal izateko. Eta aipatutako eskaeraren kudeaketak lehentasuna eman behar die garraioaren hautabidezko sistemei eta ibilgailu motordun pribatuak arrazionaltasunez erabiltzeari.

Europako Batasunak, europar guztientzako espazio partekatua sortzeko, bere gain hartu dituen gidalerro nagusietako bat pertsonen eta merkantzien mugitzeko askatasuna da. Horrela bada, Europako Batzordeak, Garraioari buruzko Europar Politikaren Liburu Zuriaren bidez, eta 2010. urtea epemuga har-


| | |
|---|---|
| CAPITULO IV ............ | Procedimiento sancionador |
| Artículo 65 .................... | Principios |
| Artículo 66 .................... | Concurrencia con proceso penal |
| Artículo 67 .................... | Principio de acceso permanente |
| Artículo 68 .................... | Organos competentes |
| Artículo 69 .................... | Personas interesadas |
| Artículo 70 .................... | Error de imputación |
| Artículo 71 .................... | Iniciación de oficio |
| Artículo 72 .................... | Acuerdo de iniciación |
| Artículo 73 .................... | Prueba |
| Artículo 74 .................... | Propuesta de resolución |
| Artículo 75 .................... | Audiencia a las personas interesadas |
| Artículo 76 .................... | Reducción y prórroga de plazos |
| Artículo 77 .................... | Recursos |
| Artículo 78 .................... | Actuaciones complementarias |
| Artículo 79 .................... | Resolución del procedimiento |
| TITULO IV ................... | Denominación «Gipuzkoako Bidegorriak» |
| Artículo 80 .................... | Denominación «Gipuzkoako Bidegorriak» |
| TITULO V .................... | Potenciación del uso de la bicicleta |
| Artículo 81 .................... | Estrategia de la Bicicleta de Gipuzkoa |
| Artículo 82 .................... | El Consejo de la Bicicleta de Gipuzkoa |

Disposición adicional primera

Disposición adicional segunda. Evaluación Normativa

Disposición derogatoria

Disposición final primera

Disposición final segunda

| | |
|---|---|
| ANEXO I ....................... | Catálogo Oficial de Señales de las Vías Ciclistas Forales |
| ANEXO II ..................... | Secciones Tipo |
| ANEXO III .................... | Dominio Público. Zona de Protección |
| ANEXO IV ................... | Marca «Gipuzkoako Bidegorriak» |


## PREAMBULO

Durante las últimas décadas, el crecimiento exponencial de los desplazamientos se ha manifestado como una de las características de las sociedades avanzadas y todo apunta a que éste será en el futuro uno de los factores clave a tener en cuenta en la planificación territorial. Hoy en día existe una toma de conciencia mayoritaria de que la problemática económica, social y ambiental derivada de los elevados índices de saturación de tráfico motorizado a los que se ha llegado, ha de ser solucionada a través de planteamientos que, cada vez más, vayan hacia un control del sistema a través de la gestión de la demanda de las necesidades de movilidad, una gestión orientada a primar sistemas alternativos de transporte y hacia el uso racional del vehículo de motor privado.

La Unión Europea asume como uno de sus principios rectores la libertad de movimiento de las personas y mercancías para la creación de un espacio común europeo. Así, la Comisión Europea a través del Libro Blanco para la Política Europea de Transportes de cara al horizonte 2010, pone de manifiesto las

PAPER BIRZIKLATUA PAPEL RECICLADO

tuta, agerian jarri ditu garraioak gobernu eta administrazio maila guztietan sortzen dituen mehatxuak eta aukerak, eta dauden arazoak konpontzeko erabakiak hartzera premiatu du.

Europako Batasunak, halaber, bere Garapen Iraunkorraren aldeko Estrategiaren bidez, honako helburu nagusi hau ezarri du garraioaren alorrean: Gure garraio-sistemek gizartearen behar sozial eta ekonomikoei erantzungo dietela eta, aldi berean, ekonomian, gizartean eta ingurumenean eragin negatiboak gutxienekoak izango direla bermatzea; era berean, bere jardun-ildoen artean, bizikletaz edo oinez lekualdatzea sustatzeko ardura hartu du.

Euskal Autonomia Erkidegoaren esparruan, azpimarratzekoa da zirkulazio arauak txirrindularitza egiteari egokitzeko ez legezko proposamena, Eusko Legebiltzarrak 1998ko maiatzaren 8an onartua, non Legebiltzarrak Eusko Jaurlaritzari eta foru aldundiei eskatzen dien, beren sail eta departamentuen bitartez, Autonomia Erkidegoko bide azpiegiturak egitean eta garatzean, bizikletaz ibiltzeko berariazko tokiak har ditzatela kontuan, eta herri funtsak erabil ditzatela horretarako.

Era berean, Eusko Legebiltzarrak 2006ko maiatzaren 17an aho batez onartutako adierazpen instituzionalean, non Amsterdamgo Adierazpenean adierazitako printzipioei («Bizikleta erabiltzeko eskubidea») bere atxikimendua agertzen dien, herri administrazioei dei egiten die konpromiso aktiboa har dezaten bizikletaz mugitzea bultzatzeko politikak diseinatzerakoan eta gauzatzerakoan.

Helburu horiek praktikan jartzeko asmoz, funtsezkoa da erreferentzi ingurune berri batean arreta handiz egindako plangintzak mugikortasuna barnean hartzea. Beharrezkoa da natur inguruneari eta gizarte-inguruneari eraso txikiagoa egiten dieten garraiobideen aldeko apustua egitea. Xedea egungo garraio-sistemak natur baliabideetan, airearen eta uren kalitatean eta egoera fonikoan sortutako eragin negatiboak murriztea da, eta energiaren eta lurzoruaren kontsumoa minimizatzea. Baina, era berean, xedea eredu sozial jakin bat erdiestea da: Hirietako eta hirien inguruetako espazioak pertsona guztientzat irisgarriak dituen eredu sozial bat, distantzia luzeetan emandako denbora gure ingurune sozial edo pertsonalean erabiltzea ahalbidetzen duena. Azken buruan, irisgarritasunari mugikortasunaren gainetik lehentasuna ematen dion eta bizikletak funtsezko egitekoa izango duen eredua izan behar du.

Horretarako, beharrezkoa da kontuan hartzea lurraldearen antolaketak eta hirigintzako plangintzak, gaur inoiz baino areago gainera, lotura handia dutela garraioaren plangintzarekin, eta erabileren eta jardueren antolaketak, garatzen ari den hiri-ereduaren ezaugarriek eta gune publikoen banaketak eta abarrek mugikortasunaren alorrean zer ondorio sortzen dituzten. Era berean, aintzat hartu behar dira lurraldearen antolaketak eta hirigintzako plangintzak zer ondorio sortzen dituzten motorrik gabeko garraiobideen sustapenean –bizikleta eta oinez ibiltzea–, eta gure kaleetan dagoen bizi-kalitatean. Orobat, taldeko garraioa, garraio anitzeko sistema, eta autoaren erabilera gero eta arrazionalagoa sustatzea jarduteko ardatz nagusietako bat da. Bestalde, ezinbestekoa da gaur egungo garraio-ereduak sortzen dituen kostu guztiak aztertzea: Pertsona bakoitzak, pertsona bakoitzaren tokiko komunitateak eta munduko komunitateak aldi berean ordaintzen dituztenak, diruz zenbatu daitezkeenak eta diru bihurtu ezin direnak.

Orain arte adierazitakoa aintzat hartuta, eta garraioaren eta garapen iraunkorraren ikuspegi integratzailea duen ingurune orokorrean nahiz bizikletaren erabilera sustatzeko politikaren esparru zehatzean, sortu da foru arau hau, Gipuzkoako Lurralde Historikoko Batzar Nagusiek, automobila era arrazionalean ez

amenazas y oportunidades que la cuestión del transporte plantea en los diferentes niveles de gobierno y administración, instando a la toma de decisiones para superar los problemas existentes.

Asimismo, la Unión Europea a través de su Estrategia para un desarrollo sostenible establece como objetivo general en materia de transporte el garantizar que nuestros sistemas de transporte respondan a las necesidades sociales y económicas de la sociedad y, al mismo tiempo, se reduzcan al mínimo las repercusiones negativas sobre la economía, la sociedad y el medio ambiente, e incluye entre sus líneas de actuación el promover los desplazamientos en bicicleta o a pie.

En el ámbito de la Comunidad Autónoma Vasca, hay que destacar la Proposición no de ley referente a la adaptación de las normas de circulación a la práctica del ciclismo, aprobada por el Parlamento Vasco el 8 de mayo de 1998, en la que dicho Parlamento insta al Gobierno Vasco a que, a través de los Departamentos correspondientes, así como a las Diputaciones Forales en sus respectivos Departamentos, tengan en cuenta, en la construcción y desarrollo de infraestructuras viarias de la Comunidad Autónoma, espacios específicos para la circulación ciclista, destinando para ello fondos públicos.

Asimismo, en virtud de la declaración institucional aprobada por unanimidad el 17 de mayo de 2006 por el Parlamento Vasco, en la que muestra su adhesión a los principios expresados en la Declaración de Amsterdam, «El derecho de usar la bicicleta», se hace un llamamiento a las distintas administraciones públicas para que asuman un compromiso activo en el diseño y ejecución de políticas de promoción de la movilidad ciclista.

Con el fin de llevar a la práctica dichos objetivos, es fundamental que la movilidad sea objeto de una cuidadosa planificación elaborada en un nuevo marco de referencia. Es preciso apostar por aquellos medios de transporte que impliquen una menor agresión al medio natural y social. Se trata de reducir los impactos negativos del actual sistema de transporte sobre los recursos naturales y la calidad del aire, fónica y de las aguas, de minimizar el consumo de energía y de suelo. Pero también, se trata de avanzar hacia un modelo social en el que el espacio urbano y periurbano sean accesibles a todas las personas, donde el tiempo destinado a las largas distancias pueda ser invertido en nuestro entorno social o personal. En definitiva, un modelo en el que la accesibilidad destaque frente a la movilidad, en el que la bicicleta ha de jugar un papel primordial.

Para ello, es preciso que la ordenación del territorio y la planificación urbanística tengan en cuenta, hoy más que nunca, su profunda relación con la planificación del transporte y las implicaciones que en materia de movilidad conllevan la ordenación de los usos y de las actividades, las características del modelo de ciudad que se está desarrollando, la distribución de los espacios públicos, etc. Asimismo, sus consecuencias sobre la potenciación de los modos de transporte no motorizados, la bicicleta y el modo peatonal, y sobre la calidad de vida existente en nuestras calles. La potenciación del transporte colectivo, de la intermodalidad y la promoción de un uso del coche cada vez más racional son otros de los ejes prioritarios de actuación. Es imprescindible, también, tomar en consideración todos los costes generados por el actual modelo de transporte, teniendo en cuenta los efectos secundarios indeseables que cada modo produce, tales como el deterioro de las infraestructuras, la saturación, los accidentes o la contaminación.

Por lo expuesto, y en el marco general de una visión integradora del transporte y el desarrollo sostenible y en el ámbito concreto de una política de promoción del uso de la bicicleta, la presente Norma Foral nace con el firme propósito de dar respuesta a la demanda que las Juntas Generales del Territorio

erabiltzeak ibilgailuen trafikoan eta hirietako eta hiri inguruetako mugikortasunean sortzen dituen arazoez jakitun, Gipuzkoako Foru Aldundiari motorrik gabeko hautabidezko garraiobideak –bizikleta nagusiki– erabiltzea sustatzeko eta errazteko egindako eskaerari erantzuna emateko asmotan. Horrela bada, geure gain hartzen ditugu estrategiaren ildo nagusiak gai horretan.

Nabarmendu behar dugu bizikleta garraiobide gisa sustatzea erronka handia dela eta, hortaz, guztiz garrantzitsua dela erakundeen arteko lankidetza, eta bereziki tokiko erakundeen artekoa, garraio-moduen banaketa arrazional bat erdiesteko aldaketaren bidean era koordinatuan eta elkarrekin ibili ahal izateko. Garraio-moduen banaketa horretan, motorrik gabeko –bizikleta, kasu– garraiobideen presentzia handiagoa izango da, eta horrek guztiak bat egingo du Gipuzkoako udalerrietan Tokiko Agenda 21eko programetan zehaztutako ingurunearekin.

Bestalde, nabarmendu behar dugu zer garrantzitsua den Lurralderako hiriarteko bizikleta-bideen sare bat izatea, behar bezala eraikia, zaindua eta babestua, Gipuzkoako udalerri nagusiak motorrik gabeko mugikortasuna eta bizikletaz eta oinez lekualdatzea garatzeko berariazko espazio gisa antolatzen dituena, pedalei eragiteko laguntza duten bizikletei eta minusbaliatuentzako aulki elektrikoei ere tokia egingo diena, eta, zatien izaeraren arabera, garraioarekin soilik eta baita aisialdi- eta turismo-jarduerekin lotutako erabilerak sustatuko dituena, jolas-jardueren proiektuak gauzatzeko ardatz gisa. Sare hori lurralde mugakideetan aurreikusten edo garatzen ari diren bizikleta-bideekin eta Europa zeharkatzen duten sare nagusiekin lotuta egongo da.

Azkenik, berariazko ingurune juridiko hau ezarriz bizikleta-bidea kontzeptua bide mota berri bat gisa, komunikabide berri gisa, finkatzea nahi dugu; eta bide berri hori 1979ko abenduaren 18ko 3/1979 Lege Organikoaren bidez onartutako Euskal Herriaren Autonomia Estatutuk 10.34 artikuluan eta 27/1983 Legeak, Autonomia Elkarte Osorako Erakundeen eta bertako Kondaira Lurraldeetako Foru Erakundeen arteko harremanei buruzkoak, 7.a.8. artikuluan adierazitako bideen barruan badago ere, ezin zaio ezarri ekainaren 6ko 1/2006 Foru Dekretu Arauemaileak, Gipuzkoako Errepideen eta Bideen Foru Arauaren testu bateratua onartzen duenak, adierazitakoari jarraituz (2.2. artikulua) bideari buruz zehaztutako definizioa, berezkoak dituen berezitasun eta ezaugarriak kontuan izanda.

## ATARIKO IDAZPURUA

## XEDAPEN OROKORRAK

### I. ATALBURUA. OINARRIZKO PRINTZIPIOAK, XEDEA, DEFINIZIOAK ETA EREMUA

*1. artikulua. Xedea.*

Hau da foru arau honen xedea:

1. Bizikleta-bidea kontzeptua bide mota berri gisa definitzea. Bide horren ezaugarri nagusiak izango dira motorrik gabeko eta gehienbat bizikleta bidezko mugikortasuna garatzeko berariazko bide batek izan behar dituenak, beste bide batzuetatik bereizten dutena.

2. Gipuzkoako foru bizikleta-bideen sarea, Gipuzkoako hirietan eta hiri inguruetan bizikletaz mugitzea garatzeko eta ahal den gehiena sustatzeko oinarrizko azpiegitura gisa, planifikatzea, proiektatzea, eraikitzea, aldatzea, zaintzea, ustiatzea eta defendatzea araututa egotea.

Histórico de Gipuzkoa, conscientes de los problemas que el uso no racional de automóvil genera en el tráfico rodado y en la movilidad urbana y periurbana, hacen a la Diputación Foral de Gipuzkoa, para que promueva y facilite el uso de medios de transporte alternativos no motorizados, entre los que destaca la bicicleta, asumiendo de este modo, las grandes líneas estratégicas en la materia.

Es necesario remarcar que en el reto que supone la promoción de la bicicleta como medio de transporte, es de vital importancia la colaboración entre las diferentes instituciones, especialmente en el nivel local, para que de forma coordinada se avance conjuntamente en el cambio hacia un modelo que favorezca un reparto modal en el que haya una mayor presencia de los modos no motorizados como la bicicleta, todo ello, en concordancia con el contexto establecido para los Programas de Agenda 21 Local en los municipios de Gipuzkoa.

Ha de destacarse, por otra parte, la trascendencia territorial que lleva aparejado el hecho de contar con una red ciclista interurbana convenientemente planificada, construida, conservada y protegida, que articule los principales núcleos de población de Gipuzkoa, como espacio específico para el desarrollo de una movilidad no motorizada, ciclista y peatonal, en la que tienen cabida las bicicletas con pedaleo asistido y las sillas eléctricas para personas discapacitadas, y que según la naturaleza de sus tramos satisfará usos relacionados con el puro transporte y también con las actividades de ocio y turismo como ejes en torno a los que situar proyectos de actividades recreativas, una red conectada con las redes ciclistas, previstas o en desarrollo, de los territorios limítrofes y con las principales redes transeuropeas.

Finalmente, a través del establecimiento de este marco jurídico específico se pretende también dar carta de naturaleza al concepto de vía ciclista como un nuevo tipo de camino, una nueva vía de comunicación que, si bien forma parte de los caminos contemplados en el artículo 10.34 del Estatuto de Autonomía del País Vasco, Ley Orgánica 3/1979, de 18 de diciembre, y en el artículo 7.a.8 de la Ley 27/1983, de 25 de noviembre, de Relaciones entre las Instituciones Comunes de la Comunidad Autónoma y los Organos Forales de sus Territorios Históricos, no es encuadrable en la definición de camino establecida a los efectos de lo dispuesto en el Decreto Foral Normativo 1/2006, de 6 de junio, por el que se aprueba el Texto Refundido de la Norma Foral de Carreteras y Caminos de Gipuzkoa (artículo 2.2), dadas sus particularidades y características que le son propias.

## TITULO PRELIMINAR

## DISPOSICIONES GENERALES

### CAPITULO I. OBJETO, DEFINICIONES Y AMBITO, PRINCIPIOS INSPIRADORES

*Artículo 1. Objeto.*

El objeto de la presente Norma Foral es:

1. La definición del concepto de vía ciclista como nuevo tipo de camino, definiendo sus características esenciales como nuevo tipo de infraestructura viaria específica para el desarrollo de la movilidad no motorizada, preferentemente ciclista, y que la hacen diferente de otros tipos de caminos.

2. La regulación de la planificación, proyecto, construcción, modificación, conservación, explotación, uso y defensa de la Red de Vías Ciclistas Forales de Gipuzkoa, como infraestructura básica para el desarrollo y máxima potenciación de la movilidad ciclista peri-interurbana en Gipuzkoa.

3. Aipatutako sareari atxikitako lurzoruaren erabileran dauden mugak zehaztea.

4. Bizikleta garraiobide gisa sustatzeko berariazko tresna izatea.

*2. artikulua. Bizikleta-bideen definizioa eta bide motak.*

1. Foru Arauaren eraginetarako, bizikleta-bidea herrijabariko bidea izango da, bizikletak ibiltzeko proiektatu eta eraiki dena edo berariaz horretarako egokitu dena, dagozkion seinale horizontalak eta bertikalak dituena, eta ibilgailu horiek segurtasunez ibiltzeko adinako zabalera duena.

2. Arau honen eraginetarako, ulertu egingo da bizikleta-bideak, dituzten ezaugarriak eta erabiltzaile motak direla-eta, ez direla errendimenduko kirola egiten duten txirrindularien berariazko behar eta praktikei erantzuteko moduko bideak, txirrindulari horiek, gehienbat, erabilera hori berariaz debekatuta ez dagoen errepide-sarearen zatietan ibiltzen direlako. Hori guztia bizikleta-bideek –puntu edo zati jakin batzuetan– bizikletaren erabiltzaile mota horri kirol hori egiteko hain segurua ez den errepide-sareko puntu edo zatiren bat –gehienetan herrietako irteeretan– saihesteko aukera eskaintzeari kalterik egin gabe, edo txirrindulariak errepide-sarearen bidez ezinezkoak diren zenbait lotura egin ahal izateari utzi gabe, betiere kirolariak bide horretan zirkulatzeko baldintzak errespetatzen baditu, eta baldintza horietara moldatzen bada.

3. Bizikleta-bideak sailkatzeko orduan, ibilgailu motordunak eta oinezkoak ibiltzeko bideekin alderatuta, duten plataforma kontuan hartu behar dugu eta baita bide horietatik zertan ezberdintzen edo bereizten diren ere; ildo horretan, honako azpiegitura mota hauek daude:

a) Bizikleta-bidezidorra: Oinezkoak eta bizikletak ibiltzeko bidea da, kale eta errepideetatik bereiztuta dagoena, edo trenbideko plataforma abandonatuetan, lehendik dauden bideetan edo zabalgune sortu berrietan egiten dena.

b) Bizikleta-espaloia: Oinezkoentzako espaloien espazioan ezarritako bizikleta-bidea da. Bizikleten trafikoarekin batera oinezkoen zirkulazioa ezar daiteke, bi modu horietarako seinaleak jarrita; era berean, bizikleten zirkulazioa oinezkoen zirkulaziotik bereiztuta egon daiteke, seinaleen, zoladuran egindako marren edo fisikoki bereizteko edo segregatzeko beste edozein elementuren bidez. Noranzko bakarrekoa edo noranzko bikoa izan daiteke.

c) Bizikleta-pista: Galtzadaren eta errepidearen eta espaloiaren paraleloan doan bizikleta-bidea da, trazadura eta plataforma independente dituena, ibilgailu motordunen trafikotik bereiztuta. Noranzko bakarrekoa edo noranzko bikoa izan daiteke.

d) Bizikleta-errei babestua edo bizikleta-lerro babestua: Galtzadaren zati bat hartzen duen bizikleta-bidea da, galtzadatik eta ibilgailu motordunen trafikotik bideko marren bidez, mutiloien edo bereizteko edota babesteko beste elementu batzuen bidez fisikoki bereiztuta dagoena. Noranzko bakarrekoa edo noranzko bikoa izan daiteke.

e) Bizikleta-erreia edo bizikleta-lerroa: Galtzadaren zati bat hartzen duen bizikleta-bidea da, galtzadatik eta ibilgailu motordunen trafikotik bereiztuta dagoena, baina ez fisikoki segretatuta, eta zirkulazioaren noranzko bera duena.

f) Bizikleta-bazterbidea: Errepideko bazterbidea hartzen duen bizikleta-bidea da, zirkulazioaren noranzkoa duena eta fisikoki segretatuta ez badago ere, bideko marren bidez, kolore eta egituraren bidez, sestra-aldaketa arinen edo beste metodo batzuen bidez bereiztuta dagoena.

3. El establecimiento de las limitaciones de uso del suelo adyacente a la citada Red.

4. El disponer de herramientas específicas para la potenciación del uso de la bicicleta como modo de transporte.

*Artículo 2. Definición y tipos de vías ciclistas.*

1. A los efectos de esta Norma Foral se entiende por vía ciclista aquella vía de dominio público proyectada y construida o específicamente acondicionada para la circulación de bicicletas, con la señalización horizontal y vertical correspondiente, y cuyo ancho permita el paso seguro de estos vehículos.

2. A los efectos de esta Norma Foral, se entiende que las vías ciclistas, por sus características y usuarios-tipo, no son infraestructuras que puedan dar respuesta a las necesidades y prácticas específicas del ciclismo deportivo de rendimiento, que habitualmente se desarrolla sobre aquellos tramos de la red de carreteras en los que no está expresamente desautorizado dicho uso. Todo ello sin perjuicio de que en determinados puntos y/o tramos muy concretos, las vías ciclistas puedan ser útiles para que este tipo de usuario ciclista logre evitar, si lo desea, determinados puntos o tramos más inseguros de la red de carreteras para su práctica deportiva, generalmente a la salida de las poblaciones, o pueda realizar determinadas conexiones que no le son posibles a través de la red de carreteras, y siempre que respete y se adapte a las condiciones de circulación propias de la vía ciclista por la cual transite.

3. Atendiendo a la conformación de su plataforma con relación a los modos motorizado y peatonal, así como a su grado de diferenciación o separación con respecto a éstos, las vías ciclistas se clasifican conforme a la siguiente tipología de infraestructuras:

a) Senda-bici: Vía para peatones y bicicletas, que discurre independientemente de las calles y carreteras, sobre plataformas de ferrocarril abandonadas, caminos existentes o explanaciones de nueva creación.

b) Acera-bici: Vía ciclista dispuesta sobre el espacio de la acera peatonal. El tránsito ciclista puede disponerse en coexistencia con el tránsito peatonal, con señalización de indicación de ambos modos, o estar claramente diferenciado de éste mediante señalización, marcas en el pavimento o cualquier otro elemento de diferenciación o segregación física. Puede ser unidireccional o bidireccional.

c) Pista-bici: Vía ciclista que discurre en paralelo a la calzada o carretera y a la acera, pero con trazado y plataforma independiente y segregada del tráfico motorizado. Puede ser unidireccional o bidireccional.

d) Carril-bici protegido: Vía ciclista que ocupa parte de la calzada y que está segregada físicamente de la misma y del tráfico motorizado mediante marcas viales, bolardos u otros elementos de separación o protección. Puede ser unidireccional o bidireccional.

e) Carril-bici: Vía ciclista que ocupa parte de la calzada y que está diferenciada, pero no segregada físicamente, de la misma y del tráfico motorizado, y que discurre en el mismo sentido de la circulación.

f) Arcén-bici: Vía ciclista que ocupa el arcén de la carretera, que discurre en el mismo sentido de la circulación y que no está segregada físicamente pero sí diferenciada mediante marcas viales, cambios de color y textura, ligeros cambios de rasante u otros métodos.

PAPER BIRZIKLATUA PAPEL RECICLADO

g) Ibilgailu motordunen trafikoarekin partekatutako bidea: Hiriko edo hiriarteko bidea da, dituen diseinua eta trafikoaren arautzea kontuan izanda, ibilgailu motordunen portaera eta abiadurak bizikletaren erabilerarekin bateragarriak dituena, espazio partekatuzko erregimenean.

*3. artikulua. Aplikazio eremua.*

1. Foru arau hau ezartzeko eremuak foru jabetzako bizikleta-bideak izango dira, baldin eta Gipuzkoako Foru Bizikleta Bideen Sarearen Katalogoaren barruan foru jabetzako bizikletabide sailkapenez azaltzen badira.

2. Foru arau honek arautzen dituen foru jabetzako bizikleta-bideak, 2.3. artikuluan zehaztutako sailkapenari jarraituz, hauek izango dira: Bizikleta-bidezidorra, bizikleta-espaloia, bizikleta-pista eta bizikleta-lerro babestua.

Bide horiek guztiek foru bizikleta-bideak izendapena izango dute.

3. Era berean, foru arau honen ezarpen-eremuaren barruan egongo dira foru bizikleta-bideetako babesguneak eta bere funtzionamenduari atxikitako gune guztiak, hala nola, aparkalekuak, zerbitzuguneak edo atsedenguneak, eta antzeko azpiegiturak.

4. Bizikleta-bidea foru errepide bati atxikitako bizikletalerro babestua denean, errepideei buruzko araudiak adierazitakoa bateko da eta, kasu bakoitzean, foru arau honen irismena zehaztuko da, araudi horretan oinarrituta.

5. Guztiz debekatuta dago ibilgailu motordunek foru bizikleta-bide guztietan zirkulatzea, zaintzeko, artatzeko eta mantentze-lanak egiteko izan ezean; era berean, bide horietan zirkulatzeko salbuespena egin ahal izango da, zehazki, beharrezkoa denean funts edo jabetzetara, ehiza- eta arrantza-esparruetara, ateraldietarako bideetara sartzeko, beste herri-azpiegitura batzuetan mantentze-lanak egiteko, eta abarrerako, betiere bertaratzeko beste hautazko bide bat ez dagoenean, eta kasu bakoitzean ezartzen den seinaleztapenaren arabera. Hori guztia, foru arau honen 43. artikuluan eta hurrengoetan aurreikusitakoari jarraituz.

6. Foru bizikleta-bideak erabili ahal izango dira berariaz hala aurreikusita dagoenean. Horrelakoetan, behar bezala seinaleztatuta egongo da eta bi trafikoek era egokian elkarrekin zirkulatzeko gutxieneko baldintzak ziurtatu beharko dira.

*4. artikulua. Oinarrizko printzipioak.*

Foru arau honen oinarrizko printzipioak hauek dira:

1. Gipuzkoan, mugikortasun iraunkorra sustatzea, ingurumenean eta gizartean eragin txikia sortzen duten edo batere eraginik sortzen ez duten garraio-sistemak bultzatzen dituena, hala nola bizikleta edo oinez ibiltzea.

2. Pertsona guztiek irisgarritasuna mugikortasun-baldintza seguru, eroso, eta osasuntsuetan eta ingurumena errespetatzen duten baldintzetan lortzeko duten eskubidea defendatzea.

3. Egungo garraio-sistemaren kostuak murrizten laguntzea. Kostu horien artean dago, eta nabarmentzekoa da, gizartearen alorrekoa, hau da, ibilgailu motordunen trafikoa itotzearen ondorioz sortzen diren kostuak, airearen kutsaduratik eta soinukutsaduratik eta kliman eta osasunean dituzten eraginetatik ondorioztatzen diren kostuak, istripuek eta beren ondorioek sortutako kostuak, espazio publikoaren erabileraren ondorioz sortutako kostuak, energiaren erabileraren ondoriozkoak, ibilgailu motordunak fabrikatzean kontsumitzen diren baliabideei dagozkionak, eta lurraldean eta bioaniztasunean azpiegiturek sortzen dituzten eraginen ondoriozko kostuak.

g) Vía compartida con el tráfico motorizado: Vía urbana o interurbana en la que el diseño y la regulación del tráfico inducen comportamientos y velocidades de los vehículos motorizados compatibles con el uso ciclista en régimen de coexistencia.

*Artículo 3. Ambito de aplicación.*

1. El ámbito de aplicación de esta Norma Foral serán aquellas vías ciclistas de titularidad foral que se designen y se incluyan como tales en el Catálogo de la Red de Vías Ciclistas Forales de Gipuzkoa.

2. Las vías ciclistas de titularidad foral reguladas por la presente Norma Foral serán, atendiendo a la clasificación establecida en el artículo 2.3, del tipo: Senda-bici, Acera-bici, Pistabici y Carril-bici protegido.

Todas estas vías ostentarán la denominación genérica de «Vías Ciclistas Forales».

3. También constituyen ámbito de aplicación de esta Norma Foral las zonas de protección de las vías ciclistas forales y aquellas áreas asociadas a su funcionamiento, como aparcamientos, áreas de servicio o descanso e infraestructuras similares.

4. En el caso de que la vía ciclista sea del tipo Carril-bici protegido asociado a una carretera foral, se estará a lo dispuesto por la normativa de carreteras, en base a la cual se establecerá el alcance de esta Norma Foral en cada caso.

5. Queda expresamente prohibida la circulación de los vehículos a motor en la totalidad de las vías ciclistas forales, salvo para las labores precisas de su vigilancia, conservación y mantenimiento, así como en los supuestos concretos de su necesaria utilización a los solos efectos de acceso a fundos o propiedades, a cotos de caza y pesca, vías de saca, al mantenimiento de otras infraestructuras públicas, etc., siempre que no exista otra alternativa viable para tal acceso y conforme a la señalización que se establezca en cada caso, todo ello de acuerdo con lo previsto en los artículos 43 y siguientes de la presente Norma Foral.

6. Se podrá hacer uso peatonal de las vías ciclistas forales en aquellos supuestos en los que quede expresamente previsto, debiendo estar así señalizado y debiéndose asegurar las condiciones mínimas para la adecuada coexistencia de ambos tráficos.

*Artículo 4. Principios inspiradores.*

Esta Norma Foral tiene como principios inspiradores:

1. La promoción de una movilidad sostenible para Gipuzkoa en la que se incentiven los sistemas de transporte de bajo o nulo impacto ambiental y social, como la bicicleta o los desplazamientos a pie.

2. La defensa del derecho de todas las personas a la accesibilidad en condiciones de movilidad seguras, cómodas, saludables y respetuosas con el medio ambiente.

3. La contribución a la reducción de los costes del actual sistema de transporte, entre los cuales se incluye y destaca su coste social, es decir, el que se compone de los costes derivados de la congestión del tráfico motorizado, de los de la contaminación atmosférica y acústica y sus efectos sobre el clima y la salud, los de los siniestros y sus consecuencias, los del uso del espacio público, los del uso de la energía, los correspondientes a los recursos que se consumen en la fabricación de vehículos motorizados y los relativos al impacto de las infraestructuras sobre el territorio y la biodiversidad.

4. Lurraldearen antolaketa eta hirigintzako antolaketa orekatua eta iraunkorra sustatzea.

5. Pertsonen osasuna hobetzen eta hiriko nahiz hiri inguruko espazioa gizatiarrago bihurtzen laguntzea.

6. Aisialdiko eta turismo-jarduerak garantzen eta landaingurune eta natur ingurunera iristeko era iraunkorragoa izaten laguntzea.

*5. artikulua. Foru bizikleta-bideetako babesguneak.*

1. Foru bizikleta-bideen babesa, foru arau honetan aurreikusitako eraginetarako, foru bizikleta-bideen lurzoruaren erabilera eta baita babesgunearen azaleraren erabilerak kontrolatzea da, foru arau honetan, II. Idazpuruan arautzen diren baldintzen arabera.

2. Foru arau honen eraginetarako, bi babesgune ezarriko dira foru bizikleta-bideetan:

— Herri-jabarigunea.

— Zorgunea.

*6. artikulua. Herri-jabarigunea*

1. Foru bizikleta-bideek hartzen dituzten lurrak eta bertako elementuak herri-jabarigunearen barruan daude.

2. Lur horiekin batera, herri-jabarigunea da, halaber, bizikletentzako azpiegituraren mugakidea den lur-zerrenda, metro bateko zabaleran, zerrenda horretako zabalgunearen bi alboetako kanpoko ertzetatik hasita.

Eragin guztietarako, zabalgunearen kanpoko ertza lurerauzketako, lubetako edo, bere kasuan, lurzoru naturalaren mugakideak diren hormetako ezpondaren intersekzioa da.

Kasu berezietan –zubi, bidezubi, tunel, egitura edo antzeko obrak–, zabalgunearen kanpoko ertza izan daiteke obren ertzeko lurraren gaineko proiekzio-marra bertikala. Egituraren euskarriek hartzen duten lurra, nolanahi ere, herri-jabarigunea izango da.

3. Foru bizikleta-bidea foru errepide baten mugakide diren edo errepide horren ondoan dauden lur-zerrendetan egiten denean eta, beraz, errepidearen jabarigunearen barruan, herrijabarigune berria finkatzeko orduan, nagusitu egingo da bi neurketak ezartzean ondorioztatzen den handiena.

*7. artikulua. Zorgunea.*

1. Foru bizikleta-bideek zorgune bat izango dute, bi alboetan lur-zerrenda banak osatuko dutena; zerrendek, barrualdean, beren herri-jabarigunea izango dute mugakide, eta kanpoaldean bi lerro paralelo, lur-zerrendatik bi metrotara kokatuta.

2. Foru bizikleta-bideak foru errepide baten mugakide diren edo ondoan dauden lur-zerrendetan egiten direnean eta, beraz, errepidearen babesgunearen barruan, bi neurketak ezartzean ondorioztatzen den handiena nagusituko da, zorgune berria ezartzeko orduan.

*8. artikulua. Jabari-erregimena.*

Foru bizikleta-bideak herri-jabariko eta herri-erabilerako ondasunak dira eta, hortaz, ez dira besterengarriak edo bahigarriak, eta preskribaezinak dira. Bide horien jabetza eta bide horiek eraikitzeko, artatzeko edo ustiatzeko herri-jarduketak ez daude inolako zergaren menpe.

4. El impulso a una ordenación territorial y urbanística equilibrada y sostenible.

5. La contribución a la mejora de la salud de las personas y la recuperación de un espacio urbano y periurbano más humanizado.

6. El apoyo al desarrollo de las actividades de ocio y turismo y la contribución a un acceso más sostenible al medio rural y natural.

*Artículo 5. Zonas de protección de las vías ciclistas forales.*

1. Se entiende por protección de la vía ciclista foral, a los efectos previstos en esta Norma Foral, el control de los usos del suelo de la vía ciclista foral, así como los de la superficie de la zona de protección, según las condiciones reguladas en el Título II de la presente Norma Foral.

2. A los efectos de la presente Norma Foral se establecen dos zonas de protección en las vías ciclistas forales:

— Zona de dominio público.

— Zona de servidumbre.

*Artículo 6. Zona de dominio público.*

1. Los terrenos ocupados por las vías ciclistas forales y sus elementos funcionales forman parte del dominio público.

2. Juntamente con dichos terrenos, se considera zona de dominio público la franja de terreno colindante de titularidad pública a la infraestructura ciclista, en la extensión de un metro de anchura a partir de las aristas exteriores de explanación a ambos lados de la misma.

A todos los efectos, se considera arista exterior de explanación la intersección del talud del desmonte, del terraplén o, en su caso, de los muros colindantes con el terreno natural.

En los casos especiales de puentes, viaductos, túneles, estructuras u obras similares, se podrá fijar como arista exterior de la explanación la línea de proyección vertical del borde de las obras sobre el terreno. El terreno ocupado por los soportes de la estructura será, en todo caso, de dominio público.

3. En aquellos supuestos en que la vía ciclista foral esté realizada en franjas de terreno colindantes o cercanas a una carretera foral, y por tanto, dentro de su franja de dominio público, prevalecerá a efectos de fijar la nueva zona de dominio público la superior resultante de aplicar ambas mediciones.

*Artículo 7. Zona de servidumbre.*

1. Las vías ciclistas forales dispondrán de una zona de servidumbre fijada por sendas franjas de terreno a ambos lados, delimitadas internamente por su zona de dominio público y externamente por dos líneas paralelas, situadas a dos metros y medio de ésta.

2. En aquellos supuestos en que la vía ciclista foral esté realizada en franjas de terreno colindantes o cercanas a una carretera foral, y por tanto dentro de la franja de protección de ésta, prevalecerá a efectos de fijar la nueva zona de servidumbre la superior resultante de aplicar ambas mediciones.

*Artículo 8. Régimen demanial.*

Las vías ciclistas forales son bienes de dominio y uso público, por lo que no son enajenables, embargables ni prescriptibles. Ni su titularidad ni las actuaciones públicas destinadas a su construcción, conservación o explotación están sometidas a tributo alguno.

PAPER BIRZIKLATUA PAPEL RECICLADO

*9. artikulua. Foru Bizikleta Bideen Sarearen Katalogoa.*

1. Foru jabetzako bizikleta-bideak dira Gipuzkoako Foru Aldundiak emandako Foru Dekretuaren bidez izendapen hori duten eta erabiltzen diren azpiegitura guztiak –bizikleta-bideen eskumena duen organoak hala proposatuta–, baita Gipuzkoako Foru Bizikleta Bideen Sarearen Katalogoaren barruan daudenak ere. Bidea beste foru departamentu bati atxikita badago, izendapena bi departamentuek proposatutakoaren arabera egingo da.

2. Gipuzkoako Foru Aldundiak Foru Bizikleta Bideen Sarearen Katalogoa burutuko du. Katalogoan foru bizikleta-bide guztien zerrenda xehatua eta beren sailkapena adieraziko dira, identifikatzeko eta izendapen ofiziala ezagutzeko azalpenak emanda, eta etengabe eguneratuko direnak.

3. Gipuzkoako Foru Bizikleta Bideen Sarearen Katalogoa aldatu beharko da, nolanahi ere, honako kasu hauetan:

— Dauden foru bizikleta-bideen jabetza aldatzen denean, interesatuta dauden administrazio publikoek elkarrekin hartutako erabakiari jarraituz.

— Gipuzkoako Foru Aldundiak foru bizikleta-bide berriak eraikitzen dituenean.

*10. artikulua. Foru bizikleta-bideen izendapena.*

1. Foru bizikleta-bideak izendatzea izendapena emateko eta Katalogoan sartzeko xedatzen duen Foru Dekretuak xedatutakoaren arabera egingo da, eta baita azaroaren 24ko 10/1982 Oinarrizko Legeak, Euskararen Erabilera arauzkotzekoak, 10. artikuluan ezarritakoari jarraituz ere.

2. Bizikleta-bideak tokiko administrazioekin eta lurralde mugakideko administrazioekin batera identifikatu eta izendatuko dira.

*11. artikulua. Jabetzaren eskualdatzeak.*

1. Foru bizikleta-bideen sarearen barruan dauden bizikleta-bidezidorra, bizikleta-espaloia, bizikleta-pista eta bizikleta-lerro babestua diren zatiak tokiko sareen barruan sartzea egoki jotzen denean, zati horiek zeharkatzen dituzten udalerriei emango zaizkie, ekintza horren ondorio diren betebehar eta ardura guztiak barne.

Oro har, egoera horretan egongo dira hiritar gisa sailkatuta dagoen lurzorua zeharkatzen duten bizikleta-bideetako zatiak eta herrietako gune hiritar finkatuen barruan daudenak, hori horrela nahitaezkoa ez izan arren.

2. Era berean, udal jabetzako bizikleta-bideak foru bizikleta-bideen sarean sartu ahal izango dira, sare nagusi hori osatzeko interesgarriak direnean.

Foru Aldundiaren jabetzako bizikleta-bide bat eskualdatzeak berekin izango du bidearen elementu funtzionalen eskualdatzea, baina ez nahitaez dauden beste instalazio batzuen eskualdatzea, eta hasiera batean horiek udal jabetzakoak izaten jarraituko dute.

3. Bizikleta-bideak eskualdatzean, beharrezkoa izango da Foru Aldundiak bide horiek Katalogoan sartzeko edo Katalogotik kentzeko berariazko adostasuna ematea, erasandako udalarekin edo udalekin audientzia izan eta gero, eta Gipuzkoako ALDIZKARI OFIZIALEAN argitaratuko da, emateko egintzaren aktaren beharrik izan gabe.

4. Aurreko puntuetan aurreikusitako eskualdatzeen ondorioz bizikleta-bide bat ematen denean, aipatutako bidea behar bezala artatuta egongo da.

*Artículo 9. Catálogo de la Red de Vías Ciclistas Forales.*

1. Se consideran vías ciclistas de titularidad foral aquellas infraestructuras en uso designadas como tales mediante Decreto Foral de la Diputación Foral de Gipuzkoa, a propuesta del órgano competente en materia de vías ciclistas, y que sean incluidas en el Catálogo de la Red de Vías Ciclistas Forales de Gipuzkoa. En el caso de que la vía esté adscrita a otro departamento foral, la designación se realizará a propuesta conjunta de ambos departamentos.

2. La Diputación Foral de Gipuzkoa elaborará un Catálogo de la Red de Vías Ciclistas Forales que contendrá la relación detallada y la clasificación de todas las vías ciclistas forales con expresión de su identificación y denominación oficial, y que se irá actualizando permanentemente.

3. El Catálogo de la Red de Vías Ciclistas Forales de Gipuzkoa deberá ser modificado, en todo caso, en los siguientes supuestos:

— Cambio en la titularidad de las vías ciclistas forales existentes en virtud de acuerdo mutuo de las Administraciones Públicas interesadas.

— Construcción por parte de la Diputación Foral de Gipuzkoa de nuevas vías ciclistas forales.

*Artículo 10. Denominación de las vías ciclistas forales.*

1. La denominación de las vías ciclistas forales se efectuará de acuerdo con lo dispuesto en el Decreto Foral que disponga su designación e incorporación al Catálogo, y conforme a lo establecido en el artículo 10 de la Ley 10/1982, de 24 de noviembre, Básica de Normalización del Uso del Euskera.

2. La identificación y denominación de las vías ciclistas se realizará en coordinación con las administraciones locales y las de los territorios limítrofes.

*Artículo 11. Traspasos de titularidad.*

1. Los tramos de Senda-bici, Acera-bici, Pista-bici y Carril-bici protegido pertenecientes a la Red de Vías Ciclistas Forales que se estime conveniente pasen a formar parte de las redes locales podrán ser entregados a los ayuntamientos por los que discurran, con las correspondientes obligaciones y responsabilidades derivadas de dicho acto.

En general, aunque no necesariamente, se considerarán en esta situación aquellos tramos de vías ciclistas que discurran por suelo clasificado como urbano y queden integrados en los espacios urbanos consolidados de la población.

2. Asimismo, las vías ciclistas de titularidad municipal podrán integrarse en la Red de Vías Ciclistas Forales cuando resulten de interés para completar dicha red general.

El traspaso de una vía ciclista a la Diputación Foral implicará el traspaso de sus elementos funcionales pero no necesariamente el de otras instalaciones existentes, que, en principio, seguirán siendo de titularidad municipal.

3. El traspaso de las vías ciclistas requerirá acuerdo expreso de la Diputación Foral sobre su inclusión o exclusión del Catálogo previa audiencia del ayuntamiento o ayuntamientos afectados y se perfeccionará por su publicación en el BOLETIN OFICIAL de Gipuzkoa, sin necesidad de acta de entrega.

4. La entrega de una vía ciclista como consecuencia de los traspasos previstos en los anteriores apartados deberá realizarse en adecuado estado de conservación.

## II. ATALBURUA. EZAUGARRI OROKORRAK

*12. artikulua. Bizikleta-bideen ezaugarri orokorrak.*

Oro har, foru bizikleta-bideak, ahal den neurrian, behean zerrendatutako baldintzetara egokituko dira:

1. Segurtasuna bilatu behar da, trafikoak bereizteko edota antolatzeko eta ibilgailu motordunentzako bideetatik bereizteko gutxieneko baldintza batzuk beteta, eta trazaduran, bideen elkargune beharrezkoak direlako, arazoak sortzen dituzten zatiak bereziki aintzat hartuta.

2. Bizikleta-bideei jarraitutasuna eta koherentzia eman behar zaie eta, ahal den neurrian, etendurak saihestuko dira, gutxieneko trazadura koherente bat egon dadin; trazadura horren bidez, herritarren beharrei erantzuten eta bizikletan ibiltzeko eskaera duten gune nagusiak lotzen saiatuko da, eta lehentasuna emango zaio dauden bizikleta-sareekin lotzeari, beren jabetza edozein dela ere.

3. Ibilbideen trazaduran ahal den helbideratzerik zehatzena bilatu behar da, helmugara zuzenean iritsi ahal izateko; hala ere, gertueneko ingurunearen segurtasun, erosotasun eta kalitate irizpideak errespetatuko dira.

4. Bidearen funtzioari eta aurreikusitako erabiltzaile mota eta kopuruari egokitutako ezaugarriak dituen diseinua egin behar da; horrekin batera, saiatu behar da trazadura erosoa izaten eta gehiegizko maldak saihesten. Era berean, azpiegituraren gutxieneko baldintzak bermatuko dira, bide-zoruari, seinaleei eta ekipamenduari dagokienez, goian aipatutako helburua lortzearren.

5. Lurraldeko ingurumenaren balioak (naturaren, gizartearen eta ekonomiaren esparruetakoak) errespetatzea eta kontuan hartzea, eta erasango den ingurunean ahalik eta integratuen dauden eraikuntza-irtenbideak bilatzea, ingurunea hiritarra, hiri ingurukoa, landa-eremukoa edo naturala izan.

6. Erraztasuna eman behar da sarearen barruan dauden azpiegituretara bizikletaz eta azpiegiturek zeharkatzen dituzten herri edo hiri nagusietatik zuzenean iristeko edo, bere kasuan, azpiegiturak talde garraioen bidez elkarrekin behar bezala lotuta egoteko; era berean, ibilgailu motordunaren mendekotasuna ahal den neurrian saihestu behar da.

7. Oinezkoen trafikoa jadanik baldin badago, horrekin bateratzeko gutxieneko baldintzak egotea erraztu behar da; azpiegitura bizikletek soilik erabiltzeko egokituko da, espazioa dela-eta, ahal den guztietan eta zati bakoitzean bizikletaz ibiltzeko aurreikusten den eskaria norainokoa den kontuan izanda justifikatuta dagoenean.

*13. artikulua. Foru Bizikleta Bideetako Seinaleen Katalogo Ofiziala.*

1. Foru bizikleta-bideetan erabilitako seinaleak Zirkulazioko Erregelamendu Orokorrean eta horrekin bat egiten duten gainerako arauetan ezarritakoak izango dira.

2. Aurrekoari kalterik egin gabe, Gipuzkoako Foru Aldundiak egokitzat jotzen dituen seinaleak sortu ahal izango ditu, arautzen den objektuaren berariazkotasuna kontuan izanda.

Seinale horiek Foru Bizikleta Bideetako Seinaleen Katalogo Ofiziala osatuko dute. Katalogoa foru arau honen I. eranskinean dago jasota, eta eguneratuta mantenduko da beti.

3. Nolanahi ere, foru bizikleta-bideak behar bezala seinaleztatuta egongo dira, eta seinaleak argi eta garbi ikusi beharko dituzte bai bide horien erabiltzaileek, bai beste ibilgailuetako gidariek, eta baita bide horiekin zerikusirik izan dezaketen gainerako subjektuek ere.

## CAPITULO II. CARACTERISTICAS GENERALES

*Artículo 12. Características generales de las vías ciclistas forales.*

Con carácter general las vías ciclistas forales deberán adecuarse en la medida de lo posible a las condiciones siguientes:

1. Buscar la seguridad mediante unas condiciones mínimas de segregación y de ordenación de los diferentes tráficos así como de diferenciación con respecto a los viales para vehículos motorizados, y prestando especial atención a aquellos puntos del trazado que supongan un conflicto por la necesaria intersección con los mismos.

2. Dar continuidad y coherencia a las vías ciclistas, evitando en la medida de lo posible las interrupciones, de tal modo que exista un trazado mínimo coherente, que procure dar respuesta eficaz a las necesidades de la población y conecte los principales puntos generadores de demanda ciclista, primando la conexión con aquellas otras redes ciclistas existentes, independientemente de su titularidad.

3. Buscar la mayor direccionalidad posible en el trazado de sus itinerarios, de tal modo que lleven directamente al lugar de destino, si bien respetando los criterios mínimos de seguridad, comodidad y calidad del entorno más inmediato.

4. Atender a un diseño con características geométricas adecuadas a la función de la vía y al tipo y número de usuarios previsto, procurando la comodidad en el trazado y tratando de eludir las pendientes excesivas. Del mismo modo, se garantizarán unas condiciones infraestructurales mínimas en materia de firme, señalización y equipamiento que contribuyan a tal fin.

5. Observar y atender a los valores ambientales (naturales, sociales y económicos) del territorio, procurando soluciones constructivas lo mejor integradas posible en el entorno que se vea afectado, sea éste urbano, periurbano, rural o natural.

6. Facilitar que las infraestructuras que formen parte de la Red sean directamente accesibles en bicicleta desde los principales núcleos de población por los que transcurran o, en su caso, se hallen debidamente interconectadas a través de los transportes colectivos, evitando en lo posible la dependencia del vehículo motorizado.

7. Facilitar unas condiciones mínimas de coexistencia con el tráfico peatonal preexistente o previsto, tratando de acondicionar la infraestructura para uso exclusivo de bicicletas siempre que sea posible en términos de espacio y se estime justificado en función de la demanda ciclista potencial prevista en cada tramo.

*Artículo 13. Catálogo Oficial de Señales de las Vías Ciclistas Forales.*

1. La señalización utilizada en las vías ciclistas forales será la contemplada en el Reglamento General de Circulación y demás normas concordantes.

2. Sin perjuicio de lo anterior, la Diputación Foral de Gipuzkoa podrá crear aquellas señales que se consideren convenientes, atendiendo a la especificidad del objeto regulado.

Dichas señales integrarán el Catálogo Oficial de Señales de las Vías Ciclistas Forales, que se adjunta en el Anexo I a la presente Norma Foral y que se mantendrá permanentemente actualizado.

3. En cualquier caso, las vías ciclistas forales estarán suficientemente señalizadas, de forma que su presencia resulte evidente tanto para las personas usuarias de éstas, como para quienes conducen otros vehículos y demás personas con posible incidencia en aquéllas.

PAPER BIRZIKLATUA PAPEL RECICLADO

*14. artikulua. Zorua eta zolaketa.*

Foru bizikleta-bideetako zorua eta zolaketa bizikletaren berezko berezitasunak, erabiltzaile mota guztiak eta bide horietan baimenduta dauden gainerako erabilerak kontuan izanda egingo dira. Era berean, kontuan hartuko dira alderdi hauek:

— Gainazalaren erregulartasuna.

— Labaintzearen aurreko erresistentzia egokia.

— Ezbeharrak sor ditzaketen oztopoak, hala nola erregistroko saretak eta estalkiak, saihestea edo, bere kasuan, bizikleta erabiltzeari ahalik eta era seguruenez egokitzea.

— Egokia bada, beste bide batzuetatik estetika eta ikuspegiaren alderdia aintzat hartuta bereiztea, batez ere ibilgailu motordunek erabilitako bideetatik.

— Egokia bada, zeharkatzen den ingurunean –hiri barrukoa, hiri ingurukoa, landa-esparrukoa nahiz natur esparrukoa izan– ahalik eta hoberen barneratuta dauden zoruaren eta zolaketaren irtenbideak bilatzea, ingurumenaren eta estetikaren balioen arabera.

*15. artikulua. Argiztapena.*

Beharrezkoa den gutxieneko argiztapenaz hornituko dira segurtasunari eta erabilerari begira hala behar duten zatiak.

*16. artikulua. Elkarguneak.*

1. Foru bizikleta-bideak diseinatzeko orduan, kontuan hartuko dira beste trafiko mota batzuekiko elkarguneetako segurtasuna eta, bereziki, ibilgailu motordunentzako bideekiko elkarguneetakoa.

Ildo horretan, eta gerta daitezkeen ezbeharrak saihestearren, oinezkoek, ziklistek eta auto-gidariek erantzuteko behar den espazioan eta denboran elkar ikusteko moduko elkarguneak diseinatu eta eraikiko dira. Nolanahi ere, elkarguneak diseinatzean kontuan hartuko da zer maniobra beharko diren ahalik eta era egokienean irtenbidea emateko, eta argi eta garbi azalduko dira lehentasuna ematen duten arauak; era berean, mota horietako guztietako erabiltzaileek mugitzeko behar dituzten abiadurek sor lezaketen gatazkak saihesteko modua bilatuko da.

2. Era berean, ahalik eta geldialdi gutxien ezarriko dira, eta txirrindulariek itxaron beharreko denborak murriztuko dira; halaber, ibilbideen jarraitutasuna, helbideratzea, erosotasuna eta azkartasuna bermatuko dira.

*17. artikulua. Aparkatzeko zuzkidurak.*

1. Bizikletentzako aparkalekua bizikletak erabiltzen ez direnean aparkatzeko egitura da.

2. Aparkatzeko behar den zuzkidura justifikatua egingo da, bizikleta-bide bakoitzaren erabilera zehatzaren arabera, eta aparkalekuak era estrategikoan kokatuko dira, eskaera handiena duten guneetan (irteera-helmuga).

3. Bizikletentzako aparkalekuak ezartzeko orduan, aintzakotzat hartuko dira irizpide hauek:

— Irisgarritasuna: Aparkalekuak ohizko helmugetako gune estrategikoetatik hurbil kokatuko dira, baita tren-geltoki eta autobus-geltoki nagusietan eta abarretan ere, era horretan garraiobide anitzeko modua sustatuko da.

— Segurtasuna: Gerta daitezkeen lapurreten edo ekintza bandalikoen aurrean, dituzten ezaugarriak direla-eta segurtasun handiagoa ematen duten lekuetan kokatuko dira. Era berean, aparkalekuen egiturak bizikleta behar bezala lotzea ahalbidetzen duten gailuak izango ditu.

*Artículo 14. Firme y pavimentación.*

El firme y pavimentado de las vías ciclistas forales se realizará atendiendo a las especificidades propias de la bicicleta, a la diversidad de tipos de usuarios, así como a los demás usos permitidos en ellas. También se prestará especial atención a:

— La regularidad superficial.

— La adecuada resistencia al deslizamiento.

— La evitación de obstáculos susceptibles de causa de percances, como las rejillas y tapas de registro, o en su caso su adecuación de la manera más segura posible al uso ciclista.

— La búsqueda, en su caso, de cierta diferenciación a nivel estético y visual con respecto a otros viales, sobre todo en el caso de los utilizados por vehículos motorizados.

— La búsqueda, en su caso, de soluciones de firme y pavimentación lo mejor integradas posible en el entorno que se atraviese, sea éste urbano, periurbano, rural o natural, en función de sus valores ambientales y estéticos.

*Artículo 15. Alumbrado.*

Se dotará del alumbrado mínimo necesario a aquellos tramos de la infraestructura ciclista que por razones de seguridad y uso lo precisen.

*Artículo 16. Intersecciones.*

1. Las vías ciclistas forales se diseñarán atendiendo a la seguridad en las intersecciones con otros tipos de tráfico, y en especial en su relación con las vías de tráfico motorizado.

En este sentido, y al objeto de evitar posibles incidencias, se buscará en el diseño y construcción de las intersecciones que peatones, ciclistas y automovilistas puedan percibirse mutuamente con el suficiente tiempo y espacio de reacción. En todo caso, el diseño de las intersecciones tratará de resolver del mejor modo posible las maniobras precisas, estableciendo de forma clara las reglas de prioridad y buscando evitar los conflictos motivados por las distintas velocidades de los diferentes tipos de usuarios.

2. Se procurará, igualmente, establecer el mínimo de paradas posibles y el reducir los tiempos de espera de los ciclistas, garantizando la continuidad, direccionalidad, comodidad y rapidez de los itinerarios.

*Artículo 17. Dotaciones de aparcamiento.*

1. Se entiende por aparcamiento para bicicletas, aquella estructura destinada al estacionamiento de las bicicletas cuando no están en uso.

2. Se procurará la dotación de aparcamientos necesaria y justificada atendiendo al uso concreto de cada vía ciclista, procediéndose a su colocación estratégica asociada a aquellos puntos de mayor demanda (origen-destino).

3. A la hora de establecer un aparcamiento para bicicletas se seguirán los siguientes criterios:

— Accesibilidad: Se situarán cerca de los puntos estratégicos de los destinos usuales, así como en las principales estaciones de tren, autobús, etc., facilitando así la intermodalidad.

— Seguridad: Se ubicarán en aquellos lugares que por sus características procuren una mayor seguridad frente a posibles robos o actuaciones vandálicas. Del mismo modo, el componente estructural de aparcamiento contendrá los dispositivos necesarios que permitan asegurar correctamente la fijación de la bicicleta.

PAPER BIRZIKLATUA PAPEL RECICLADO

— Erosotasuna: Aparkalekuak kokatzeko orientazioa, esposizio maila eta beste alderdi batzuk direla-eta eragin meteorologikoa txikiagoa duten lekuak hautatuko dira. Era berean, aparkalekuak sortzeko eta diseinatzeko orduan, erosotasunari dagokionez oinarrizko baldintzak bermatuko dira, bizikletak lotzeko eta askatzeko maniobra errazten dutenak.

— Balioaniztasuna: Aparkalekuak merkatuan ohizkoak diren bizikleta mota guztiak, eta baita dauden tamaina guztiak ere, hartzeko modukoak izango dira.

*18. artikulua. Zirkulazioa.*

1. Foru bizikleta-bideen sarearen barruan, erabiltzaileentzat lotesleak izango dira zirkulazioari buruz Trafikoari, Motorreko Ibilgailuen Zirkulazioari eta Bide-Segurtasunari buruzko Legean ezarritako arauak, zirkulazio arauak txirrindularitza egiteari egokitzeko Legean (43/1999 Legea) aurreikusitako arauak, eta Zirkulazioko Erregelamendu Orokorrean eta gainerako araudi bateragarrietan ezarritako arauak.

2. Aurreko puntuan adierazitakoa kontuan hartu gabe, foru bizikleta-bideen sarearen barruan bizikleten erabiltzailek har dezaketen gehieneko abiadura lekuan lekuko azpiegituraren ezaugarri berezietara eta egoerara moldatu beharko da, eta ezin izango da, inolaz ere, 40 kilometro orduko abiadura gainditu.

## I. IDAZPURUA

## FORU BIZIKLETA-BIDEAK PLANIFIKATZEA ETA ERAIKITZEA

### I. ATALBURUA. GIPUZKOAKO BIZIKLETA-BIDEEN LURRALDEKO PLANA

*19. artikulua. Xedea eta izaera.*

1. Gipuzkoako Foru Aldundiak Gipuzkoako Bizikleta Bideen Lurraldeko Plana landuko du, honako xede hauek erdiesteko asmotan:

a) Foru bizikleta-bideen sareari dagokionez, helburu nagusiak zehaztea.

b) Bizikleta-bide horiek izan beharko dituzten ezaugarriak zehaztea.

c) Aldi jakin batez, Planean adierazitako helburuak lortzearren, egin beharreko jarduera-programak zehaztea.

2. Gipuzkoako Bizikleta Bideen Lurraldeko Planak Lurraldearen Arloko Plana izango da, Euskadiko lurralde-antolamenduari buruzko araudiak ezarritakoaren ondorioetarako.

*20. artikulua. Ekonomiaren eta lurraldearen plangintzarekin koordinatzea*

1. Gipuzkoako bizikleta-bideen plangintza koordinatu egingo da Autonomia Erkidegoko ekonomiaren, lurraldearen eta hirigintzako plangintzarekin.

Lurralde- eta hirigintza-antolamenduarekiko koordinazioa Euskadiko lurralde-antolamenduari buruzko araudiak eta foru arau honek aurreikusitako eran burutuko da.

2. Gipuzkoako bizikleta-bideen plangintza, gainera, lurralde mugakideetako plan eta proiektuekin ere koordinatu beharko da, lurralde horiek eraginak elkarri sortzen dizkioten jarduketak egitean.

— Comodidad: Se colocarán en aquellos lugares que por su orientación, grado de exposición, y otras variables puedan resultar de menor incidencia meteorológica. Del mismo modo, en su concepción y diseño se garantizarán unas condiciones básicas de comodidad que faciliten las operaciones de maniobra para su amarre y desamarre.

— Polivalencia: Deberán ser capaces de albergar todo tipo de bicicletas usuales en el mercado, así como los diferentes tamaños existentes.

*Artículo 18. Circulación.*

1. Dentro de la Red de Vías Ciclistas Forales, resultarán vinculantes las normas relativas a la circulación previstas en la Ley sobre Tráfico, Circulación de Vehículos a Motor y Seguridad Vial, Ley 43/1999 sobre adaptación de normas de circulación a la práctica del ciclismo, y en el Reglamento General de Circulación y demás normas concordantes.

2. Con independencia de lo anterior, la velocidad máxima para los usuarios de las bicicletas dentro de la Red de Vías Ciclistas Forales deberá adecuarse a las especiales características y circunstancias de la infraestructura concreta y, en ningún caso, podrá superar los 40 kilómetros por hora.

## TITULO I

## PLANIFICACION Y CONSTRUCCION DE LAS VIAS CICLISTAS FORALES

### CAPITULO I. PLAN TERRITORIAL DE VIAS CICLISTAS DE GIPUZKOA

*Artículo 19. Objeto y naturaleza.*

1. La Diputación Foral de Gipuzkoa elaborará un Plan Territorial de Vías Ciclistas Forales de Gipuzkoa, que tendrá por objeto:

a) Establecer los objetivos generales para la Red de Vías Ciclistas Forales.

b) Establecer las características a las que deberán tender las citadas vías ciclistas.

c) Establecer los programas de actuaciones a realizar durante un determinado periodo en orden al cumplimiento de los objetivos señalados en el Plan.

2. Dicho Plan Territorial de Vías Ciclistas de Gipuzkoa tendrá la naturaleza de Plan Territorial Sectorial a los efectos de lo dispuesto en la legislación de ordenación territorial del País Vasco.

*Artículo 20. Coordinación con la planificación económica y territorial.*

1. La planificación de las vías ciclistas forales de Gipuzkoa se coordinará con la planificación económica, territorial y urbana de la Comunidad Autónoma.

La coordinación con la ordenación territorial y urbana se llevará a cabo en los términos previstos en la legislación reguladora de la ordenación del territorio del País Vasco y en la presente Norma Foral.

2. La planificación de las vías ciclistas forales de Gipuzkoa deberá además coordinarse con los planes y proyectos de los territorios limítrofes en lo que se refiera a actuaciones con mutuas incidencias.

*21. artikulua. Bideratzea eta onartzea.*

1. Gipuzkoako Foru Aldundiak burutu eta bideratuko du Gipuzkoako Bizikleta Bideen Lurraldeko Plana, Euskadiko lurralde-antolamenduari buruzko araudiak lurraldearen arloko planetarako aurreikusitakoari jarraituz.

2. Gipuzkoako Bizikleta Bideen Lurraldeko Plana Batzar Nagusiek emandako foru arau baten bidez onartuko da behin betiko.

*22. artikulua. Lurraldeko Planaren ondorioak.*

1. Gipuzkoako Bizikleta Bideen Lurraldeko Plana lotes-lea izango da bai administrazio publikoentzat, bai herritarren-tzat.

2. Foru Aldundiari dagokionez:

a) Foru Aldundiak bizikleta-bideen inguruan egiten dituen jarduketak Lurraldeko Planean ezarritako helburuetara molda-tuko ditu.

b) Foru Aldundiak Planaren programetan aurreikusitako jarduketak gutxienez gauzatuko ditu.

c) Ezin izango dira, inolaz ere, bizikleta-bide berriak eraiki, jarduketa horiek aipatutako planean aurreikusita ez bal-din badaude. Jadanik dauden bizikleta-bideetako trazaduran funtsezko aldaketarik sortzen ez duten zabalguneak, hobekun-tzak, egokitzapenak eta aldakuntzak ez dira bizikleta-bide berri-tzat hartuko.

3. Udalerrietako hirigintza planak Bizikleta Bideen Lurraldeko Planaren zehaztapen eta aurreikuspenei lotuta egongo dira, Euskadiko lurralde-antolamenduari buruzko arau-diak aurreikusitakoaren arabera.

4. Bizikleta-bideei buruzko udal plan eta proiektuetan ezin izango da zehaztapenik adierazi, Lurraldeko Planarekin kontraesanetan dagoenik.

*23. artikulua. Aldaketa eta berrikuspena.*

1. Planak onartzen duen foru arauan zehaztuko dira Foru Aldundiak plan horretan alda ditzakeen zehaztapenak, jendau-rreko informaziopean aldez aurretik jarrita edo jarri gabe, eta Batzar Nagusiei bakarrik horren berri emanda; era berean, zehaztuko dira Batzar Nagusiek, nolanahi ere, onartu beharko dituztenak, aldez aurretik jendaurreko informaziopean jarrita.

2. Bizikleta Bideen Lurraldeko Plana egokituko da, une oro, dauden baliabide ekonomikoetara.

3. Gipuzkoako Bizikleta Bideen Lurraldeko Plana, inda-rrean dagoen bitartean egiten diren aldaketak alde batera utzita, berrikusi egin beharko da horrela aholkatzen duten gertaerak suertatzen direnean eta, nolanahi ere, jarduketa-programen epeak bukatu baino urtebete lehenago.

4. Bizikleta Bideen Lurraldeko Plana berrikusteko Plana lehenengo aldiz onartzeko egindako izapide berak burutuko dira.

## II. ATALBURUA. ERAIKITZEKO, HOBETZEKO ETA ARTATZEKO OBREN PROIEKTUAK ETA OBRAK GAUZATZEA

*24. artikulua. Eraikitzeko proiektuak. Edukia*

1. Bizikleta-bideak eta kontratazio publikoari buruzko araudian aurreikusitako egoeretan eraikitzeko, hobetzeko eta artatzeko obrak gauzatzeko, aldez aurretik onartu beharko da egin beharreko eraikuntzaren proiektu teknikoa; proiektu horre-tan, definituta egongo dira, osorik eta behar den xehetasunez, egingo diren obrak.

*Artículo 21. Tramitación y aprobación.*

1. El Plan Territorial de Vías Ciclistas de Gipuzkoa será formulado por la Diputación Foral y tramitado conforme a lo previsto en la legislación de ordenación del territorio del País Vasco para los Planes Territoriales Sectoriales.

2. La aprobación definitiva del Plan Territorial de Vías Ciclistas de Gipuzkoa se realizará por Norma Foral de las Juntas Generales.

*Artículo 22. Efectos del Plan Territorial.*

1. El Plan Territorial de Vías Ciclistas de Gipuzkoa será vinculante tanto para las Administraciones Públicas como para la ciudadanía.

2. En lo que se refiere a la Diputación Foral:

a) La Diputación Foral ajustará sus actuaciones en mate-ria de Vías Ciclistas a los objetivos establecidos en el Plan Territorial.

b) La Diputación Foral ejecutará como mínimo las actua-ciones previstas en los programas del Plan.

c) En ningún caso podrán construirse nuevas vías ciclistas sin que dichas actuaciones se encuentren previstas en el Plan. No se entenderán como nuevas vías ciclistas los ensanches, mejoras, acondicionamientos y modificaciones que no supon-gan una alteración sustancial del trazado de vías ciclistas ya existentes.

3. Los planes urbanísticos municipales quedarán vincula-dos a las determinaciones y previsiones del Plan Territorial de Vías Ciclistas en los términos previstos en la legislación de ordenación territorial del País Vasco.

4. Los planes y proyectos municipales de vías ciclistas no podrán contener determinaciones que contradigan las del Plan Territorial.

*Artículo 23. Modificación y revisión.*

1. En la Norma Foral que apruebe el Plan se establecerán las determinaciones del mismo que la Diputación Foral podrá modificar, previa información pública o sin ella y dando simple cuenta a las Juntas Generales, y las que en todo caso deberán ser aprobadas por las Juntas Generales previa información pública.

2. El Plan Territorial de Vías Ciclistas deberá adecuarse en todo momento a los recursos económicos disponibles.

3. Con independencia de las modificaciones que durante su vigencia se introduzcan, el Plan Territorial de Vías Ciclistas de Gipuzkoa deberá revisarse cuando sobrevengan circunstan-cias que así lo aconsejen y, en todo caso, con un año de antela-ción respecto de la finalización de los plazos de sus programas de actuación.

4. Para la revisión del Plan Territorial de Vías Ciclistas se seguirán los mismos trámites que para su aprobación primera.

## CAPITULO II. PROYECTOS Y EJECUCION DE OBRAS DE CONSTRUCCION, MEJORA Y CONSERVACION

*Artículo 24. Proyectos de construcción. Contenido.*

1. Para la ejecución de las obras de construcción, mejora y conservación de las vías ciclistas y en los casos previstos en la legislación reguladora de la contratación pública, deberá aprobarse previamente el correspondiente proyecto técnico de construcción en el que se definirán de forma completa y con el detalle suficiente las obras a realizar.

2. Eraikitzeko proiektuak Autonomia Erkidegoan bete beharrekoak diren arauen arabera egingo dira eta, obren izaera zein den, beharrezkoak diren azterlan guztiak jasota izan beharko dituzte, hala nola geologiari eta geotekniari buruzkoak, hidrologiari buruzkoak, eta egitura, trafiko eta segurtasunari buruzkoak. Era horretan, ezusteak eta zailtasunak saihestu ahal izango dira, bai gauzatzeko orduan, baia geroago funtzionamenduan daudenean.

3. Proiektatutako obrek natur ingurunea, landa-ingurunea edo hiri ingurunea errespetatu beharko dituzte, eta horietara behar bezala egokitu; bestalde, une oro bete beharko dute obrak arautzen dituzten eta bete beharrekoak diren ingurumenari buruzko arauek ezarritakoa.

Horiek horrela, proiektuetan aurreikusi beharko dira erasandako ingurunea leheneratzeko eta berritzeko lanak.

4. Eraikitzeko proiektuetan, egokia bada, erasanak izango diren eta ustez hartu edo erosi beharko diren lur, eraikin eta bestelako ondasun eta eskubideei buruzko zehaztapena adierazi beharko da, eta horrekin batera horien zerrenda zehatza eta banaka-banaka aipatzen dituena osatuko da, egin beharreko desjabetzeak legitimatzearren.

*25. artikulua. Eraikitzeko proiektuak bideratzea eta onartzea.*

1. Gipuzkoako Foru Aldundiaren organo eskuduna izango da foru bizikleta-bideen proiektuak onartzen dituena, bizikleta-bideetan eskumena duen erakundeak hala proposatuta, hala badagokio.

2. Obrek lurraren jabetzan eragin berriak sortzen dituztenean, eraikitzeko proiektua onartu baino lehen jendaurreko informaziopean egongo da hilabeteko epean.

Salbuespena izango dira, bakar bakarrik, diharduen administrazioaren jabetzakoa den lurzoruan oso-osorik egiten diren proiektuak.

3. Jendaurreko informazioaldia irekitzea Gipuzkoako ALDIZKARI OFIZIALEAN iragarriko da eta, halaber, Lurralde Historikoan hedadura handieneko egunkarietako batean gutxienez.

4. Jendaurreko informazioak irauten duen aldian, edozein pertsonak ezagutu ahal izango du proiektua, eta proiektuari zein bere ondorioei buruzko iradokizunak edo alegazioak egin ahal izango ditu.

5. Jendaurreko informaziopean dagoen proiektua entzuteko izapidea egingo da Gipuzkoako Foru Aldundiaren departamentuen aurrean eta, halaber, beren eskuduntzetan erasanda egon litezkeen erakunde publikoen aurrean ere, eta baita bereziki erasandako udalen aurrean ere, halakorik balego; hartara, aipatutako epean, proiektuarekin ados dauden ala ez adierazi eta egokitzat jotzen dituzten alegazio edo iradokizunak egin ahal izango dituzte.

6. Bizikleta-bide bat errepide baten eraikuntzaren proiektuaren barruan sartu behar denean –bizikleta-bidearen trazadura errepidearen trazaduratik banaezina delako eta errepidean ingurumenaren gaineko eraginari buruzko azterlana egin behar delako– bizikleta-bidea errepidearen proiektu orokorraren zati bat izango da ondorio guztietarako.

7. Goian aipatutako izapide guztiak egin ondoren, Foru Aldundiak obrak gauzatzeari buruzko erabakia hartuko du, behin jasotako alegazio eta iradokizunak aztertu eta gero eta, bidezkoa bada, bideratutako proiektua behin betikoz onartuko du.

8. Proiektuek lurzoruaren jabetzan eragin berririk sortzen ez badute, jendaurreko informazioa eta udalekin aurretiaz audientzia izateko izapideak ez dira nahitaezkoak izango.

2. Los Proyectos de construcción deberán ajustarse a las normas técnicas de obligado cumplimiento en la Comunidad Autónoma y, en función de la naturaleza de las obras, deberán contener todos los estudios necesarios de carácter geológico y geotécnico, hidrológico, de estructuras y de tráfico y seguridad, a fin de evitar imprevistos y dificultades, tanto en su ejecución como en su posterior funcionamiento.

3. Las obras proyectadas deberán respetar y adecuarse satisfactoriamente al medio natural, rural o urbano donde se emplacen, observando en todo momento lo dispuesto en la normativa ambiental de obligado cumplimiento a la que hubieren de someterse.

A tal efecto los proyectos habrán de prever los trabajos de recuperación y restauración del entorno afectado.

4. Los proyectos de construcción contendrán en su caso la determinación, con su relación concreta e individualizada a efectos de legitimación de expropiaciones, de la totalidad de los terrenos, construcciones y otros bienes y derechos a que afecten y que se estime preciso ocupar o adquirir.

*Artículo 25. Tramitación y aprobación de los proyectos de construcción.*

1. La aprobación de los proyectos de construcción de vías ciclistas forales corresponderá al órgano competente de la Diputación Foral de Gipuzkoa a propuesta, en su caso, del que ostente la competencia en materia de vías ciclistas.

2. Cuando las obras supongan nuevas afecciones a la propiedad del suelo, el proyecto de construcción deberá someterse, antes de su aprobación, a información pública por plazo de un mes.

Sólo se exceptúan de lo así dispuesto los proyectos que se desarrollen en su totalidad sobre suelo que ya pertenezca a la administración actuante.

3. La apertura del periodo de información pública será anunciada en el BOLETIN OFICIAL de Gipuzkoa y en uno, al menos, de los periódicos de mayor difusión en el Territorio Histórico.

4. Durante la información pública cualquier persona podrá conocer el proyecto y formular sugerencias o alegaciones sobre el mismo y sus efectos.

5. El proyecto en información pública será sometido también a trámite de audiencia ante los departamentos de la Diputación Foral de Gipuzkoa y organismos públicos que puedan resultar afectados en sus competencias respectivas y, en especial, y en su caso, ante los ayuntamientos afectados, para que en el plazo establecido informen sobre su conformidad o disconformidad con el proyecto y formulen, en su caso, las alegaciones o sugerencias que estimen oportunas.

6. Cuando la construcción de la vía ciclista haya de ser incluida en el proyecto de construcción de una carretera, por ir su trazado indisolublemente asociado al de la misma, y ésta se halle sometida a evaluación de impacto ambiental, la vía ciclista habrá de considerarse parte del proyecto global de la carretera a todos los efectos.

7. Realizados los trámites de los apartados anteriores la Diputación Foral, examinadas las alegaciones y sugerencias que hayan podido ser formuladas, decidirá sobre la ejecución de las obras, procediendo, en su caso, a aprobar definitivamente el proyecto tramitado.

8. Cuando los proyectos no supongan nuevas afecciones a la propiedad del suelo, los trámites de información pública y audiencia previa a los ayuntamientos serán potestativos.

*26. artikulua. Proiektuak onartzearen ondorioak.*

1. Foru Aldundiak eraikuntzaren proiektuak onartzen dituenean, proiektuotan aurreikusitako obrak berehala egiteko eskubidea egongo da, betiere goian adierazi bezala bideratu badira.

Egin beharreko obrak berehala hasi ahal izango dira, nahiz eta indarrean dagoen hirigintzako plangintzarekin desadostasunak egon, baldin eta proiektuan garatutako jarduketak Gipuzkoako Bizikleta Bideen Lurraldeko Planean aurreikusita badaude.

2. Onartutako proiektuek, gainera, erasandako lurren erreserba izango dute berekin, hiru urtetarako.

Aldi horretan, inongo administraziok ez du proiektuaren aurreikuspenekin bateragarriak ez diren eraikitzeko edo lurzoruaren erabilera iraunkorrerako onespenik, ez baimenik, ez lizentziarik emango.

Foru arau honen II. Idazpuruan herri-jabariguneetarako eta babesguneetarako adierazitako mugapenak ezartzeko orduan, bizikleta-bidea proiektuan aurreikusi bezalakoa dela joko da, eta gune horietan egin nahi den edozein jarduera, lan edo obra foru arau honen III. Idazpuruan aurreikusita dauden interbentzio eta kontrolari buruzko arauaren nahiz defentsa eta zigorrari buruzko arauaren mende egongo dira.

3. Lurraldeko Planaren zehaztapenak aurrera eramaten dituzten proiektuak ezinbestez bete beharrekoak izango dira udalen hirigintzako plangintza egiteko eta onartzeko orduan, eta desadostasunen bat sortuz gero, hirigintzako plangintzaren gainetik egongo dira.

4. Eraikuntzaren proiektuak onartzeak, gorago aipatutako ondorioez gain, idazpuru honen III. Atalburuan aurreikusitako desjabetzeak legitimatzeko ondorioa ere izango du.

*27. artikulua. Aldez aurreko proiektuak.*

1. Aurreko artikuluan, 2. eta 3. puntuetan, lurzoruaren erreserbari, onespen, baimen eta lizentziak ez emateari, eta herri-jabarigune eta babesguneetarako eta hirigintzako sailkapena duten guneetarako aurreikusita dagoen mugaketaren erregimenari dagokienez aurreikusten diren ondorioen eragina aurreratzearren, administrazioak aldez aurreko proiektuak idatzi, bideratu eta onartu ahal izango ditu. Era berean, aldez aurreko proiektu horietan zehaztu beharko da, gutxienez eta behar adinako doitasunez, zein diren egin behar diren obrek erasandako lurzatiak.

2. Aldez aurreko proiektuak 25. artikuluan adierazi bezala bideratu eta onartuko dira.

3. Aldez aurreko proiektuak onartzeak aipatutako ondorioak izango ditu eta, proiektuok erasanak izango diren eta ustez hartu edo eskuratu beharko diren lur, eraikin eta bestelako ondasun eta eskubideei buruzko zehaztapena adierazi beharko da, eta horrekin batera horien zerrenda zehatza eta banaka-banaka aipatzen dituena baldin badago, proiektua onartzeak, aurreko artikuluaren 4. puntuan aurreikusi bezala, desjabetzeak legitimatzearen ondorioa ere izango du.

4. artikulu honen 2. puntuan zehaztutakoari jarraituz, aldez aurreko proiektuak bideratu eta onartzeak salbuesten du eraikuntzaren proiektua onartzeko jendaurreko informaziopean jartzeko eta entzuteko izapideak betetzeko beharretik; era berean, salbuetsita uzten du ingurumenaren gaineko eraginen ebaluazioa berriz bideratzeko beharretik, baldin eta ebaluazio hori beharrezkoa bada, bizikleta-bidea prozedura hori bete behar duen errepide baten proiektuaren barruan dagoelako.

5. Aldez aurreko proiektu bat bideratzea eta onartzea aukeratzen denean, egin beharreko eraikuntzaren proiektua onartzeak ez du balio izango hiru urteko aldia luzatzeko, lurzoruaren erreserbari eta horren ondoriozko mugapenari dagokienez.

*Artículo 26. Efectos de la aprobación de los proyectos.*

1. La aprobación de los proyectos de construcción por la Diputación Foral, siempre que los mismos se hayan tramitado conforme a lo previsto anteriormente, facultará para la inmediata ejecución de las obras previstas en los mismos.

La ejecución inmediata de las obras previstas podrá realizarse aunque exista disconformidad con el planeamiento urbanístico en vigor si el proyecto desarrolla actuaciones previstas en el Plan Territorial de Vías Ciclistas.

2. Los proyectos aprobados producirán además la reserva del suelo afectado durante un plazo de tres años.

Durante dicho plazo no se concederán por ninguna administración autorizaciones, permisos o licencias de edificación o usos permanentes de suelo incompatibles con las previsiones del proyecto.

Las limitaciones previstas en el Título II de esta Norma Foral respecto a las zonas de dominio público y protección regirán como si la vía ciclista existiera en la forma prevista en el proyecto y cualquier actividad, trabajo u obra que pretenda realizarse en dichas zonas quedará sometido a los regímenes de intervención y control y de defensa y sanción previstos en el Título III de esta Norma Foral.

3. Los proyectos que desarrollen determinaciones del Plan Territorial resultarán de obligado cumplimiento en la formulación y aprobación del planeamiento urbanístico municipal y en caso de disconformidad prevalecerán sobre el mismo.

4. Además de los efectos a que se ha hecho referencia, la aprobación de los proyectos de construcción conllevará los de legitimación de expropiaciones previstos en el Capítulo III de este Título.

*Artículo 27. Proyectos previos.*

1. Con el fin de anticipar los efectos previstos en los apartados 2 y 3 del artículo anterior en cuanto a reserva de suelo, suspensión de autorizaciones, permisos y licencias, régimen de limitaciones previstas para zonas de dominio público y protección y de calificación urbanística, la Administración podrá redactar, tramitar y aprobar proyectos previos que deberán contener, como mínimo, las determinaciones necesarias para definir con la debida aproximación los terrenos afectados por las obras a realizar.

2. Los proyectos previos se tramitarán y aprobarán conforme a lo previsto en el artículo 25.

3. La aprobación de los proyectos previos conllevará los efectos señalados y, si contienen la relación concreta e individualizada de los terrenos, construcciones u otros bienes o derechos a que afecten y que se estima será preciso ocupar o adquirir, su aprobación producirá también los efectos de legitimación de expropiaciones previstos en el apartado 4 del artículo anterior.

4. La tramitación y aprobación de los proyectos previos conforme a lo previsto en el apartado 2 de este artículo exime de la obligación de efectuar los trámites de información pública y audiencia para la aprobación del correspondiente proyecto de construcción, así como de la necesidad de tramitar nuevamente la evaluación de impacto ambiental en el caso de que ésta fuera necesaria por ir la vía ciclista incluida en el proyecto de una carretera sometida a dicho procedimiento.

5. Cuando se opte por la tramitación y aprobación de un proyecto previo, la aprobación del correspondiente proyecto de construcción no servirá para ampliar el plazo de tres años en cuanto a su eficacia de reserva de suelo y limitaciones consiguientes.

6. Foru arau honen ondorioetarako, aurreproiektuak eta trazaduraren proiektuak aldez aurreko proiektuen izaera izango dute.

III. ATALBURUA. LURZORUEN ERABILGARRITASUNA. DESJABETZEAK

*28. artikulua. Ondasunak eskuratzea eta hartzea.*

1. Obrak egiteko beharrezkoak diren lurzoruak, eraikinak eta bestelako ondasun eta eskubideak eskuratu, aldi baterako hartu, eta lehengo zerbitzuak berriz jartzeko edo berriak ipintzeko zortasunak ezarriko dira desjabetzearen bidez.

2. Behar diren ondasunak eta eskubideak eskuratu ahal izango dira, baita ere, truke, salerosketa edo, egokia denean, zuzeneko okupazio edo lagapenaren bidez, hirigintzari buruzko araudian aurreikusitako mekanismoei jarraituz.

*29. artikulua. Desjabetzea legitimatzea. Herri-onura eta herri-lurrak hartzeko beharra*

1. Bizikleta-bideen proiektuak onartzeak berekin ekarriko du, ezinbesteko desjabetzearen ondorioetarako, obrak herri-onurakoak direla adieraztea; eta, proiektuen dokumentazioan erasandako lur, eraikin eta bestelako ondasun eta eskubideak zehazki eta banaka-banaka aipatzen baldin badira, era berean adieraziko da horiek hartzeko beharra, eta baita zortasunak ezartzeko edo aldatzekoa ere.

2. Lur, eraikin eta bestelako ondasun eta eskubideak hartzeko eta zortasunak ezartzeko beharraren adierazpenak barnean hartuko ditu obrak egiteko, zerbitzuak berriz jartzeko eta gerora horiek egoki ustiatzeko eskuratu edo hartu beharko diren guztiak.

3. Desjabetzeak legitimatzen direnean, era berean, legitimatuta geratuko dira proiektuaren aldaketek erasandako lur, eraikin, ondasun eta eskubide guztien desjabetzeak, betiere proiektuan aldaketa handiegiak egiten ez badira eta, onartu aurretik, interesdunei behar bezala eta hamabost eguneko epea jarrita horren berri ematen bazaie jakinarazpenen bitartez edo Gipuzkoako ALDIZKARI OFIZIALEAN argitaratuta, alegazioak edo iradokizunak egin ahal izateko.

*30. artikulua. Desjabetzea zorgunean.*

Foru Aldundiaren organo eskudunak zorgunean dauden ondasunak desjabetu ahal izango ditu, herri-onurako adierazpena inplizitu dagoela ulertuta, baldin eta aldez aurretik foru bizikleta-bidea eraikitzeko, artatzeko edo hobetzeko proiektu bat edo aldez aurreko proiektu bat badu, desjabetzea ezinbestekoa edo komenigarria dela egiaztatzen duena.

IV. ATALBURUA. FINANTZAKETA

*31. artikulua. Finantza-baliabideak.*

1. Bizikleta-bideak eraikitzeko, hobetzeko eta artatzeko obrak eta, oro har, bide horiek behar bezala funtzionarazteko eta ustiatzeko beharrezkoak diren jarduketak Lurralde Historikoko Aurrekontu Orokorren kargura finantzatuko dira.

2. Era berean, obrak finantzatu ahal izango dira hirigintzari buruzko araudiak aurreikusitako mekanismoen bidez, bidezkoa denean.

6. A los efectos de esta Normal Foral, se considera que los anteproyectos y los proyectos de trazado tienen el carácter de proyectos previos.

CAPITULO III. DISPONIBILIDAD DE TERRENOS. EXPROPIACIONES

*Artículo 28. Adquisición y ocupación de bienes.*

1. La adquisición de terrenos, construcciones y otros bienes y derechos precisos para la ejecución de las obras, las ocupaciones temporales así como la imposición de las servidumbres para la reposición o implantación de servicios se obtendrá mediante expropiación.

2. La disponibilidad de los bienes y derechos precisos podrá también obtenerse mediante permuta, compraventa o, en los casos que proceda, por ocupación directa o cesión de acuerdo con los mecanismos previstos en la legislación urbanística.

*Artículo 29. Legitimación expropiatoria. Utilidad pública y necesidad de ocupación.*

1. La aprobación de los proyectos de vías ciclistas implicará la declaración de la utilidad pública de las obras a efectos de expropiación forzosa y, si contuvieran en su documentación la relación concreta e individualizada de los terrenos, construcciones u otros bienes o derechos a que afecten, la de necesidad de ocupación de los mismos así como la de imposición o modificación de servidumbres.

2. La declaración de necesidad de ocupación de los terrenos, construcciones y otros bienes y derechos e imposición de servidumbres se extenderá a la de todos los que resulte preciso adquirir u ocupar para la ejecución de las obras, reposición de servicios y demás actividades necesarias para su correcta explotación posterior.

3. La legitimación expropiatoria se hará extensiva además a todos los terrenos, construcciones, bienes y derechos afectados por las modificaciones del proyecto siempre que no se produzca una alteración sustancial del mismo y, antes de acordarse, se informe adecuadamente y por plazo de quince días a las personas interesadas mediante notificación o publicación en el BOLETIN OFICIAL de Gipuzkoa a efectos de alegaciones y sugerencias.

*Artículo 30. Expropiación en zona de servidumbre.*

En la zona de servidumbre, el órgano competente de la Diputación Foral podrá proceder a la expropiación de los bienes existentes, entendiéndose implícita la declaración de utilidad pública, siempre que disponga previamente de un proyecto de construcción o de un proyecto previo aprobado para construcción, conservación o mejora de la vía ciclista foral que lo hiciera indispensable o conveniente.

CAPITULO IV. FINANCIACION

*Artículo 31. Recursos financieros.*

1. La financiación de las obras de construcción, mejora y conservación de vías ciclistas y, en general, las actuaciones exigidas para el buen funcionamiento y explotación de las mismas deberán realizarse con cargo a los Presupuestos Generales del Territorio Histórico.

2. La financiación de las obras podrá también realizarse cuando así proceda mediante mecanismos previstos en la legislación urbanística.

3. Bestalde, obrak finantzatzeko beste bide bat zerga bereziak ezartzea izan daiteke; zerga horiek pertsona fisiko edo juridikoei ezarriko zaizkie, foru bizikleta-bideak egiteko obrak egitean onura berezia lortzen dutenean edo beren finken balioa handitzen denean, baldin eta zerga horiei buruzko araudian aurreikusita dauden baldintzak betetzen badira.

4. Halaber, obrak finantzatu ahal izango dira beste herri-administrazio, erakunde nazional edo nazioarteko erakunde batzuek eta nahi duten pertsona juridiko eta fisikoek emandako baliabideen bidez; horrelakoetan, egiten diren ekarpenek, ezargarria den araudiari eta bereziki irabazi asmorik gabeko entitateen eta mezenasgoaren aldeko zerga pizgarrien zerga erregimenari buruzko Foru Arauari jarraituz, zerga-trataera berezia izango dute, aipatutako ekarpenaren herri-interesa aintzat hartuta.

5. Bestela ere finantzatu ahal izango dira, alegia, foru bizikleta-bideak eta beren funtzionamenduari atxikitako gune funtzionalen herri-jabariaren merkataritza-ustiaketa eginda biltzen diren diru kopuruen bidez.

6. Foru bizikleta-bideak kudeatzearen eta ustiatzearen ondorioz lor daitezkeen tasa, prezio publikoak eta atxikita dauden gainerako kopuruak foru bizikleta-bide berriak sortzeko erabili ahal izango dira, izaera baztertzaile eta helburudunez.

7. Bizikleta-bideak eraikitzeko asmoa ibilgailu motordun pribatuaren erabilera ez arrazionalaren hautabidea izatea dela kontuan izanda, Gipuzkoako Foru Aldundiak zigorren ondoriozko diru-bilketaren zati bat erabili ahal izango du aipatutako foru bizikleta-bideak sortzeko, bere eskumenen barruan baitago.

## V. ATALBURUA. OBRAK GAUZATZEA

*32. artikulua. Udal lizentziak eta baimenak*

1. Bizikleta-bideak eraikitzeko, artatzeko eta hobetzeko obrak, eta bide horien ustiaketarekin zerikusi zuzena dutenak, ez dira udalen hirigintzako baimenaren edo aurretiaz egin beharreko bestelako kontrol-ekintzaren mende egongo, eta ezin izango dira geldiarazi edo bertan behera utzi, eskumena duen epailaren aginduz ez bada.

2. Obrak hasi baino lehen, baldin eta ezinbesteko arrazoiak direla-eta ezinezkoa ez bada, Gipuzkoako Foru Aldundiak erasandako udalei jakinaraziko die obrak noiz hasiko diren.

*33. artikulua. Mugaketa eta mugarriak jartzea*

Obrak bukatzen direnean, eta lurren jabetzan erasan berriak sortzen badituzte, behar bezala mugatuko dira eta mugarriak ipini beharko dira beti.

# II. IDAZPURUA

# FORU BIZIKLETA-BIDEAK USTIATZEA

## I. ATALBURUA. USTIATZEAREN XEDEA ETA USTIATZEKO ERAK

*34. artikulua. Xedea.*

Foru arau honen ondorioetarako, foru bizikleta-bideen ustiaketaren barruan definitu dira foru bizikleta-bideak eta beren funtzionamenduari lotutako gune guztiak artatzeko eta mantentzeko, eta bidea eta erabiltzailea defendatzeko xedez egiten diren jarduketa guztiak, eta barnean hartzen ditu seinaleztatzeko, sarbideen antolaketako, mugak ezartzeko eta bideen herri-jabaria kontrolatzeko ekintzak; azkenik, barruan sartzen dira, halaber, babesguneetako lurzoruaren erabilerak arautzea, baimentzea eta zehatzea.

3. Asimismo, la financiación podrá producirse mediante contribuciones especiales impuestas a aquellas personas físicas o jurídicas que obtengan un beneficio especial o aumento del valor de sus fincas, motivado por la ejecución de las obras referentes a las vías ciclistas forales, siempre que se cumplan los requisitos previstos en la legislación reguladora de dichos tributos.

4. Del mismo modo, podrán financiarse mediante recursos que provengan de otras administraciones públicas, de organismos nacionales e internacionales, así como de aquellas personas jurídicas y físicas que lo deseen, disponiendo en este caso tales aportaciones de un tratamiento fiscal especial de acuerdo con la normativa tributaria aplicable y, en especial, la Norma Foral de régimen fiscal de las entidades sin fines lucrativos y de los incentivos fiscales al mecenazgo, atendiendo al interés público de la referida aportación.

5. Cabrá igualmente la financiación a través de las cantidades que puedan ser recaudadas por la explotación comercial del dominio público de las vías ciclistas forales y las áreas funcionales asociadas a su funcionamiento.

6. Las tasas, precios públicos y demás cantidades asociadas que pudieran ser obtenidas por la gestión y explotación de las vías ciclistas forales podrán destinarse con carácter exclusivo y finalista a la generación de nuevas vías ciclistas forales.

7. Atendiendo al carácter de alternativa al uso no racional del vehículo motorizado privado en que pretenden constituirse las vías ciclistas, por Norma Foral de Presupuestos, se podrá destinar parte de la recaudación sancionadora a financiar la creación de las citadas vías ciclistas forales.

## CAPITULO V. EJECUCION DE LAS OBRAS

*Artículo 32. Licencias y permisos municipales.*

1. Las obras de construcción, conservación y mejora de vías ciclistas y las relacionadas directamente con su explotación no están sometidas a licencia urbanística ni otros actos de control previo por parte de los ayuntamientos y su ejecución no podrá ser paralizada o suspendida salvo por la autoridad judicial competente.

2. La Diputación Foral pondrá en conocimiento de los ayuntamientos afectados la ejecución de las obras antes de su inicio, salvo que por razones de fuerza mayor no fuera posible.

*Artículo 33. Deslinde y amojonamiento.*

Una vez finalizadas las obras, y cuando las mismas impliquen nuevas afecciones a la propiedad del suelo, deberá procederse siempre a su correcto deslinde y amojonamiento.

# TITULO II

# EXPLOTACION DE LAS VIAS CICLISTAS FORALES

## CAPITULO I. OBJETO Y FORMAS DE EXPLOTACION

*Artículo 34. Objeto.*

Se entiende por explotación de las vías ciclistas forales a los efectos de esta Norma Foral todas aquellas actuaciones que tienen por objeto la conservación y mantenimiento de las mismas y de las áreas asociadas a su funcionamiento, la defensa de la vía y el usuario, e incluye las operaciones referentes a señalización, ordenación de accesos, imposición de límites y control del uso del dominio público viario y, finalmente, la regulación, autorización y sanción de los usos del suelo en las zonas de protección.

*35. artikulua. Ustiatzeko erak.*

1. Oro har, Gipuzkoako Foru Aldundiak egingo du, zuzenean, foru bizikleta-bideen ustiaketa.

2. Foru Aldundiak beste batzuen esku utzi ahal izango du foru bizikleta-bideen ustiaketa, indarrean dagoen araudiak ezarritako zeharkako kudeaketaren sistemak kontuan izanda.

3. Bestalde, erakunde autonomoak edo sozietate publikoak ere eratu ahal izango dira, eta jabetza duen administrazioak foru bizikleta-bideen ustiaketa beren esku utzi ahal izango du.

## II. ATALBURUA. FORU BIZIKLETA-BIDEEN ETA BEREN BABESGUNEEN ERABILERA

*36. artikulua. Foru bizikleta-bideen erabilera*

1. Foru bizikleta-bideen erabilera arrunta, herri-jabariko eta erabilerako ondasunak direnez gero, doan izango da erabiltzaileentzat eta askatasunez burutuko da alderdi hauek aintzakotzat hartuta: Bizikleta-bideen izaera, atxikiduraren eta herri-erabilerarako irekitzeko ekintzak, trafiko eta bide-segurtasunari buruzko arauak eta seinaleak, eta indarrean dauden gainerako zehaztapenak.

2. Salbuespenez, Foru Aldundiak, eskumena duten bere organoen bidez, aldi baterako edo behin betiko mugaketak ezarri ahal izango dizkio zirkulazioari foru bizikleta-bideetako zati edo leku batzuetan, baldintzek, egoerak, eskakizun tekniko edo bide-segurtasunekoek hala eskatzen dutenean.

3. Foru arau honen 43. artikuluan eta hurrengoetan zehaztutakoari jarraituz, Gipuzkoako foru bizikleta-bideen sareko zati batzuetan, beharrezkoa izango da bidezkoa bada baimendutako ibilgailu motordun guztiek onespena izatea, aisialdi, turismo, ingurumen-hezkuntza eta antzeko jarduerak burutzeko behar diren ibilgailuak barne.

*37. artikulua. Erabilerak herri-jabarigunean.*

1. Oro har, guztiz debekatuta egongo da edozein obra, erabilera edo instalazio mota egitea herri-jabarigunearen barruan, herri-erabilera edo jabariko helburua duten jabarilagapenak edo jatorrizko profilaren aldaketak izan ezik, eta horretarako berariazko baimena eman beharko du bizikleta-bideen eskumena duen organoak.

2. Zerbitzurako sareek ezin izango dute herri-jabarigunea zeharkatu, ez gurutzatu, berariazko baimena duten egoeretan izan ezik.

*38. artikulua. Erabilerak zorgunean.*

1. Zorgunean baimenduko da, bakar bakarrik, lurpeko zerbitzuak instalatzea; instalazio horiek mantentzeko, artatzeko eta ustiatzeko era, oro har, foru bizikleta-bidearen kanpotik burutu beharko da.

2. Oro har, nekazaritza eta abeltzaintzako erabilerak baimenduko dira, betiere erabilera horrek foru bizikleta-bidearen funtzionaltasunean eragozpenik sortzen ez badu.

3. Zorguneak kokatuta dauden eraikin edo instalazioetan sendotzeko, apaintzeko edo hobetzeko obrak baimendu ahal izango dira.

*39. artikulua. Seinaleak.*

1. Foru bizikleta-bideetan, Gipuzkoako Foru Aldundiari dagokio, eta ez beste inori, bizikleten eta oinezkoen trafikoa behar bezalakoa izan dadin edo erabiltzaileek informazio egokia izan dezaten zer seinale ipini behar diren erabakitzea.

*Artículo 35. Formas de explotación.*

1. La Diputación Foral de Gipuzkoa, como regla general, llevará a cabo directamente la explotación de las vías ciclistas forales.

2. La Diputación Foral podrá encomendar la explotación de las vías ciclistas forales de acuerdo con los sistemas de gestión indirecta establecidos en la normativa vigente.

3. Podrán, asimismo, constituirse organismos autónomos o sociedades públicas a las que la administración titular encomiende la explotación de las vías ciclistas forales.

## CAPITULO II. USO DE LAS VIAS CICLISTAS FORALES Y DE SUS ZONAS DE PROTECCION

*Artículo 36. Uso de las vías ciclistas forales.*

1. En tanto que constituyen bienes de dominio y uso público, la utilización ordinaria de las vías ciclistas forales será gratuita para sus usuarios y se ejercerá libremente, con arreglo a la naturaleza de las mismas, a los actos de afectación y apertura al uso público, a las normas y señales de tráfico y seguridad vial y demás disposiciones en vigor.

2. Excepcionalmente, la Diputación Foral, a través de sus órganos competentes, podrá imponer limitaciones temporales o permanentes a la circulación en ciertos tramos o partes de las vías ciclistas forales, cuando las condiciones, situación, exigencias técnicas o de seguridad vial así lo requirieran.

3. Estarán sometidos a autorización, con carácter discrecional, de acuerdo con lo previsto en el artículo 43 y siguientes de la presente Norma Foral, todos los usos motorizados específicos a permitir, en su caso, en ciertos tramos de la Red de Vías Ciclistas Forales de Gipuzkoa, incluidos los de vehículos asociados a actividades de ocio, turismo, educación ambiental y similares.

*Artículo 37. Usos en la zona de dominio público.*

1. Con carácter general, queda expresamente prohibido cualquier tipo de obra, uso o instalación dentro de la zona de dominio público, salvo aquellas cesiones demaniales o modificaciones del perfil original que tengan igualmente una finalidad de uso o dominio público, debiendo contar con la autorización expresa del órgano que ostente la competencia en materia de vías ciclistas.

2. Las redes de servicios no podrán discurrir ni cruzar por la zona de dominio público salvo en supuestos expresamente autorizados.

*Artículo 38. Usos en la zona de servidumbre.*

1. En la zona de servidumbre únicamente se permite la instalación de servicios enterrados cuyo mantenimiento, conservación y explotación deberá realizarse, por regla general, de manera externa a la vía ciclista foral.

2. Con carácter general, se permitirá el uso agropecuario en la zona de servidumbre, siempre y cuando no interfiera en la funcionalidad de la vía ciclista foral.

3. Para aquellas edificaciones o instalaciones situadas en la zona de servidumbre, podrán autorizarse obras de consolidación, ornato o mejora.

*Artículo 39. Señalización.*

1. Corresponde con exclusividad a la Diputación Foral de Gipuzkoa determinar la señalización para el correcto funcionamiento del tráfico ciclista-peatonal o la adecuada información a los usuarios en las vías ciclistas forales.

2. Beste erakunde edo pertsona publiko nahiz pribatu batzuen interesekoak diren seinaleak ipintzea eta kontrolatzea interesdunei egokituko zaie, Gipuzkoako Foru Aldundiaren aurretiazko baimena izanda.

3. Aurreko bi puntuetan zehaztutakoaren salbuespen bakarra dira larrialdi-egoeretarako jarri beharreko behin-behineko seinaleak.

4. Foru bizikleta-bideetan ipintzen diren seinaleak, nolanahi ere, Foru Bizikleta Bideetako Seinaleen Katalogo Ofizialean zehaztutakoekin bat etorriko dira.

*40. artikulua. Sarbideak zehaztea eta berrantolatzea.*

1. Udalek gaian dituzten eskumenei kalterik egin gabe, Gipuzkoako Foru Aldundiak erabaki ahal izango ditu zer lekutan egin beharko diren foru bizikleta-sareetarako sarbideak, sarbide horiek behar bezala bermatuta ez dauden kasuetan.

2. Hirigintzako plangintzaren baten berrikuspena egiteko orduan, foru bizikleta-bidearen eraginaren eremuan lehen hiritarrezina zen gainazal bat berriz sailkatzen denean, udalak kontuan hartu beharko du bide horretarako sarbide bat, eta sarbidea egin beharko du, erabiltzeko gutxieneko segurtasun- eta erosotasun-baldintzak dituela.

*41. artikulua. Lursailetako itxiturak eta bizikleta-bidetik bereizteko elementuak.*

1. Lursailetako itxiturak, edozein izaera dutela ere, zorgunetik kanpo geratuko dira.

Salbuespen dira, bakar bakarrik, erraz desmuntatzen diren itxitura gardenak; itxitura horiek distantzia txikiagoetara ipini ahal izango dira, baina beti herri-jabarigunetik kanpo eta foru bizikleta-bidearen erabiltzaileen segurtasuna bermatuta dagoenean.

2. Errepideei atxikitako bizikleta-bideak direnean, bereizteko ipiniko diren elementuek ez dute arriskurik sortuko bizikleta-bideen erabiltzaileen segurtasunean.

*42. artikulua. Zainketa.*

Gipuzkoako Foru Aldundiko pertsonala, berariaz prestaturik dagoena, arduratu egingo da foru bizikleta-bideak zaintzeaz.

III. IDAZPURUA

BAIMENTZEKO ETA ZIGORTZEKO PROZEDURARI BURUZKO ARAUBIDE OROKORRA

I. ATALBURUA. BAIMENAK

*43. artikulua. Administrazioaren baimena behar duten jarduketak.*

1. Administrazioaren baimena beharko da foru bizikleta-bideetan eta beren herri-jabariguneetan zein babesguneetan burutu nahi diren jarduera, lan eta obra mota guztiak egiteko.

2. Beharrezkoa izango da baimena izatea besteak beste honako jarduera hauek egiteko:

A) Herri-jabarigunean:

a) Ibilgailu motordunak ibiltzea, foru arau honetan, 4.5. artikuluan ezarritakoari jarraituz.

b) Seinaleak, kartelak eta errotuluak jartzea.

c) Sarbideak irekitzea edo berritzea.

d) Lurpeko eroanbideak instalatzea.

e) Aireko lineak eta instalazioak.

2. El establecimiento y control de las señales de interés de otras entidades o personas, públicas o privadas, corresponderá a las personas interesadas previa autorización de la Diputación Foral de Gipuzkoa.

3. Sólo se exceptúa de lo dispuesto en los dos apartados anteriores la señalización provisional en casos de emergencia.

4. Las señales que se coloquen en las vías ciclistas forales deberán ajustarse en todo caso a los establecidos en el Catálogo Oficial de Señales de las Vías Ciclistas Forales.

*Artículo 40. Determinación y reordenación de accesos.*

1. Sin perjuicio de las competencias municipales en la materia, la Diputación Foral de Gipuzkoa podrá disponer los lugares en los que deban constituirse los accesos a las vías ciclistas forales, en aquellos supuestos en que los mismos no queden debidamente garantizados.

2. Cuando en la revisión de un planeamiento urbanístico se proceda a reclasificar una superficie anteriormente no urbanizable en el área de influencia de la vía ciclista foral, el ayuntamiento deberá contemplar y habilitar un acceso a la misma en unas mínimas condiciones de seguridad y comodidad para el uso.

*Artículo 41. Cerramientos de fincas y elementos de separación de la vía ciclista.*

1. Los cierres de fincas, cualquiera que sea su naturaleza, quedarán fuera de la zona de servidumbre.

Se exceptúan sólo los cierres diáfanos que sean fácilmente desmontables, que podrán colocarse a distancias inferiores aunque siempre fuera de la zona de dominio público y quedando garantizada la seguridad de los usuarios de la vía ciclista foral.

2. En el caso de vías ciclistas adosadas a carreteras se colocarán elementos de separación que no supongan un riesgo para la seguridad de los usuarios de las mismas.

*Artículo 42. Vigilancia.*

La vigilancia de las vías ciclistas forales se realizará por personal de la Diputación Foral de Gipuzkoa especialmente habilitado para ello.

TITULO III

REGIMEN GENERAL DE AUTORIZACIONES Y PROCEDIMIENTO SANCIONADOR

CAPITULO I. AUTORIZACIONES

*Artículo 43. Sometimiento a autorización administrativa.*

1. Queda sujeta a autorización administrativa la ejecución de toda clase de actividades, trabajos y obras, tanto en las vías ciclistas forales y sus zonas de dominio público como en las zonas de protección de las mismas.

2. Dentro de las actuaciones sometidas a autorización se encuentran incluidas, entre otras, las siguientes:

A) En la zona de dominio público:

a) El tránsito de vehículos a motor conforme a lo previsto en el artículo 4.5 de la presente Norma Foral.

b) La colocación de señales, carteles, letreros y rótulos.

c) La apertura o reforma de accesos.

d) La instalación de conducciones subterráneas.

e) Los tendidos e instalaciones aéreos.

f) Edozein jarduera, lan edo obra, nahiz eta behin-behinekoak izan edo aldi baterako okupazioa besterik ez izan.

B) Babesgunean:

a) Hondeaketak eta lur-mugimenduak.

b) Hondakindegiak eta zabortegiak.

c) Era guztietako instalazioak, zerbitzu publikokoak izan ala ez, baita lurpekoak eta airekoak ere.

d) Zuhaitzak eta zuhaixkak landatzea eta moztea.

e) Itxiturak ipintzea edo eraikitzea, edozein motatakoak izanda ere.

f) Edozein motatako seinale, kartel, idazkun eta errotuluak ipintzea.

g) Hiritartzeko obrak.

h) Edozein motatako eraikinak egitea edo eraikuntza-obrak burutzea, finkoak nahiz desmuntagarriak izan, lur gainean edo lur azpian egon, oin berrikoak izan edo lehendik dauden eraikinak edo bestelako eraikuntza-obrak handitzeko, aldatzeko edo eraberritzeko lanak izan, eta lan horiek beren egituran edo kanpoko itxuran eragina sortu ala ez.

i) Era guztietako eraikin eta eraikuntza-obrak osorik edo zati batean eraistea.

j) Edozein motatako eraikin, eraikuntza-obra eta instalazioen lehenengo erabilera edo okupazioa, eta horien erabilera aldatzea, obrarik egin behar ez bada ere.

k) Era guztietako jarduera, lan edo obrak, behin-behinekoak direnean edo aldi baterako okupazioa besterik ez direnean.

3. Baimena beharko da gorago aipatu diren jarduera guztiak burutzeko, jarduera horiek egin nahi dituen pertsona, erakunde edo organismo publiko edo pribatua edozein dela ere, nahiz eta agintari publikoek edo Estatuko Administrazioko organoek, Autonomia Erkidegokoek, edo beste edozein herri-administraziotakoek jarduera horiek sustatu; eta hori guztia, egon daitezkeen beste eskumen batzuei kalterik egin gabe.

4. Honako hauek dira, bakar bakarrik, baimena eskatzeko beharretik salbuetsita daudenak:

a) Foru bizikleta-bideetako ohizko zirkulazioa.

b) Babesgunean nekazaritzakoak soilik diren jarduerak eta erabilerak edo lorategiz hornitzeko lanak.

c) Gipuzkoako Foru Aldundiak bideak artatzeko, mantentzeko, hobetzeko edo ustiatzeko egiten dituen jarduerak, lanak eta obrak.

*44. artikulua. Eskumena.*

Foru arau honetan aurreikusten diren baimenak emateko eskumena izango du bizikleta-bideen eskumena duen Foru Aldundiaren organoak.

*45. artikulua. Izaera.*

1. Babesgunean emango diren baimenek izaera arautua izango dute, eta egin nahi diren jarduerak, lanak edo obrak foru arau honetan eta, kasua bada, araua garatzen duten erregelamendu edo araudietan zehaztutakoaren kontrakoak ez badira.

Ezarri beharreko araubidea ebazpena ematen denean indarrean dagoena izango da. Administrazioaren isiltasuna gertatuz gero, ezarri beharreko araubidea ustezko ekintza egin denean indarrean zegoena izango da.

f) Toda otra clase de actividades, trabajos u obras, aun cuando sean provisionales o supongan mera ocupación temporal.

B) En zona de protección:

a) Las excavaciones y movimientos de tierras.

b) Las escombreras y vertederos.

c) Las instalaciones de todas clases, sean o no de servicios públicos, incluso las subterráneas y las aéreas.

d) La plantación y tala de arbustos y árboles.

e) La colocación o construcción de cierres, cualquiera que sea su naturaleza.

f) La colocación de señales, carteles, letreros y rótulos de todo tipo.

g) Las obras de urbanización.

h) Las obras de edificación y construcción de todo tipo, ya sean fijas o desmontables, en superficie o subterráneas, ya se trate de obras de nueva planta o de ampliación, modificación o reforma de edificios y construcciones existentes y afecten o no a su estructura o aspecto exterior.

i) Las demoliciones totales o parciales de edificios y construcciones de todas clases.

j) La primera utilización u ocupación de los edificios, construcciones e instalaciones de todas clases y la modificación del uso de las mismas, aunque no implique la realización de obras.

k) Toda otra clase de actividades, trabajos u obras, aun cuando sean provisionales o supongan mera ocupación temporal.

3. La necesidad de autorización se extiende a todas las actuaciones a que se ha hecho referencia, cualquiera que sea la persona, entidad u organismo, público o privado, que pretenda realizarlas, aunque se promuevan por los poderes públicos o los órganos de la Administración del Estado, de la Comunidad Autónoma o cualquiera otra administración pública, todo ello sin perjuicio de otras competencias concurrentes.

4. Quedan excluidos, tan sólo, de la necesidad de autorización:

a) El tránsito normal por las vías ciclistas forales.

b) Las actividades y usos meramente agrícolas o de ajardinamiento en las zonas de protección.

c) Las actividades, trabajos y obras que realice la Diputación Foral en razón de su conservación, mantenimiento, mejora o explotación.

*Artículo 44. Competencia.*

Las autorizaciones previstas en esta Norma Foral serán otorgadas por el órgano de la Diputación Foral que tenga atribuida la competencia en materia de vías ciclistas.

*Artículo 45. Carácter y naturaleza.*

1. Las autorizaciones en la zona de protección tendrán carácter reglado y deberán otorgarse siempre que las actividades, trabajos u obras para los que se solicitan no contravengan lo dispuesto en esta Norma Foral y en los reglamentos o normas que, en su caso, la desarrollen.

El régimen aplicable será el vigente en el momento de la resolución. En caso de silencio administrativo, el régimen aplicable será el vigente en el momento de producirse el acto presunto.

Babesguneetan baimenak ukatuz gero, arrazoiak eman beharko dira, eta foru arau honen zehaztapenetan aurreikusitako zioetan oinarrituta egongo dira.

2. Herri-jabariguneetan baimenak emanez gero, zuhurtziaren araberakoak izango dira, eta ukatu ahal izango dira egokitzat jotzen bada.

3. Foru bizikleta-bideen erabiltzaileek segurtasuna eta erosotasuna izan ditzaten, herri-jabariguneetan nahiz babesguneetan jarduerak, lanak eta obrak egiteko ematen diren baimenak epe jakin baterako eman ahal izango dira. Nolanahi ere, gehieneko epeetarako emango dira jarduera jarraituak egiteko baimenak.

*46. artikulua. Prozedura eta ebazpena. Administrazioaren isiltasuna.*

Gipuzkoako Foru Aldundiaren foru bizikleta-bideetan baimenak emateko prozedura alderdi hauen araberakoa izango da:

a) Baimena lortzeko interesa duen pertsona edo organismoak eskaera bat egin beharko du idatziz eta Foru Aldundian aurkeztu.

b) Eskaerarekin batera dokumentazioa ere aurkeztu beharko da, eta dokumentazio horretan azalduko da zer jarduera, lan edo obra egin nahi den, bere kokapen, definizio eta guzti, eta eskatutakoa foru arau honetan erabakitakoari egokitzen zaiola eta, oro har, bidearen elementuetan eta beraren funtzionamenduan zer eragin sortzen duen frogatzeko moduko xehetasunez adieraziko da.

Oinarrizko proiektu bat edo eraikitzeko proiektu bat aurkeztu beharko da, teknikari eskudun batek sinatuta, betiere jarduera, lan eta obren izaerak hala eskatzen duenean.

Nolanahi ere, proiektu tekniko bat eskatuko da oin berriko eraikin edo bestelako eraikuntzak egiten direnean, dauden eraikinak birgaitzean edo sarrera-irteera berriak egitean.

c) Eskabidean akatsak daudenean, edo aurkeztutako dokumentazioa nahikoa ez denean, eskaera egin duenari jakinaraziko zaio, akatsak konpon ditzan. Jakinarazpenean ohartaraziko zaio dokumentazioa artxibatu egingo dela bestelako izapiderik gabe, baldin eta berori osatzen ez bada.

Jakinarazpena ematen denetik eskatutako dokumentazioa behar bezala aurkeztu bitartean, hurrengo paragrafoan aurreikusitako epea eten egingo da.

d) Eskatutako baimenak gehienez ere hiru hilabeteko epean eman edo ukatuko dira, eskaera behar bezala aurkezten den egunetik hasita.

e) Berariazko ebazpena ematen ez bada, ulertuko da baimena ukatu egin dela, jarduera foru bizikleta-bidean edo bere herri-jabarigunean egin nahi baldin bazen, eta administrazioaren isiltasunez eman dela, gainerako kasuetan.

Baimena sarrera-irteera bat irekitzeko edo berritzeko baldin bada, ukatutzat hartuko da beti.

Inolaz ere ez dira administrazioaren isiltasunez emantzat hartuko foru arau honetan agindutakoaren kontrako ahalmenak.

*47. artikulua. Tasak.*

Foru Aldundiak foru arau honen babespean emandako baimenek tasak izan dezakete, eta tasa horien era eta kopurua horri buruzko foru arau baten bidez ezarriko dira.

*48. artikulua. Bermeak.*

1. Baimenak emateko orduan, aldez aurretik berme bat jartzeko baldintza ipin daiteke, era horretan ziurtatuko baita baimendutakoa behar bezala eta ezarritako baldintzak ondo ezagututa gauzatzen dela.

Las denegaciones de autorización en zonas de protección deberán ser motivadas y sólo podrán fundarse en motivos previstos en determinaciones de esta Norma Foral.

2. Las autorizaciones en zona de dominio público serán discrecionales y podrán denegarse por simples razones de oportunidad.

3. Por razones de seguridad y comodidad de quienes usan las vías ciclistas forales, las autorizaciones de actividades, trabajos y obras, tanto en zona de dominio público como de protección, podrán someterse a plazo. Se someterán, en todo caso, a plazo máximo las autorizaciones de actividades continuadas.

*Artículo 46. Procedimiento y resolución. Silencio administrativo.*

El procedimiento para la concesión de autorizaciones en las vías ciclistas forales se ajustará a las siguientes reglas:

a) La persona u organismo interesado en la autorización deberá presentar solicitud por escrito ante la Diputación Foral.

b) Las solicitudes se presentarán acompañadas de la correspondiente documentación en la que se situará y definirá la actividad, trabajo u obra a realizar con el detalle suficiente como para poder comprobarse la adecuación entre lo solicitado y las determinaciones de la presente Norma Foral y, en general, la afección a los elementos de la vía y su funcionamiento.

Cuando se trate de actividades, trabajos u obras que por su naturaleza así lo requieran, se presentará proyecto básico o de construcción firmado por persona con capacitación técnica.

En todo caso se exigirá proyecto técnico en los supuestos de edificaciones o construcciones de nueva planta, rehabilitación de edificios existentes, construcción de nuevos accesos.

c) Si se advirtieran defectos en la solicitud o que la documentación presentada no es suficiente, se notificará así a quien presentó la petición para que lo subsane. En la notificación se advertirá que, si no se completa, la solicitud se archivará sin más trámite.

Durante el tiempo que transcurra entre dicha notificación y la presentación formal de la documentación requerida se interrumpirá el plazo previsto en el párrafo siguiente.

d) Las autorizaciones solicitadas se otorgarán o denegarán en el plazo máximo de tres meses a contar desde la presentación en debida forma de la correspondiente solicitud.

e) En caso de no dictarse resolución expresa, la autorización se entenderá denegada si la actividad se pretendía realizar en la vía ciclista foral o en bienes de su dominio público y otorgada por silencio administrativo en todos los demás casos.

Si la autorización se refiere a la apertura o reforma de un acceso, se entenderá siempre denegada.

En ningún caso se entenderán adquiridas por silencio administrativo facultades en contra de lo prescrito en esta Norma Foral.

*Artículo 47. Tasas.*

Las autorizaciones otorgadas por la Diputación Foral en aplicación de esta Norma Foral podrán estar sometidas al devengo de tasas, en la forma y cuantía que se establezca a través de la oportuna Norma Foral.

*Artículo 48. Garantías.*

1. Las autorizaciones podrán condicionarse al depósito previo de garantía suficiente para asegurar la correcta ejecución de lo autorizado con pleno cumplimiento de las condiciones impuestas y sin perjuicio para las vías ciclistas forales y su dominio público.

2. Bermea ezarri eta gero, bermea benetan jarri arte, etenda egongo dira baimenaren ondorioak.

*49. artikulua. Ondorioak.*

1. Baimenek barnean hartuko dituzte, bakar bakarrik, aurkeztutako dokumentazioan berariaz deskribatu diren jarduerak, lanak edo obrak eta, bere kasuan, baimena emateko testuan adierazitako aldaketak. Horrez gain egin nahi den edozein jarduera burutzeko beste baimen bat beharko da.

2. Emango diren baimenek Administrazio emailearen eta ematen zaion subjektuaren arteko ondorioak izango dituzte, baina ez dituzte subjektuaren eta beste pertsonen arteko egoera juridiko pribatuak aldatuko. Hau da, baimenak emango dira beti jabetzaren eskubidea eragotzi gabe eta hirugarrengoei kalterik egin gabe, eta ez dira aitzaki izango baimen horien onuradunek, baimendutako jarduera, lan edo obrak egiterakoan, eduki dezaketen erantzukizun zibil, administratibo edo penaletik libratzeko.

3. Baimenak eskualda daitezke eskubide eta betebeharrak eskualdatzeko jarritako legezko bitartekoen bidez, eta horiek eskuratzen dituena subrogatua geratuko da baimenaren hasierako titularrari Administrazioarekiko zegozkion betebehar guztietan.

Baimenaren hasiera titularra den pertsona edo organismoa, hala ere, ez da Administrazioarekiko duen erantzukizunetik libratuta geratuko, baimena eskuratzen duenak baimena eskualdatzen duenaren betebeharrak berariaz hartzen ez baditu eta ez badio hori jakinarazten Administrazioari.

*50. artikulua. Baimena beste baimen batzuekin bateragarria izatea.*

1. Bizikleta-bideetako herri-jabarian eta babesguneetan jarduera, lan edo obretarako arau honetan aurreikusten diren baimenek ez dituzte titularrak salbuesten bestelako lege xedapenak aplikatuz exijitu daitezkeen lizentzia, baimen edo bestelako zilegidura eskatzetik.

2. Foru Aldundiaren baimenek, zehazki, ez du salbuesten hirigintza-baimena edo jarduera egiteko baimena eduki beharretik, ezta baimen hori eman dela aurreirizten ere. Era berean, ez dute salbuesten Foru Aldundiaren beste organo batzuetan baimen hori lortzeko egin beharreko izapideetatik.

*51. artikulua. Indarraldia eta iraungipena.*

1. Bizikleta-bidearen arloan emandako baimenek ematen diren unetik aurrera izango dituzte ondorioak eta baimendutako jarduera, lan edo obrek irauten duten bitarterako izango dira.

Epe baterako ematen diren baimenak denbora horretan bakarrik izango dituzte ondorioak eta epea amaitu ondoren iraungita geratuko dira.

2. Seinalatutako epean edota, eperik ez badu, baimena eman eta ondorengo sei hilabeteen barruan baimendutako jarduera, lan edo obrak ez badira hasten, eskatzaileak asmo hura alde batera utzi duela ulertuko da eta baimena automatikoki iraungi egingo da.

3. Emandako baimenak, era berean, iraungi egingo dira eta ondoriorik gabe geratuko dira, ondoko kausa hauetako batzuk direla medio:

— Jarduera, lan edo obrak sei hilabete baino gehiagotan eten egiten badira.

— Egiteko eperik ematen ez denean, jarduera, lan eta obrekin jarraitzen ez bada eta jarduera, lan edo obra horiek amaitzen ez badira epe normal batean.

— Baimenean jarritako baldintzak betetzen ez badira.

2. Establecida garantía, su constitución efectiva será condición suspensiva de los efectos de la autorización.

*Artículo 49. Efectos.*

1. Las autorizaciones amparan tan sólo las actividades, trabajos u obras descritos expresamente en la documentación aportada con las modificaciones que, en su caso, resulten del texto de la autorización. Cualquier otra actuación que pretenda realizarse deberá ser objeto de nueva autorización.

2. Las autorizaciones otorgadas producirán efectos entre la administración otorgante y el sujeto a quien se otorguen pero no alterarán las situaciones jurídico-privadas entre éste y las demás personas, otorgándose siempre salvo el derecho de propiedad y sin perjuicio de terceros, no pudiendo ser invocadas para excluir la responsabilidad civil, administrativa o penal en que pudieran incurrir las personas u organismos beneficiarios en el ejercicio de las actividades, trabajos u obras autorizadas.

3. Las autorizaciones serán transmisibles por los medios legalmente establecidos para la transmisión de derechos y obligaciones y quien las adquiera se subroga en todas las obligaciones que para con la administración correspondieran a quien fuera titular inicial de la autorización.

La persona u organismo titular inicial de la autorización no quedará, sin embargo, libre de responsabilidad ante la administración mientras quien la adquiera no asuma expresamente las obligaciones de quien la transmite y no lo haga así constar a la administración.

*Artículo 50. Compatibilidad con otras autorizaciones.*

1. Las autorizaciones previstas en esta Norma Foral para actividades, trabajos u obras, tanto en el dominio público de las vías ciclistas forales como en sus zonas de protección, no eximen a sus titulares del deber de obtener las licencias, permisos u otras autorizaciones exigibles en aplicación de otras disposiciones legales.

2. Las autorizaciones de la Diputación Foral, en concreto, no eximen de la necesidad ni prejuzgan la concesión de la licencia urbanística o de actividad y tampoco de los trámites que para su obtención deban realizarse ante otros órganos de la propia Diputación.

*Artículo 51. Vigencia y caducidad.*

1. Las autorizaciones en materia de vías ciclistas forales surtirán efectos desde el momento de su otorgamiento y mientras duren las actividades, trabajos u obras autorizados.

Las autorizaciones sometidas a plazo sólo surtirán efectos durante el mismo y caducarán una vez transcurrido.

2. Si en el plazo señalado o, en su defecto, en el de seis meses a partir de su otorgamiento no se iniciaran las actividades, trabajos u obras autorizados, se entenderá como renuncia a su pretensión y la autorización quedará automáticamente caducada.

3. Las autorizaciones otorgadas quedarán también caducadas y sin efecto por alguna de las siguientes causas:

— Si las actividades, trabajos u obras se interrumpen por más de seis meses.

— Si, en defecto del plazo establecido al efecto, las actividades, trabajos u obras no se prosiguen y terminan en el plazo de su normal ejecución.

— Si se incumplen las condiciones a que estaban sujetas.

4. Aipatutako kasuetan, baimenen iraungipena, epea dutenena salbuetsiz, ebazpen zehatz baten bidez eman behar da, interesa duen erakunde edo pertsonari entzuna izateko aukera eman ondoren eta jakinerazpenean jar ditzakeen errekurtsoen berri emanez.

5. Baimen bat iraungita egoteak ez du esan nahi berriz eskatu eta eman ezin daitekeenik.

6. Indarrean dauden bitartean, Administrazioaren eskura egon behar dute baimenek jarduera, lan edo obra egiten ari diren lekuan.

*52. artikulua. Baimenak baliogabetzea eta baldintzak aldatzea.*

1. Baimenak baliogabetu edo dituzten baldintzak aldatu egin behar dira, orduan emateko zeuden arrazoiak desagertu badira edo, geroago, baimena ukatzea edo beste baldintza batzuekin ematea ekarriko zuketen bestelako arrazoiak agertzen badira.

2. Baimenak baliogabetu daitezke, gainera, baimenak legezko irizpide berriak, baimendutako jarduketa debekatu egingo luketenak, finkatzen direnean.

3. Administrazioaren edo legearen kausaz gertatutako baliogabetzeak egongo diren kalte eta galerak ordaintzea ekarriko du ondorioz.

*53. artikulua. Baimenak etetea.*

1. Eraikuntzaren proiektua edo aldez aurreko proiektua bideratzen ari diren bitartean, etenda geratuko dira proiektu horietako zehaztapenetan esandakoaren oztopo izan daitezkeen jarduera, lan edo obra egiteko baimenak, jendaurreko erakusketaren hasieratik hasi eta gehienez ere urtebeteko epean.

2. Foru Aldundiaren organo eskudunak, halaber, aldez aurretik eten dezake gune jakin baterako baimenak ematea bi urteko gehieneko epean, proiektu bat idatzi ahal izateko. Erabaki hori Gipuzkoako ALDIZKARI OFIZIALEAN eman behar da argitara.

3. Gune berdinean eta helburu berdinerako ezingo dira beste etenaldi batzuk erabaki bost urte igaro arte, aurreko etenaldiaren amaieratik kontatzen hasita.

II. ATALBURUA. ARAU-HAUSTEAK, PROZEDURA ETA ZIGORRA

*54. artikulua. Tipifikazioa eta sailkapena.*

Honako hauek dira arau-hauste administratiboak:

1. Arau-hauste arinak:

a) Foru bizikleta-bideetako herri-jabarigune edo zorguneetan, baimenduta ez dauden obrak, instalazioak edo jarduerak egitea, horretarako behar den baimenik izan gabe, edo emandako baimenetan ezarritako zehaztapenen bat ez betetzea, horiek guztiak gerora legeztatzeko aukera dagoenean.

b) Herri-jabargunearen barruan edozein motatako objektu edo materialak ipintzea, isurtzea, botatzea edo abandonatzea.

c) Foru bizikleta-bidearen trazaduraren zati bat behar ez bezala eta aldi baterako hartzea, edo bidearen erabiltzaileak bertan ibiltzea eragoztea edo oztopatzea, betiere ekintza horrek berekin arrisku handiegirik ez badu.

4. La caducidad de las autorizaciones en los supuestos a que se ha hecho referencia, salvo la de las sometidas a plazo, deberá ser objeto de resolución, expresa, previa audiencia a la entidad o persona interesada, debiendo notificarse con señalamiento de los recursos que puedan interponerse.

5. La caducidad de una autorización no impide que la misma vuelva a solicitarse y otorgarse.

6. Mientras dure su vigencia, las autorizaciones deberán encontrarse a disposición de la administración en el lugar de la actividad, trabajo u obra.

*Artículo 52. Revocación y modificación de condiciones.*

1. Las autorizaciones deberán ser revocadas o modificadas en sus condiciones cuando desaparecieren las circunstancias de hecho que motivaron su otorgamiento o cuando sobrevinieren otras que, de haber existido, habrían justificado la denegación o el otorgamiento en términos distintos.

2. Las autorizaciones, además, podrán ser revocadas cuando se fijen nuevos criterios legales que prohiban la actuación autorizada.

3. La revocación por motivos imputables a la administración o a la ley comportará el resarcimiento de los daños y perjuicios que se causen.

*Artículo 53. Suspensión de autorizaciones.*

1. El otorgamiento de autorizaciones quedará en suspenso mientras se encuentren en tramitación proyectos de construcción o previos a partir de la iniciación de la información pública de los mismos y por plazo máximo de un año para la ejecución de todas aquellas actividades, trabajos u obras que puedan suponer un impedimento para sus determinaciones.

2. El órgano competente de la Diputación Foral podrá también acordar la suspensión anticipada por plazo máximo de dos años del otorgamiento de autorizaciones en una zona determinada con el fin de proceder a la redacción de un proyecto. El acuerdo deberá publicarse en el BOLETIN OFICIAL de Gipuzkoa.

3. No será posible acordar nuevas suspensiones en la misma zona y por idéntica finalidad hasta que transcurran cinco años contados a partir de la finalización de la suspensión anterior.

CAPITULO II. INFRACCIONES, PROCEDIMIENTO Y SANCION

*Artículo 54. Tipificación y clasificación.*

Constituyen infracciones administrativas las siguientes:

1. Se considerarán infracciones leves:

a) Realizar obras, instalaciones o actuaciones no permitidas en las zonas de dominio público o servidumbre de la vía ciclista foral, llevadas a cabo sin las autorizaciones requeridas, o incumplir alguna de las prescripciones impuestas en las autorizaciones otorgadas, cuando puedan ser objeto de legalización posterior.

b) Colocar, verter, arrojar o abandonar dentro de la zona de dominio público objetos o materiales de cualquier naturaleza.

c) Ocupar indebidamente y de modo transitorio parte del trazado de la vía ciclista foral u obstaculizar o interferir el normal deambular de las personas usuarias, siempre que tal actuación no conlleve especial peligrosidad.

d) Zabalgunean edo herri-jabarigunean baimenduta ez dauden landaketak edo erabilera-aldaketak egitea behar den baimena izan gabe, baldin eta bide-segurtasuna erasana suertatzen ez bada, hala izanez gero larriak izango baitira.

e) Bi noranzkoak diren foru bizikleta-bideetan zirkulatzeko kontrako noranzkoko lerroa hartzea, edo noranzko bakarreko bideetan kontrako noranzkoan zirkulatzea, baldin eta ekintza horrek berekin arrisku handiegirik ez badu.

f) Oinezkoek bide horiek erabiltzea, baldin eta erabilera hori baimenduta ez badago.

g) Bizikleta-bidean zakur edo beste etxeko abere batzuekin ibiltzea, abere horiek uhalik gabe daudenean.

2. Arau-hauste larriak:

a) Foru bizikleta-bideetako herri-jabarigune edo zorguneetan, baimenduta ez dauden obrak, instalazioak edo jarduerak egitea, horretarako behar den baimenik izan gabe, horiek guztiak gerora legeztatzeko aukerarik ez dagoenean.

b) Foru bizikleta-bidean, antolamenduarekin eta bidearen erabiltzaileen orientazio edo segurtasunarekin zuzenean zerikusia duen edozein elementu hondatzea, edo bere ezaugarriak edo kokalekua nahita aldatzea.

c) Foru bizikleta-bideetan edo bere osagarri funtzionaletan edozein obra edo instalazio suntsitzea, hondatzea, alteratzea edo aldatzea.

d) Foru bizikleta-bidearen plataformari eragingo dioten edozein motatako objektu edo materialak ipintzea, isurtzea, botatzea edo abandonatzea.

e) Bizikleta-bidean, hormetan, seinaleetan eta beste elementu batzuetan pintadak egitea, horien helburua edozein dela ere.

f) Zabalgunean edo herri-jabarigunean baimenduta ez dauden aireko edo lur azpiko igarobideak egitea, horretarako behar den baimena izan gabe, edo emandako baimenean adierazitako baldintzak bete gabe.

g) Herri-jabarigunean edo zorgunean informatzeko kartelak baimenik gabe jartzea.

h) Foru bizikleta-bidean ibilgailu motordunek zirkulatzea, berariaz baimenduta daudenak izan ezik, eta ibilgailu horiek bizikleta-bidearen barruan aparkatzea.

i) Artikulu honen 1. ataleko c), d) eta e) puntuetan adierazitako egoerak, berekin arrisku handia baldin badute.

j) Arau-hauste larriak dira, halaber, arintzat hartzen direnak, baina berrerortzea dagoenean. Ondorio hauetarako, berrerortzea dagoela joko da urtebeteko epearen barruan erantzule berak beste arau-hausteren bat egin badu eta behin betiko ebazpen judizialaz jada deklaratuta eta zigortuta badago.

3. Arau-hauste oso larriak:

a) Artikulu honen 2.a) puntuan adierazitako ekintzak, bizikleta-bidea erabiltzeko orduan segurtasunean zuzenean eragina sortzen dutenean.

b) Babesguneetan, ezarritako gutxieneko distantziara baino gutxiagora, oin berriko etxebizitzak, merkataritza edo industriarako eraikinak eraikitzea edo daudenak handitzea, horretarako espresuki emandako baimena izan gabe.

c) Bizikleta-bidean, erabiltzaileen antolamendu, orientazio eta segurtasunarekin zuzeneko lotura duen edozein elementu lapurtzea, hondatzea edo suntsitzea, edo elementu horien ezaugarriak edo kokalekua nahita aldatzea, elementu horrek bere eginkizuna bete dezan eragozten denean.

d) Realizar en la explanación o en la zona de dominio público plantaciones o cambios de uso no permitidos, sin la pertinente autorización o sin atenerse a las condiciones de la autorización otorgada, siempre que no se afecte a la seguridad vial, en cuyo caso serán graves.

e) Circular ocupando parte del carril contrario en aquellas vías ciclistas forales bidireccionales, o en dirección contraria en las unidireccionales, siempre que tal actuación no conlleve especial peligrosidad.

f) Uso peatonal de la vía ciclista en el caso de que no esté autorizado dicho uso.

g) Transitar por la vía ciclista en compañía de perros u otros animales domésticos sin sujeción.

2. Se considerarán infracciones graves:

a) Realizar obras, instalaciones o actuaciones no permitidas en las zonas de dominio público o de servidumbre de las vías ciclistas forales, llevadas a cabo sin las autorizaciones requeridas, cuando no fuera posible su legalización posterior.

b) Deteriorar cualquier elemento de la vía ciclista foral directamente relacionado con la ordenación, orientación y seguridad de los usuarios de la misma, o modificar intencionadamente sus características o situación.

c) Destruir, deteriorar, alterar o modificar cualquier obra o instalación de la vía ciclista foral o de sus elementos funcionales.

d) Colocar, verter, arrojar, abandonar objetos o materiales de cualquier naturaleza que afecten a la plataforma de la vía ciclista foral.

e) Realizar pintadas en la calzada, muros, señales y otros elementos de la vía ciclista, cualquiera que sea su finalidad.

f) Realizar en la explanación o en la zona de dominio público, cruces aéreos o subterráneos no permitidos o sin la pertinente autorización, o sin atenerse a las condiciones de la autorización otorgada.

g) Colocar carteles informativos en las zonas de dominio público o servidumbre sin autorización.

h) La circulación de vehículos a motor por la vía ciclista foral, salvo en los casos expresamente autorizados, así como el estacionamiento de los mismos dentro de la citada vía.

i) Los supuestos contemplados como infracciones leves en los apartados c), d) y e) del apartado 1 de este artículo, caso de que conllevaran especial peligrosidad.

j) Son también infracciones graves las calificadas como leves cuando exista reincidencia. A estos efectos se considerará que existe reincidencia cuando en el plazo de un año se haya cometido por el mismo responsable alguna otra infracción y la misma se encuentre ya declarada y sancionada por resolución judicial definitiva.

3. Se considerarán infracciones muy graves:

a) Las actuaciones contempladas en el apartado 2.a) de este artículo, cuando las mismas afectaran directamente a la seguridad de uso de la vía ciclista.

b) Construir de nueva planta o ampliar sin autorización expresa edificios de viviendas, comerciales o industriales en zona de protección a distancias inferiores a las establecidas como mínimas.

c) Sustraer, deteriorar o destruir cualquier elemento de la vía ciclista directamente relacionado con la ordenación, orientación y seguridad de las personas usuarias de la misma, o modificar intencionadamente sus características o situación, cuando se impida que el elemento de que se trate siga prestando su función.

d) Bizikleta-bidearen nahiz horren elementu funtzionalen edozein obra edo instalazio suntsitzea, hondatzea, alteratzea edo aldatzea, ekintza horiek plataformari eragiten diotenean.

e) Bizikleta-bidearen inguruetan edozein motatako instalazioak ipintzea, edo erabiltzaileentzat arriskutsuak, gogaikarriak edo osasungaitzak diren jarduerak egitea, hori saihesteko neurriak hartu gabe.

f) Makineria, materialak edo nolanahiko objektuak, bidean uztea edo ezartzea, edota haiekin bidea okupatzea, baimenik gabe edo seinaleztatzeko baldintza egokiak bete gabe.

g) Bizikleta-bidearen herri-jabarigunean edo babesgunean lur-mugimenduak, hondeaketak eta horrelako lanak egitea, bidearen egituren edo zabalgunearen egonkortasunari kalte egin edo egonkortasun hori arriskuan jarriz gero.

h) Ekintzak edo omisioak egitea, puskatzea, kalte edo galerak nahita eraginez bizikleta-bidearen herri-jabarikoak diren edozein motatako elementu edo ondasunetan.

i) Artikulu honen 2.g) puntuan adierazitako ekintzak, bizikleta-bidearen erabiltzaileen segurtasuna edo osotasuna arriskuan jartzen dituztenean, edo bidearen errodadura-baldintzak hondatzen dituztenean.

j) Arau-hauste oso larriak dira, halaber, larritzat hartzen direnak, baina berrerortzea dagoenean. Ondorio hauetarako, berrerortzea dagoela joko da urtebeteko epearen barruan erantzule berak beste arau-hauste larriren bat egin badu eta behin betiko ebazpen judizialaz jada deklaratuta eta zigortuta badago.

*55. artikulua. Arau-hausteen erantzuleak.*

1. Foru arau honetan aurreikusitako arau-hausteen erantzuleak izango dira tipifikatutako egintza bere kabuz edo beste norbaitekin batera, edo beste norbaitez baliatuz burutzen duten pertsona fisiko edo juridikoak.

2. Erantzuleak izango dira bereziki pertsona hauek:

a) Arau-haustea zuzenean burutzen dutenak.

b) Ekintza hori agintzen duten pertsonak, egileak pertsona horiekin kontratuko edo izatezko harremana duenean, eta betiere agindu-emaileekiko mendekotasuna frogatzen bada.

c) Arau-haustea burutzeko ezinbestekoa den laguntza eman duten pertsonak.

3. Arau-haustea burutzeko orduan parte hartu duten pertsonen parte-hartzearen maila zehaztea ezinezkoa denean, erantzukizuna solidarioa izango da, erantzukizunei aurre egin dieten pertsonek gainerako parte-hartzaileen aurrean errepikatzeko eskubideari utzi gabe.

*56. artikulua. Arau-hausteen preskripzioak.*

1. Arau-hausteak preskribitzeko epea bost urtekoa izango da oso larriak direnen kasuan; hiru urte, larriak diren arau-hausteetarako eta urtebete arau-hauste arinak direnean.

2. Arau-haustearen preskripzio-epea zenbatzen hasiko da arau-haustea egin den egunean bertan.

3. Preskripzioa eten egingo da zigortzeko prozedurari hasiera ematen zaionean, interesatua jakinaren gainean dagoela.

d) Destruir, deteriorar, alterar o modificar cualquier obra o instalación de la vía ciclista o de los elementos funcionales de la misma cuando las actuaciones afecten a la plataforma.

e) Establecer en las zonas próximas a la vía ciclista instalaciones de cualquier naturaleza o realizar alguna actividad que resulten peligrosas, incómodas o insalubres para las personas usuarias de la misma, sin adoptar las medidas pertinentes para evitarlo.

f) Depositar, colocar u ocupar la carretera o camino con maquinaria, materiales u objetos de cualquier naturaleza sin la debida autorización o con incumplimiento de las adecuadas condiciones de señalización.

g) Realizar movimientos de tierras, excavaciones u otros actos en la zona de dominio público o de protección que perjudiquen o pongan en riesgo la estabilidad de las estructuras o explanación de la vía ciclista.

h) Realizar en general actos u omisiones que voluntariamente causen destrozos, daños o perjuicios a las vías ciclistas y a cualesquiera de los elementos o bienes de todo tipo que formen parte de su dominio público.

i) Las actuaciones contempladas en el apartado 2.g) de este artículo, cuando las mismas pongan en riesgo la seguridad o integridad de las personas usuarias de la vía ciclista o deterioren las condiciones de rodadura de la misma.

j) Son también infracciones muy graves las calificadas como graves cuando exista reincidencia. A estos efectos, se considerará que existe tal cuando en el plazo de un año se haya cometido por el mismo responsable alguna otra infracción grave y la misma se encuentre ya declarada y sancionada por resolución judicial definitiva.

*Artículo 55. Responsables de las infracciones.*

1. Serán responsables de las infracciones previstas en esta Norma Foral las personas físicas o jurídicas que realicen el hecho tipificado por sí solas, conjuntamente o por medio de otra de la que se sirvan como instrumento.

2. En particular, serán responsables:

a) Las personas que realicen directamente la actividad infractora.

b) Las personas que ordenen dicha actividad cuando quien la ejecute tenga con aquéllas una relación contractual o de hecho, siempre que se demuestre su dependencia de las ordenantes.

c) Las personas que cooperen a su ejecución con un acto sin el cual no se habría efectuado.

3. Cuando no sea posible determinar el grado de participación de las distintas personas que hubiesen intervenido en la realización de una infracción, la responsabilidad será solidaria, sin perjuicio del derecho a repetir frente a los demás participantes, por parte de quienes hubieran hecho frente a las responsabilidades.

*Artículo 56. Prescripción de las infracciones.*

1. El plazo de prescripción de las infracciones será de cinco años para las muy graves, tres para las graves y un año para las leves.

2. El plazo de prescripción comenzará a contar a partir de la fecha en que la infracción se haya cometido.

3. Interrumpirá la prescripción la iniciación, con conocimiento del interesado, del procedimiento sancionador.

PAPER BIRZIKLATUA PAPEL RECICLADO

Ustezko erantzuleari egotzi ezin zaizkion arrazoiengatik prozedura gelditu bada, handik hilabete gehi egun batera abiatuko da berriro preskripzioa; halaber, modu berean jokatuko da prozedura amaitzen den egunaren biharamunetik, baldin eta erantzukizun-adierazpenik ez badago.

Betearazteko prozeduraren helburua lortzera bideratzen den edozein jarduketa egiteak, helburu horren neurrikoa bada, galarazi egingo du prozedura gelditutzat jotzea, betiere organo eskudunak jarduketa hori erabaki badu eta behar bezala dokumentaturik badago.

*57. artikulua. Zigortzeko ahala.*

Foru arau honetan aurreikusten diren arau-hausteen artetik Gipuzkoako Foru Aldundiaren eskumenekoak direnak zigortzeko ahala bizikleta-bideen eskumena duen departamentuko organoari dagokio, aipatutako departamentuaren egitura organiko eta funtzionalari buruzko foru dekretuan ezarritakoari jarraituz.

*58. artikulua. «Non bis in idem» printzipioa.*

Aurretiaz bide penaletik edo administrazioaren bidetik zigortutako gertakariak ezin izango dira berriro zigortu, baldin eta subjektu, gertakari eta zuzenbide-oinarri bera badute.

*59. artikulua. Sailkapena.*

Idazpuru honetan tipifikatutako arau-hausteen zigorra arau-hausteen larritasunaren araberakoa izango da, sailkapen honen arabera:

— Arau-hauste arinak: 30 eta 600 euro bitarteko isuna.

— Arau-hauste larriak: 601 eta 6.000 euro bitarteko isuna.

— Arau-hauste oso larriak: 6.001 eta 60.000 euro bitarteko isuna.

*60. artikulua. Heinekotasuna.*

Aurreko artikuluan zehaztutako mugen barruan, zigorrak honako alderdi hauek kontuan izanda ezarriko dira:

a) Egindako kaltearen larritasuna.

b) Erruduntasun maila edo asmo txarra.

c) Lehen ere arau-hauste bera egin izana, arau-haustea izaera bereko aurreko arau-haustea oraindik indargabetu ez den epean egiten bada.

d) Arau-hausleak onura ekonomikoa atera izana.

e) Arau-haustearen ondorioz, herri-jabarian sortu den edo sor daitekeen arrisku objektiboa.

*61. artikulua. Zigorren preskripzioa.*

1. Arau-hauste oso larriak egiteagatik ezartzen diren zigorrak hiru urteren buruan preskribatuko dira; arau-hauste larriak edo arinak egiteagatik ezartzen diren zigorrak, aldiz, bi urteren eta urtebeteren buruan, hurrenez hurren.

2. Zigorra ezartzen duen ebazpena administrazio-bidean irmo bihurtzen den egunaren biharamunean bertan hasiko da zenbatzen zigorraren preskripzio-epea.

3. Preskripzioa eten egingo da betearazteko prozedurari hasiera ematen zaionean, interesatua jakinaren gainean dagoela. Zigortutakoari egotzi ezin zaizkion arrazoiengatik prozedura gelditu bada, handik hilabete bat gehi egun batera abiatuko da berriro preskripzioa, eta berriz ere epe osoa zenbatuko da.

El plazo de prescripción se reanudará desde el día siguiente a aquél en que se cumpla un mes de paralización del procedimiento por causa no imputable a la persona presuntamente responsable, o desde el día siguiente a aquél en que termine el procedimiento sin declaración de responsabilidad.

La realización de cualquier actuación encaminada al logro de la finalidad del procedimiento y razonablemente proporcional a dicha finalidad impedirá considerar paralizado el procedimiento, siempre que la misma haya sido acordada por el órgano competente y se encuentre debidamente documentada.

*Artículo 57. Potestad sancionadora.*

La sanción de las infracciones competencia de la Diputación Foral de Gipuzkoa previstas en esta Norma Foral corresponderá al órgano del departamento que tenga atribuída la competencia en materia de vías ciclistas y conforme se establezca en el Decreto Foral de estructura orgánica y funcional de dicho departamento.

*Artículo 58. Principio «non bis in idem».*

No podrán sancionarse los hechos que hayan sido sancionados penal o administrativamente, en los casos en que se aprecie identidad de sujeto, hecho y fundamento.

*Artículo 59. Clasificación.*

Las infracciones tipificadas en este título serán sancionadas, según la gravedad de las mismas, con las siguientes multas:

— Infracciones leves: Multa de entre 30 a 600 euros.

— Infracciones graves: Multa de entre 601 a 6.000 euros.

— Infracciones muy graves: Multa de entre 6.001 a 60.000 euros.

*Artículo 60. Proporcionalidad.*

Dentro de los límites establecidos en el artículo anterior, las sanciones se impondrán atendiendo a las siguientes circunstancias:

a) Intensidad del daño causado.

b) Grado de culpa o intencionalidad.

c) Reincidencia, cuando la infracción sea cometida en plazo en el que la anterior infracción de la misma naturaleza aún no haya prescrito.

d) Beneficio económico obtenido por la persona infractora.

e) Riesgo objetivo que de la infracción se ha derivado o se derive para el dominio público.

*Artículo 61. Prescripción de las sanciones.*

1. Las sanciones impuestas por la comisión de faltas muy graves prescribirán a los tres años, en tanto que las impuestas por faltas graves o leves lo harán a los dos años y al año, respectivamente.

2. El plazo de prescripción de las sanciones comenzará a contarse desde el día siguiente a aquél en que adquiera firmeza, en vía administrativa, la resolución por la que se impone la sanción.

3. Interrumpirá la prescripción de la sanción la iniciación, con conocimiento de la persona interesada, del procedimiento de ejecución. La prescripción se reanudará, por la totalidad del plazo, desde el día siguiente a aquél en que se cumpla un mes de paralización del procedimiento por causa no imputable a la persona sancionada.

Betearazteko prozeduraren helburua lortzera bideratzen den edozein jarduketa egiteak, helburu horren neurrikoa bada, galarazi egingo du prozeduraa gelditutzat jotzea, betiere jarduketa organo eskudunak erabaki badu eta behar bezala dokumentaturik badago.

Epaileen erabaki batek eteten badu betearazpena, orduantxe ere eten egingo da zigorraren preskripzioa; horrelakoetan, dagokion epea, oso-osorik, hasiko da berriro zenbatzen, epaileen etena bukatzen den egunaren biharamunetik aurrera.

*62. artikulua. Erantzukizunaren iraungipena.*

1. Honako kasu hauetan bukatuko da erantzukizuna:

a) Zigortutako pertsona fisikoa hiltzen denean.

b) Zigorra oso-osorik betetzen denean.

c) Arau-haustea preskribatzen denean.

d) Zigorra preskribatzen denean.

2. Zigortutako pertsona juridikoa desegin edo amaitzen denetan, zigorra edo zigorrak betearazteko, jarraituko zaio arlokako administrazio-arauek edo zuzenbide pribatuan ezartzekoak diren araudiek diotenari.

III. ATALBURUA. NEURRI OSAGARRIAK

*63. artikulua. Kaltea konpontzea eta kalte-ordainak.*

1. Kasu bakoitzean ezartzekoak diren zigor administratibo edo penalei kalterik egin gabe, arau-hausleak foru bizikleta-bideetan eta beren elementu funtzionaletan egindako kaltea konpondu beharko du zigorra ezartzen duen organoak zehaztutako eran eta baldintzetan. Betebehar hori ez da preskribatuko herri-jabarian kalte egiten denean.

2. Kalteak konpontzearen helburua herri-jabaria bere lehengo egoerara itzultzea izango da, hau da, zigortutako arau-haustea egin baino lehen zuen eta araua haustearekin aldatu zen egoerara itzultzea. Egoera lehengoratzea ezinezkoa denean, Administrazioak kalteari dagokion kalte-ordaina eskatu ahal izango du.

*64. artikulua. Hertsatzeko isunak eta berearazte subsidiarioa.*

1. Arau-hausleek, aurreko artikuluan ezarritakoari jarraituz, egindako kaltea konpondu edo kalte-ordainak ordaindu ezean, eta errekerimenduak adierazitako epea bete eta gero, hertsatzeko isunak edo berearazte subsidiarioa ezartzeko agindu ahal izango du zigorra ezartzen duen organo eskuduna.

2. Hertsatzeko isunak aldian-aldian errepikatuko dira, agindutakoa betetzeko behar den tartea utzita, eta isunen zenbatekoa ez da izango arau-haustea egiteagatik ezarritako isunaren ehuneko 20 baino gehiago.

3. Agindutako konponketa arau-hausleek betetzen ez dutelako Administrazioak bere gain hartzen badu, arau-hausleen kontura egingo da.

IV. ATALBURUA. ZIGORTZEKO PROZEDURA

*65. artikulua. Printzipioak.*

1. Zigortzeko prozedura Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Komunari buruzko azaroaren 26ko 30/1992 Legearen IX. Idazpuruan, II. Atalburuan adierazitako printzipioak edo aipatutako atalburua ordezkatzen duen Estatuko legediak ezarritakoa kontuan izanda

La realización de cualquier actuación encaminada al logro de la finalidad del procedimiento de ejecución, y razonablemente proporcional a dicha finalidad impedirá considerar paralizado el procedimiento, siempre que la misma haya sido acordada por el órgano competente y se encuentre debidamente documentada.

También interrumpirá la prescripción de la sanción la suspensión judicial de su ejecutividad, comenzándose a contar de nuevo la totalidad del plazo correspondiente desde el día siguiente a aquél en que la suspensión judicial quede alzada.

*Artículo 62. Extinción de la responsabilidad.*

1. La responsabilidad se extingue:

a) Por muerte de la persona física sancionada.

b) Por la ejecución completa de la sanción.

c) Por la prescripción de la infracción.

d) Por la prescripción de la sanción.

2. En los casos de extinción de la persona jurídica sancionada, para la ejecución de la sanción o sanciones se estará a lo que dispongan las normas administrativas sectoriales o la normativa de Derecho privado que resulte aplicable.

CAPITULO III. MEDIDAS ACCESORIAS

*Artículo 63. Reparación del daño e indemnización.*

1. Sin perjuicio de las sanciones penales o administrativas que en cada caso procedan, la persona infractora deberá reparar el daño causado a las vías ciclistas forales y a sus elementos funcionales en la forma y condiciones fijadas por el órgano sancionador. Esta obligación es imprescriptible en el caso de daños al dominio público.

2. La reparación tendrá como objetivo la restauración del dominio público a su estado originario de la situación alterada previa a los hechos constitutivos de la infracción sancionada. Cuando la reparación no sea posible, la Administración podrá requerir la indemnización correspondiente.

*Artículo 64. Multas coercitivas y ejecución subsidiaria.*

1. Si los infractores no procedieran a la reparación o indemnización de acuerdo con lo establecido en el artículo anterior, y una vez transcurrido el plazo señalado en el requerimiento correspondiente, el órgano competente para imponer la sanción podrá acordar la imposición de multas coercitivas o la ejecución subsidiaria.

2. Las multas coercitivas serán reiteradas por lapsos de tiempo que sean suficientes para cumplir lo ordenado, y la cuantía de cada una de dichas multas no superará el 20 por 100 de la multa fijada por la infracción cometida.

3. La ejecución por la Administración de la reparación ordenada, ante la pasividad de los infractores, será a costa de éstos.

CAPITULO IV. PROCEDIMIENTO SANCIONADOR

*Artículo 65. Principios.*

1. El procedimiento sancionador se regirá por los principios establecidos en el Capítulo II del Título IX de la Ley 30/1992, de 26 de noviembre, de Régimen Jurídico de las Administraciones Públicas y del Procedimiento Administrativo Común o la legislación estatal que sustituya al mencionado

burutuko da; hala ere, erreferentziazkoak izango dira otsailaren 20ko 2/1998 Legeak, Euskal Autonomia Erkidegoko herri-administrazioen zigortzeko ahalmenari buruzkoak, III. Atalburuan ezarritako printzipioak.

2. Nolanahi ere, ezartzekoa izango da atal honetako artikuluetan aurreikusitakoa.

*66. artikulua. Administrazio-prozesua eta prozesu penala.*

1. Izapideen erantzukizuna duen pertsonak, prozedura egiteko edozein unetan, instrukziopean dauden gertakariek delitua edo hutsegitea izan daitezkeela uste badu, ebazpena emateko organo eskudunari emango dio horren berri. Organoak izapidegilearen ustea bidezkotzat jotzen badu, Ministerio Fiskalari jakinaraziko dizkio gertakari horiek, eta izapidegileari eskatuko dizkio egindako jarduketei buruzko argibideak.

Halaber, administrazio-prozedurak biltzen dituen gertakarien gainean prozesu penala egiten ari dela jakin ondoren, Ministerio Fiskalari eskatuko zaio egindako jarduketei buruzko jakinarazpena. Bestalde, administrazio-prozedurak biltzen dituen gertakarien ondoriozko gertakarien gainean prozesu penala irekita dagoenean ere, horrelako beste jakinarazpen bat eskatu zaio Ministerioari.

2. Ministerio Fiskalaren jakinarazpena jasotakoan, zigortzeko prozedura ebazteko organo eskudunak prozedura etetea erabakiko du, harik eta epaileek behin betiko ebazpena ematen duten arte.

3. Nolanahi ere, epaileek ebazpen irmoan frogatutzat jotako gertakariek lotu egiten dituzte administrazio-organoak, bideratzen diren zigortzeko prozedurei dagokienez. Delitu edo hutsegitea dagoela baietsi ez bada, organo eskudunak, egokia bada, zigortzeko prozedurarekin jarraituko du, baina kontuan hartuko ditu zigortzeko ebazpen judizial irmoan frogatutzat eman diren egintzak.

4. Administrazioak ofizioz berraztertuko ditu ebazpen penalean frogatutzat jotako gertakarietan oinarritzen ez diren administrazio-ebazpenak, eta bat egin beharko du ofizioz berraztertzeko prozeduraren arauekin.

*67. artikulua. Prozedurara noiznahi sartzeko printzipioa.*

1. Prozedurara noiznahi sartzeko printzipioak indarra izango du prozedura osoan. Horretarako, interesatuek, prozedurako edozein unetan, eskubidea dute izapidetzea zertan den jakiteko, eta bertan biltzen diren dokumentuen kopiak eskuratzeko.

2. Halaber, interesatuek, entzunaldia izan baino lehenago, alegazioak eta bidezkotzat jotzen dituzten dokumentu guztiak aurkeztu ahal izango dituzte.

3. Bukatutako zigor-espedienteetan agertzen diren dokumentuak eskuratzeko, arau izango da azaroaren 26ko 30/1992 Legeak, Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Komunari buruzkoak, 37. atalean xedatutakoa.

*68. artikulua. Organo eskudunak.*

1. Organo eskudunak izango dira Gipuzkoako Foru Aldundiaren egitura organiko eta funtzionalari buruzko foru dekretuetan zehazten direnak.

2. Prozedura ebazteko organo eskudunek prozedurari hasiera emateko eskumena ere izango dute.

3. Bizikleta-bideen eskumena duen departamentuan zigortzeko prozeduren izapideak egiteko unitate administratibo bereziren bat egonez gero, izapideak egitea unitate horretako funtzionarioen ardura izango da. Horrelako unitaterik ez

capítulo y tomará como referencia los establecidos en el Capítulo III de la Ley 2/1998, de 20 de febrero, de la potestad sancionadora de las Administraciones Públicas de la Comunidad Autónoma del País Vasco.

2. En todo caso, será aplicable lo previsto en los artículos de esta Sección.

*Artículo 66. Concurrencia con proceso penal.*

1. Si la persona responsable de la instrucción, en cualquier momento del procedimiento, considerase que los hechos sobre los que instruye pueden ser constitutivos de delito o falta, lo pondrá en conocimiento del órgano competente para resolver, el cual, si estima razonable la consideración de aquélla, pondrá dichos hechos en conocimiento del Ministerio Fiscal, solicitándole testimonio sobre las actuaciones practicadas respecto de la comunicación.

Igualmente se solicitará al Ministerio Fiscal comunicación sobre las actuaciones practicadas cuando se tenga conocimiento de que se está siguiendo un proceso penal sobre los hechos a los que se refiere el procedimiento administrativo. La misma comunicación se solicitará cuando el proceso penal se siga sobre hechos que sean resultado o consecuencia de los hechos a los que se refiere el procedimiento administrativo.

2. Recibida la comunicación del Ministerio Fiscal, el órgano competente para resolver el procedimiento sancionador acordará su suspensión hasta que recaiga resolución judicial firme.

3. En todo caso, los hechos declarados probados por resolución judicial penal firme vinculan a los órganos administrativos respecto de los procedimientos sancionadores que se sustancien. De no haberse estimado la existencia de delito o falta, el órgano competente continuará, en su caso, el procedimiento sancionador teniendo en cuenta los hechos declarados probados en la resolución judicial penal firme.

4. La Administración revisará de oficio las resoluciones administrativas fundadas en hechos contradictorios con los declarados probados en la resolución penal, de acuerdo con las normas que regulan los procedimientos de revisión de oficio.

*Artículo 67. Principio de acceso permanente.*

1. El procedimiento se desarrollará de acuerdo con el principio de acceso permanente. A estos efectos, en cualquier momento del procedimiento las personas interesadas tienen derecho a conocer su estado de tramitación y a acceder y obtener copias de los documentos contenidos en el mismo.

2. Igualmente, y con anterioridad al trámite de audiencia, las personas interesadas podrán formular alegaciones y aportar los documentos que estimen convenientes.

3. El acceso a los documentos que obren en los expedientes sancionadores ya concluidos se regirá por lo dispuesto en el artículo 37 de la Ley 30/1992, de 26 de noviembre, de Régimen Jurídico de las Administraciones Públicas y del Procedimiento Administrativo Común.

*Artículo 68. Organos competentes.*

1. Son órganos competentes los que se determinen en los Decretos Forales de estructura orgánica y funcional de la Diputación Foral de Gipuzkoa.

2. Los órganos competentes para la resolución del procedimiento lo serán también para su iniciación.

3. Si en el departamento que tenga atribuida la competencia en materia de vías ciclistas hubiere una unidad administrativa especial para la instrucción de procedimientos sancionadores, dicha instrucción recaerá en personal funcionario de dicha

badago, ardura hori departamentuko Idazkaritza Teknikoko buruak edo, egokia bada, aipatutako idazkaritzako beste funtzionario batek hartuko du bere gain.

4. Instrukzioa egiteko ardura duen pertsonak ez du mendekotasun funtzionalik izango bere instrukzio-lana egiteko orduan eta instrukzioak irauten duen bitartean.

*69. artikulua. Interesatuak.*

Inputatuez gain, interesatuak dira prozedura gizabanakoaren edo taldeko legezko eskubideen edo interesen titular gisa abiarazten dutenak.

*70. artikulua. Egozpen-akatsa.*

Prozedura hasi eta gero, arau-haustearen erantzule izan daitezkeenak hasieran inputatutakoak ez baizik eta beste batzuk direla egiaztatzen baldin bada, lehenengo inputatu horiek absolbitzen dituen ebazpena emango da eta bigarren inputatuei buruzko prozedura hasiko da, baldin eta inputatu berrientzat arau-haustea preskribatu ez baldin bada. Preskripzio-epea ez da etendakotzat joko lehenengo prozedura tramitatzen den bitartean, bertan egindako inputazio-akatsa bigarren prozedurako inputatuen erruz gertatu denean izan ezik, hau da, bigarren prozedurako inputatu horiek beren erantzukizuna saihesteko eragin garrantzitsua izan dutenean lehenengo prozedurako inputazio-akatsean.

*71. artikulua. Ofizioz hastea.*

1. Zigor-prozedurak ofizioz hasiko dira organo eskudunaren erabakiaren bidez, beraren kabuz nahiz beste organo batzuek egindako eskaera arrazoituaren edo salaketaren ondorioz.

2. Beste organoren batek eskaera arrazoitua egiten duenean, arau-hauste izan daitezkeen gertaeren kontaketa egin beharko du, eta honako xehetasun hauek adierazi beharko ditu: Tipifikazioa, zein egunetan edo zein denboralditan gertatu ziren eta, ahal izanez gero, ustezko erantzuleen identifikazioa.

Eskaera arrazoitua egiten duen organoak bere esku dituen eskaeraren xedeari buruzko dokumentuak eta frogak aurkeztu beharko ditu, eskaera arrazoituarekin batera.

3. Eskaera arrazoitua egitea ez da loteslea zigortzeko ahalmena duen organo titularrarentzat; hala ere, zigortzeko ahalmena duen organoak eskaera arrazoitua egin duen organoari jakinarazi beharko dio prozedura irekitzea erabaki duen ala ez.

4. Zigor-prozeduran, salaketak berak, besterik gabe, ez du bihurtzen salatzailea interesatu.

Organo eskudunak salaketa egiten duen pertsonari prozeduran jakinaraziko dio prozedura irekiko duen ala ez eta, hala badagokio, prozedura horri amaiera emango dion ebazpena, salatzaileak horretarako eskubidea du-eta; horretaz aparte, salatzaileak ez du bestelako esku-hartzerik izango prozeduran.

*72. artikulua. Prozedura hasteko erabakia.*

1. Prozedura hasteko erabakiak eduki hauek izango ditu, gutxienez:

a) Ustez erantzule den pertsonaren edo erantzuleak diren pertsonen identifikazioa.

b) Prozeduraren hasiera arrazoitzen duten gertakariak, gertakari horiek izan dezaketen kalifikazio juridikoa, eta egokiak izan daitezkeen zigorrak.

c) Prozeduraren izapidegilea, berak duen ezespen-erregimena adieraziz.

d) Prozedura ebazteko organo eskuduna eta eskumena ematen dion araua.

unidad. Si no la hubiere, corresponderá a quien sea titular de la Secretaría Técnica del departamento, o, en su defecto, otra persona funcionaria de dicha Secretaría.

4. La persona responsable de la instrucción no tendrá ninguna dependencia funcional en lo referente al cumplimiento de su labor instructora y durante el tiempo que dure ésta.

*Artículo 69. Personas interesadas.*

Son personas interesadas en el procedimiento, además de las inculpadas, quienes lo promuevan como titulares de derechos o intereses legítimos individuales o colectivos.

*Artículo 70. Error de imputación.*

Si iniciado el procedimiento se constatara que la responsabilidad de la comisión de la infracción no recae sobre las personas inicialmente imputadas, sino sobre otras, se dictará resolución absolviendo a las primeras y se iniciará un nuevo procedimiento respecto de las segundas, si la infracción no hubiera prescrito para éstas. No se considerará interrumpido el plazo de prescripción durante la tramitación del primero de los procedimientos, salvo que en el error de imputación cometido en el mismo hubiesen influido relevantemente las personas imputadas en el segundo procedimiento con el objetivo de eludir su responsabilidad.

*Artículo 71. Iniciación de oficio.*

1. Los procedimientos sancionadores se iniciarán de oficio por acuerdo del órgano competente, bien por propia iniciativa o como consecuencia de petición razonada de otros órganos o denuncia.

2. La petición razonada de otros órganos deberá contener el relato de los hechos que pudieran constituir infracción, su tipificación, la fecha, fechas o periodo de tiempo continuado en que se produjeron, y, si fuera posible, la identificación de las personas presuntamente responsables.

Con la petición razonada deberán aportarse los documentos y pruebas relativos al objeto de la misma que obren en poder del órgano peticionario.

3. La formulación de una petición razonada no vincula al órgano titular de la facultad sancionadora, si bien deberá comunicar al órgano que la hubiera formulado la decisión sobre la apertura o no del procedimiento.

4. La denuncia no convierte, por sí sola, a la persona denunciante en interesada en el procedimiento sancionador.

La persona denunciante no tendrá más participación en el procedimiento que el derecho a recibir comunicación del órgano competente sobre la apertura o no de aquél y, en su caso, de la resolución que le ponga fin.

*Artículo 72. Acuerdo de iniciación.*

1. El acuerdo de iniciación tendrá el contenido mínimo siguiente:

a) Identificación de la persona o personas presuntamente responsables.

b) Los hechos que motivan la incoación del procedimiento, su posible calificación jurídica y las sanciones que pudieran corresponder.

c) Persona a quien corresponde la instrucción del procedimiento, con expresa indicación del régimen de recusación de la misma.

d) El órgano competente para la resolución del procedimiento y norma que le atribuya la competencia.

2. Prozedura hasteko erabakiaren berri emango zaio izapidearen ardura duen pertsonari, eta halaber jakinaraziko zaie inputatuari eta gainerako interesatuei; era berean, interesatuei aditzera emango zaie hamabost eguneko epea dutela egoki iriz-ten dieten alegazioak, dokumentuak edo informazioak aurkezteko, frogaldia ireki dadin eskaera egiteko eta egokitzat jotzen dituzten frogabideak proposatzeko.

Prozedura hasteko erabakiarekin batera prozedura irekitzeko eskabidea, salaketa edo eskabide arrazoitua aurkeztuko da, baita horiei erantsi zaizkien edo zigortzeko organo titularrak prozedura irekitzeko kontuan hartu dituen dokumentuak eta frogak ere.

*73. artikulua. Froga.*

1. Frogaldia irekiko da honako kasu hauetan:

a) Aurreko artikuluan ezarritako alegazioak bideratzean interesatuen arteko edozeinek hala eskatzen duenean, horretarako frogabide zehatzak proposatzen baditu eta, betiere, izapideak egiteko ardura duen pertsonak frogabide horiek bidezko jotzen dituenean. Izapidegileak arrazoitu egingo ditu frogaldia irekitzeko eskabidea ez onartzeko eta froga jakinak atzera botatzeko hartzen dituen erabakiak, Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Komunaren azaroaren 26ko 30/1992 Legearen 80. eta 137.4 artikuluak betez.

b) Alderdi interesatuak eskabiderik egin ez arren, izapideak egiteko ardura duen pertsonak gertakariak argitzeko eta erantzuleak zehazteko egokia dela uste duenean.

2. Frogaldiak hogeita hamar egun balioduneko iraupena izango du.

3. Frogen praktika Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Komunaren azaroaren 26ko 30/1992 Legearen 81. atalean ezarritakoaren arabera egingo da.

*74. artikulua. Ebazpen-proposamena.*

Hala egokituz gero, frogaldia amaitu ondoren izapideak egiteko ardura duen pertsonak ebazpen-proposamena egingo du. Ebazpen-proposamen horrek honako eduki hauek izan beharko ditu:

A) Arau-haustea eta erantzukizuna daudela irizten badio:

a) Frogatutzat jotzen dituen gertakariak eta iritzi horren oinarri den frogaren balorazioa.

b) Erantzuletzat jotzen dituen pertsonak, aginduak eta iritziaren oinarri den frogaren balioespena.

c) Arau-hausteak tipifikatzen dituzten zein agindutan oinarritzen diren gertakariak, eta gertakari horiek arau-haustetzat jotzeko arrazoiak.

d) Egoki iritzi dien zigorrak eta ondorio gehigarriak, zein agindutan oinarritzen diren, horretarako kontuan hartu dituen inguruabarrak, iritziaren oinarri diren aginduak eta frogen balioespena.

e) Lehen zegoen egoera arau-hausteak zertan aldatu duen eta zeintzuk diren arau-haustearen ondorioz eratorri diren kaltegalerak, ziurtatutzat jotzen direnean, eta baita iritzi horietarako arrazoiak, proposatzen diren konponbideak edo kalte-ordainak eta proposamen horien arrazoiak ere.

2. El acuerdo de iniciación se comunicará a la persona responsable de la instrucción y se notificará a quien haya sido inculpado y demás personas interesadas, indicándoles que tienen un plazo de quince días para aportar cuantas alegaciones, documentos o informaciones estimen convenientes y para solicitar la apertura de un periodo probatorio y proponer los medios de prueba que consideren adecuados.

Al acuerdo de iniciación se acompañarán la solicitud de apertura del procedimiento, la denuncia o la petición razonada, así como los documentos y pruebas que a éstas se hayan adjuntado o haya tenido en cuenta el órgano titular de la competencia sancionadora para abrir el procedimiento.

*Artículo 73. Prueba.*

1. Se abrirá un periodo probatorio en los siguientes supuestos:

a) Cuando, en el trámite de alegaciones establecido en el artículo precedente, lo solicite cualquiera de las personas interesadas con proposición de medios de prueba concretos, siempre que alguno de éstos sea considerada pertinente por la persona responsable de la instrucción, quien motivará sus decisiones de inadmisión de la solicitud de apertura de periodo probatorio y de rechazo de pruebas concretas, en aplicación de los artículos 80 y 137.4 de la Ley 30/1992, de 26 de noviembre, de Régimen Jurídico de las Administraciones Públicas y del Procedimiento Administrativo Común.

b) Cuando, en ausencia de solicitud de parte interesada, la persona responsable de la instrucción lo considere necesario para el esclarecimiento de los hechos y determinación de los responsables.

2. El periodo probatorio durará treinta días hábiles.

3. La práctica de las pruebas se realizará de conformidad con lo establecido en el artículo 81 de la Ley 30/1992, de 26 de noviembre, de Régimen Jurídico de las Administraciones Públicas y del Procedimiento Administrativo Común.

*Artículo 74. Propuesta de resolución.*

Concluido, en su caso, el periodo probatorio, la persona responsable de la instrucción formulará propuesta de resolución, la cual deberá contener:

A) Si estima que existe infracción y responsabilidad:

a) Los hechos que considere probados y la valoración de la prueba en que se funde tal consideración.

b) Las personas que considere responsables, los preceptos y la valoración de la prueba en que tal consideración se funde.

c) Los preceptos tipificadores de infracciones en que considere subsumidos los hechos y las razones de tal consideración.

d) Las sanciones y consecuencias accesorias que estime procedentes, los preceptos en que se determinen, las circunstancias que a tal efecto haya considerado, los preceptos y valoración probatoria en que se funde tal consideración.

e) La alteración de la situación precedente que considere ocasionada por la infracción y los daños y perjuicios derivados de la misma que considere acreditados, las razones de tales consideraciones, las actividades de reparación o indemnizaciones que se propongan y las razones de esta proposición.

B) Arau-hausterik eta erantzukizunik ez dagoela irizten badio:

a) Iritzi hori frogak balioetsi direlako edo balioespen juridikoa egin delako hartu den zehaztu behar du eta, batean zein bestean, iritziaren oinarri diren arrazoiak azaldu behar ditu.

b) Absolbitzeko proposamena.

*75. artikulua. Entzunaldia interesatuei.*

1. Interesatuei ebazpen-proposamenaren berri emango zaie eta alegazioak aurkezteko hamabost eguneko epea dutela jakinaraziko zaie. Jakinarazpen horretan, halaber, aditzera emango zaie interesatuei epe horretan espedientea agerian jarriko dela, kontsultatu eta bertako dokumentuen fotokopiak egin ahal izateko.

2. Entzunaldiaren tramitea amaitu bezain laster, izapideak egiteko ardura duen pertsonak, prozedura ebazteko, ebazpen-proposamena aurkeztuko dio organo eskudunari, espedienteak dituen dokumentuekin, alegazioekin eta informazioekin batera.

*76. artikulua. Epeak murriztea eta luzatzea.*

1. Izapideak egiteko ardura duen pertsonak, arrazoiak emanez, eta aldeen kontrako jarrerarik egon ezean, frogaldiaren iraupena murriztu ahal izango du, egin beharreko frogen kopuruaren eta izaeraren arabera. Murriztu ahal izango ditu, halaber, foru arau honetan alegazioak bideratzeko ezartzen diren epeak. Murrizketa horrek ere arrazoitua izan beharko du eta honako arrazoi hauek aintzat hartuz ezarriko da: Kontuan hartutako gertakarien larritasunarenaren txikia, bertan sartutako gai juridikoen kopurua eta konplexutasun eskasa, eta izapidegileak tramiteak bideratzeko interesatuen esku jarri dituen dokumentuen eta frogen kopurua eta konplexutasuna.

2. Izapideak egiteko ardura duen pertsonak alegazioak bideratzeko epea eta frogaldiaren iraupena luzatu ahal izango ditu. Luzapenak arrazoitua izan beharko du, behin bakarrik egin ahal izango da, eta foru arau honetan, dagokion artikuluan, ezarritako epearen iraupen berbera izango du gehienez ere. Luzapena beharrezkoa denean baino ez da egingo, hots, egin beharreko frogen kopurua eta izaera, egoera faktikoen eta aztertutako gai juridikoen konplexutasuna edo bestelako arrazoi garrantzitsuak direla medio beharrezkoa denean gertakariak eta erantzukizunak behar bezala zehazteko eta inputatuen defentsa egokia bermatzeko.

Luzapenak irauten duen bitartean, foru arau honen 79.4 artikuluan ezarritako sei hilabeteko epeak ez du aurrera egingo.

*77. artikulua. Errekurtsoak.*

Izapideak egiteko ardura duen pertsonak frogaldiaren irekitzea edo alderdiek proposatutako frogabideen praktika ukatzea erabakitzen badu, errekurtsoa aurkeztu ahal izango da administrazio-egintza horren aurka. Prozedura ebazteko eskumena duen organoaren aurrean aurkeztuko da errekurtsoa, hiru eguneko epean. Organo eskudunak bestelako bideratzerik gabe emango du ebazpena, hiru eguneko epean, eta erantzunik ematen ez badu errekurtsoa gaitzetsi egin duela ulertu beharko da.

*78. artikulua. Ekintza osagarriak.*

1. Ebazpena eman aurretik, organo eskudunak erabaki ahal izango du, arrazoitutako erabakiaren bitartez, egoki iritzi dien ekintza osagarriak gauzatzea prozedura ebatzi ahal izateko.

Ekintza osagarriak hogei eguneko epean burutuko dira. Hala ere, epe hori murriztu edo luzatu ahal izango da, foru arau honen 76. artikuluan adierazitako arrazoiak direla eta.

B) Si estima que no existe infracción o responsabilidad:

a) La determinación de si tal estimación se debe a una valoración probatoria o a una apreciación jurídica y el razonamiento que funda una u otra.

b) La propuesta de absolución.

*Artículo 75. Audiencia a las personas interesadas.*

1. La propuesta de resolución se notificará a las personas interesadas, indicándoles que disponen de un plazo de quince días para formular alegaciones. En tal notificación se les comunicará que durante dicho plazo se les pondrá de manifiesto el expediente, a fin de que puedan consultarlo y obtener copias de los documentos que obren en el mismo.

2. Concluido el trámite de audiencia, la persona responsable de la instrucción cursará inmediatamente la propuesta de resolución al órgano competente para resolver el procedimiento, junto con los documentos, alegaciones e informaciones que obren en el expediente.

*Artículo 76. Reducción y prórroga de plazos.*

1. La persona responsable de la instrucción podrá, motivadamente, y si no mediare oposición de las partes, acortar la duración del periodo probatorio en consideración al número y la naturaleza de las pruebas a practicar. También podrá, motivadamente, acortar los plazos para la realización de los trámites de alegaciones establecidos en esta Norma Foral, en atención a la menor gravedad de los hechos considerados y al número y escasa complejidad de las cuestiones jurídicas implicadas y de los documentos y pruebas que haya puesto a disposición de las personas interesadas para evacuar dichos trámites.

2. La persona responsable de la instrucción podrá, motivadamente, prorrogar los plazos de dichos trámites de alegaciones y el del periodo de prueba, por una sola vez e idéntico o inferior tiempo al establecido en el correspondiente artículo de esta Norma Foral, siempre que, por el número y la naturaleza de las pruebas a practicar, la complejidad de las situaciones fácticas y cuestiones jurídicas analizadas u otras razones atendibles, sea preciso para lograr la adecuada determinación de los hechos y las responsabilidades o para garantizar la eficaz defensa de los imputados.

Mientras dure la prórroga no correrá el plazo de seis meses establecido en el artículo 79.4 de esta Norma Foral.

*Artículo 77. Recursos.*

Los actos de la persona responsable de la instrucción que denieguen la apertura del periodo probatorio o la práctica de algún medio de prueba propuesto por las partes, serán susceptibles de recurso, en el plazo de tres días, ante el órgano competente para resolver el procedimiento, el cual decidirá, sin más trámite, en el plazo de tres días, considerándose su silencio desestimatorio.

*Artículo 78. Actuaciones complementarias.*

1. Antes de dictar resolución, el órgano competente para resolver podrá decidir, mediante acuerdo motivado, la realización de las actuaciones complementarias que considere necesarias para la resolución del procedimiento.

Las actuaciones complementarias se llevarán a cabo en el plazo de veinte días, el cual se podrá acortar o prorrogar en los términos y por las causas fijadas en el artículo 76 de esta Norma Foral.

2. Ekintza osagarriak burutu ondoren, interesatuen eskueran jarriko dira ekintza horien emaitzak, bidezko iritzi diotena alegatu ahal dezaten, bost eguneko epean.

3. Hurrengo artikuluaren 4. zenbakian aurreikusitako sei hilabeteko epea geldiarazi egingo da ekintza osagarriak egitea erabakitzen duen ebazpena ematen denetik hasi eta artikulu honen 2. puntuan ezartzen den tramitea bukatzen den arte.

4. Prozeduraren azken ebazpena eman aurrean bertan egiten diren derrigorrezko txostenak ez dira ekintza osagarritzat joko.

*79. artikulua. Prozeduraren ebazpena.*

1. Organo eskudunak ebazpen arrazoitua emango du, interesatuek aurkeztutako gai guztiei buruz eta prozeduraren ondorio diren gainerako gaiei buruz erabakiz. Prozedura erabakitzen duen ebazpenak foru arau honen 74. artikuluan adierazten den edukia jaso beharko du, ezartzekoa den oinarrizko legedian erabakitakoaz gainera.

2. Erabakia hartzeko eskumena duen organoak ebazpen-proposamenean azaltzen diren gertakariak ñabartu edo beste batzuk kontuan hartu ahal izango ditu; baina, hori egiteko ezinbesteko baldintza izango da aldaketak aurreko artikuluan adierazitako ekintza osagarrien ondorio izatea, edo izapideak egiteko ardura duen pertsonak egindako frogei eta izapidegintzei emandako balorazioa bestelakoa izatea. Kasu bietan, ebazpena emateko organo eskudunak beren-beregi arrazoituko du aldaketa faktikoa ebazpenean.

Ez da aurreko paragrafoan adierazten den aldaketatzat joko, inolaz ere, prozeduraren hasierako xedearekin zerikusirik ez duten gertakariak prozeduran sartzea, gertakari berriak sartzea inputatuaren aldeko ekintza denean izan ezik.

3. Aurreko zenbakian adierazten den aldaketa faktikoaren edo ebazpen-proposamenean gertakariei eta inguruabarrei ezarritako bestelako kalifikazio juridikoaren ondorioz, ebazpena emateko organo eskudunak ebazten badu ez dela bidezkoa izapideak egiteko ardura duen pertsonak proposatutako absoluzioa onartzea edo izapidegileak iritzitakoa baino zigor larriagoa ezarri beharra dagoela, hamar eguneko epea utzi beharko du ebazpena eman aurretik, interesatuek bidezko iritzi diotena alegatu ahal izateko edo, hala egokituz gero, aldaketa faktikoan kontuan izan diren gertakariei buruzko frogak egitea proposatzeko. Gauza bera egingo du arau-hausteak sortarazitako kaltea ebazteko proposamenean ezarritako kalte-ordainak handiagoa izan behar duela edo, kalte-ordainik ezean, ezarri beharra dagoela irizten badio. Tramite hori amaitu bezain laster ebazpena emango du eta alderdiei jakinaraziko die.

Aurreko paragrafoan ezarritako alegazio-epearen berri ematen duen eginbidean, zehatz-mehatz azaldu eta arrazoituko du organo eskudunak ebazpen-proposamenari egindako aldaketa, azken erabakia hartzeko beharrezkotzat jotzen duen aldaketa, alegia.

4. Prozedura hasi eta hurrengo sei hilabeteetan ebazpena jakinarazten ez bada, ebazpen hori iraungita geratuko da 30/1992 Legeak ezartzen duen moduan.

Sei hilabeteko epe hori geldiarazi egingo da foru arau honetan ezartzen den kasuetan eta, horrez gain, prozedura interesatuei egotz dakizkiekeen arrazoiengatik geldirik dagoen bitartean.

2. Una vez realizadas las actuaciones complementarias, se pondrá su resultado a la vista de las personas interesadas, a fin de que puedan alegar lo que estimen pertinente en el plazo de cinco días.

3. El plazo de seis meses previsto en el número 4 del artículo siguiente quedará suspendido desde la fecha de la resolución que acuerde la realización de actuaciones complementarias hasta la conclusión del trámite establecido en el punto 2 de este artículo.

4. No tendrán la consideración de actuaciones complementarias los informes preceptivos que precedan inmediatamente a la resolución final del procedimiento.

*Artículo 79. Resolución del procedimiento.*

1. El órgano competente dictará resolución motivada, que decidirá sobre todas las cuestiones planteadas por las personas interesadas y aquellas otras derivadas del procedimiento. La resolución que resuelva el procedimiento deberá tener el contenido que se establece en el artículo 74 de esta Norma Foral, además del que fije la legislación básica aplicable.

2. El órgano competente para resolver únicamente podrá variar la relación de hechos expresada en la propuesta de resolución, matizándolos o tomando en cuenta otros, si la variación proviene de las actuaciones complementarias a las que se refiere el precedente artículo o de la diferente valoración de las pruebas y actos de instrucción realizados por la persona responsable de la misma. En ambos casos, el órgano competente para resolver motivará específicamente en la resolución la variación fáctica.

No podrá, en ningún caso, consistir la variación a que se hace referencia en el párrafo precedente en la incorporación de hechos que no guarden relación con el objeto del procedimiento fijado en el acto de incoación, salvo que ello sea en beneficio de la persona imputada.

3. Si como consecuencia de la variación fáctica a la que se refiere el número precedente o de la diferente calificación jurídica de los hechos y circunstancias fijadas en la propuesta de resolución el órgano competente para resolver estimase que no procede admitir la absolución propuesta por la persona responsable de la instrucción, que debe establecerse una respuesta sancionadora más grave que la estimada por ésta o que debe fijarse una reparación o indemnización por los daños causados por la infracción que la propuesta de resolución no contiene o mayor que la que ésta expresa, dicho órgano deberá, antes de dictar resolución, conceder un plazo de diez días a fin de que las personas interesadas aleguen lo que estimen pertinente o, en su caso, propongan práctica de prueba sobre los hechos que se hubieren tomado en cuenta en la variación fáctica. Inmediatamente después de concluido este trámite se dictará resolución y se notificará a las partes.

En la diligencia por la que se comunique el plazo de alegaciones establecido en el párrafo precedente se expresará con precisión y se motivará la concreta variación, respecto de la propuesta de resolución, que el órgano competente para resolver entiende necesario introducir en la resolución definitiva.

4. Si no hubiera sido notificada la resolución en el plazo de seis meses desde la iniciación del procedimiento se producirá la caducidad de éste en los términos y con las consecuencias que establece la Ley 30/1992, de 26 de noviembre.

El transcurso del referido plazo de seis meses quedará interrumpido, además de en los casos que así se establecen en esta Norma Foral, mientras el procedimiento se encuentre paralizado por causas imputables a las personas interesadas.

5. Ebazpena betearazlea izango da administrazioaren bidean irmo bihurtzen denean. Ebazpenean, hala balegokio, behar diren kautelazko xedapenak jarriko dira, betearazle ez den bitartean ebazpena eraginkorra izango dela bermatzeko.

IV. IDAZPURUA

«GIPUZKOAKO BIDEGORRIAK» IZENDAPENA

*80. artikulua. «Gipuzkoako Bidegorriak» izendapena.*

1. Bizikleta-bideen sarearen hedapena arautzearren, eta sare horren ezaugarri funtzional guztiak pixkanaka antolatzeko xedez, «Gipuzkoako Bidegorriak» izendapena eta marka erregistratua sortu da. Helburua da izendapen bakar batek barnean hartzea Gipuzkoako Lurraldean interesekoak diren eta gutxieneko ezaugarri funtzionalak dituzten bizikleta-bideak, foru jabetzakoak izan ala ez.

2. Bizikleta-bideen eskumena duen organoa izango da bizikleta-bidearen zati jakin bati izendapen hori emateko berariaz ahalmena izango duena.

3. Aldundiak, udalek edo beste edozein titularrek egin ahal izango dute izendapena bideratzeko eskaria, betiere alderdi guztien interesa dagoenean eta alderdi guztien adostasuna lortzen denean.

4. Egokiak izan litezkeen beste hobekuntza batzuei kalterik egin gabe, izendapen hori eman aurretik, ezinbestekoa izango da bidegorrian jarriko diren seinaleak trafiko eta zirkulazioari buruzko araudiaren arabera eta foru Bizikleta Bideetako Seinaleen Katalogo Ofizialari jarraituz arautzea.

5. Bizikleta-bidearen zati jakin baten hedapena egitean, izendapena erabiltzeko baldintzak, halaber, bizikleta-bideen eskumena duen organoak ere zehaztuko ditu.

6. Izendapen hori bizikleta-bideen eskumena duen organoak emanda eta baimenduta egon gabe erabiltzea egokiak diren legezko ekintzak hasteko arrazoia izango da.

V. IDAZPURUA

BIZIKLETAREN ERABILERA SUSTATZEA

*81. artikulua. Gipuzkoako Bizikletaren Estrategia*

1. Bizikleta-bideen eskumena duen organoak Gipuzkoako Bizikletaren Estrategia burutuko du.

2. Estrategia horrek definituko ditu Gipuzkoan bizikletaren eta bidegorrien erabilera sustatzea helburu duten politikak eta jarduketa-ildoak. Halaber, honako hauek zehaztuko ditu: Hura gauzatzeko behar diren baliabideak, denborazko programazioa, beste administrazio eta eragile batzuekin koordinatzeko sistemak, eta ebaluatzeko mekanismoak.

3. Estrategia parte hartzeko prozesua izango da, eta bertan administrazio, erakunde, gizartearen eta enpresaren esparruko eragile guztiek eta interesa duten herritarrek parte hartu ahal izango dute.

4. Gipuzkoako Bizikletaren Estrategia 5 urtetik behin gutxienez berraztertuko da.

5. La resolución será ejecutiva cuando adquiera firmeza en la vía administrativa. En la resolución se adoptarán, en su caso, las disposiciones cautelares precisas para garantizar su eficacia en tanto no sea ejecutiva.

TITULO IV

DENOMINACION «GIPUZKOAKO BIDEGORRIAK»

*Artículo 80. Denominación «Gipuzkoako Bidegorriak».*

1. Con el fin de regularizar la difusión de la Red de Vías Ciclistas y de ir ordenando progresivamente sus características funcionales de cara al ciudadano, se ha creado la denominación y marca registrada «Gipuzkoako Bidegorriak», para acoger bajo una denominación común única a aquellas vías ciclistas, sean de titularidad foral o no, que resulten de interés general para el Territorio Histórico de Gipuzkoa y que reúnan ciertos requisitos funcionales mínimos.

2. El órgano competente en materia de vías ciclistas es quien queda expresamente facultado para otorgar esta denominación a un tramo dado de vía ciclista.

3. Este trámite puede producirse a instancia foral, municipal, o de otro titular, siempre y cuando exista interés y acuerdo por todas las partes.

4. Sin perjuicio de otras mejoras que pudieran resultar procedentes, con anterioridad al otorgamiento de dicha denominación, será imprescindible la regularización de la señalética de la vía ciclista con arreglo a la normativa de tráfico y circulación, así como con arreglo al Catálogo Oficial de Señales de las Vías Ciclistas Forales.

5. Las condiciones de utilización de la denominación, de cara a la difusión de un tramo concreto de vía ciclista, serán establecidas también por el órgano que ostente la competencia en materia de vías ciclistas.

6. La utilización de dicha denominación sin el referido otorgamiento y autorización por parte del órgano que ostente la competencia en materia de vías ciclistas, será motivo de inicio de las acciones legales que procedan.

TITULO V

POTENCIACION DEL USO DE LA BICICLETA

*Artículo 81. Estrategia de la Bicicleta de Gipuzkoa.*

1. El órgano que tenga asignadas las competencias en materia de vías ciclistas elaborará la Estrategia de la Bicicleta de Gipuzkoa.

2. Dicha Estrategia definirá las políticas y líneas de actuación que tendrán como objetivo final la potenciación del uso de la bicicleta y de las vías ciclistas en Gipuzkoa. Asimismo, concretará los recursos necesarios para su ejecución, su programación temporal, los sistemas de coordinación con otras administraciones y agentes, así como los mecanismos para su evaluación.

3. La elaboración de dicha Estrategia se concibe como un proceso participativo en el que tendrán cabida todas las administraciones, instituciones, agentes sociales y empresariales y ciudadanía interesada.

4. La Estrategia de la Bicicleta de Gipuzkoa será revisada, al menos, cada 5 años.

*82. artikulua. Gipuzkoako Bizikletaren Kontseilua.*

1. Gipuzkoako Bizikletaren Kontseilua Gipuzkoan bizikletarekin eta bizikleta bultzatzen duen mugikortasunarekin zerikusia duten administrazio, erakunde, gizartearen eta enpresaren esparruko eragile guztiek kontsulta egiteko, aholkuak eskatzeko eta adostasunak erdiesteko eta parte hartzeko organoa izango da.

2. Gipuzkoako Bizikletaren Kontseilua eratuko da bizikleta-bideen eskumena duen foru departamentuari atxikitako organo gisa.

3. Honako hauek izango dira Gipuzkoako Bizikletaren Kontseiluak izango dituen eginkizunak:

a) Gipuzkoako Bizikletaren Estrategia antolatzeko eta berraztertzeko laguntza ematea.

b) Gipuzkoako Bizikletaren Estrategiaren jarraipenean eta ebaluaketan parte hartzea.

c) Gipuzkoan garatutako mugikortasunari dagokionez, bizikletaren erabilera sustatzen laguntzea.

d) Foru sarekoak diren nahiz tokiko edo eskualdeko sarekoak diren bizikleta-bideetan, eta bizikletaz erosotasunez eta segurtasunez ibiltzeko egokiak diren beste bide batzuetan, bizikletaren erabilera sustatzen laguntzea.

e) Jarduketak koordinatzea eta esperientziak trukatzea.

f) Kideen parte-hartzea eta elkarren artean itunak egitea.

4. Gipuzkoako Bizikletaren Kontseiluaren eginkizun zehatz, egitura, funtzionamendua eta osaera bizikleta-bideen eskumena duen organoak emandako erregelamenduan ezarritakoaren araberakoak izango dira.

## LEHENENGO XEDAPEN GEHIGARRIA

Foru dekretu baten bidez eguneratuko dira foru arau honen 59. artikuluan aurreikusitako zigorren zenbatekoak, kontsumoko prezioen indizeak izan ditzakeen aldaketak kontuan izanda.

## BIGARREN XEDAPEN GEHIGARRIA

## ARAUGINTZA EBALUATZEA

Bi urte igarotzen diren bakoitzean, Foru Arau hau indarrean sartzen denetik, Foru Aldundiak txostena bidaliko die Batzar Nagusiei Foru Arau honetako helburuak, aurreikuspenak eta aginduak nola bete diren azaltzeko. Horrela, Gipuzkoako Lurralde Historikoko Erakunde Antolaketa, Gobernu eta Administrazioari buruzko Foru Arauak agindutakoaren arabera ganberak araugintza ebaluatzeko duen funtzioa erraztuko du Foru Aldundiak.

## XEDAPEN INDARGABETZAILEA

Indargabetuta geratzen dira Gipuzkoako Lurralde Historikoaren eremuan foru arau honen maila berekoak edo baxuagokoak diren eta bertan ezarritakoari aurka egiten dioten edo ezarritakoaren kontraesanetan dauden foru xedapen guztiak.

## AZKEN XEDAPENAK

*Lehenengoa:* Gipuzkoako Foru Aldundiko Diputatuen Kontseilua ahalmenduta geratzen da foru arau hau garatzeko eta gauzateko behar diren xedapenak eman ditzan.

*Bigarrena:* Foru arau hau indarrean sartuko da Gipuzkoako ALDIZKARI OFIZIALEAN argitaratzen den egunaren biharamunean.

*Artículo 82. El Consejo de la Bicicleta de Gipuzkoa.*

1. El Consejo de la Bicicleta de Gipuzkoa se define como un órgano consultivo, asesor y de concertación y participación de las administraciones, instituciones, agentes sociales y empresariales vinculados a la bicicleta y a la movilidad ciclista en Gipuzkoa.

2. El Consejo de la Bicicleta de Gipuzkoa será constituido como órgano adscrito al departamento foral que tenga asignadas las competencias en materia de vías ciclistas.

3. Las funciones genéricas del Consejo de la Bicicleta de Gipuzkoa son:

a) Asesorar la elaboración de la Estrategia de la Bicicleta de Gipuzkoa y sus revisiones.

b) Participar en el seguimiento y evaluación de la Estrategia de la Bicicleta de Gipuzkoa.

c) La contribución a la potenciación del uso de la bicicleta en la movilidad desarrollada en Gipuzkoa.

d) La contribución a la potenciación del uso ciclista en las vías ciclistas, tanto de la red foral como de las locales y comarcales, como en otros ámbitos viarios adecuados para la práctica ciclista cómoda y segura.

e) La coordinación de actuaciones e intercambio de experiencias.

f) La participación y concertación entre sus miembros.

4. Sus funciones específicas, estructura, funcionamiento y composición vendrán determinados mediante reglamento emitido por el órgano que tenga asignadas las competencias en materia de vías ciclistas.

## DISPOSICION ADICIONAL PRIMERA

Mediante Decreto Foral podrán ser actualizadas las cuantías de las sanciones previstas en el artículo 59 de esta Norma Foral, atendiendo a la variación que experimente el índice de precios al consumo.

## DISPOSICION ADICIONAL SEGUNDA

## EVALUACION NORMATIVA

Cada dos años, cumplidos desde la entrada en vigor de la presente Norma Foral, la Diputación Foral remitirá un informe a las Juntas Generales sobre el cumplimiento de los objetivos, previsiones y mandatos que en la misma se establecen, como apoyo a la función de evaluación normativa que la Cámara tiene encomendada según establece la Norma Foral de Organización Institucional, Gobierno y Administración del Territorio Histórico de Gipuzkoa.

## DISPOSICION DEROGATORIA

Quedan derogadas cuantas disposiciones forales de igual o inferior rango del ámbito del Territorio Histórico de Gipuzkoa se opongan y contradigan a lo establecido en esta Norma Foral.

## DISPOSICIONES FINALES

*Primera:* Se autoriza al Consejo de Diputados de la Diputación Foral de Gipuzkoa para dictar cuantas disposiciones sean necesarias para el desarrollo y ejecución de la presente Norma Foral.

*Segunda:* La presente Norma Foral entrará en vigor el día siguiente al de su publicación en el BOLETIN OFICIAL de Gipuzkoa.

I. ERANSKINA / ANEXO I
FORU BIZIKLETA BIDEETAKO SEINALEEN KATALOGO OFIZIALA /
/ CATALOGO OFICIAL DE SEÑALES DE LAS VIAS CICLISTAS FORALES

SEINALE BERTIKALAK / SEÑALES VERTICALES

| | | |
|---|---|---|
|  | BIZIKLETA-PISTA<br>R-407 a | Ziklo-gidariek nahitaez erabili behar dute seinaleak adierazten duen bidea –bidearen hasieran kokatuta–, eta gainontzeko erabiltzaileek debekatuta daukate bide hori erabiltzea. Seinalea zerrenda gorri batek zeharkatuta dagoenean, bizikleta-pistaren bukaera adierazten du. |
| | PISTA BICI<br>R-407 a | Obligación para los conductores de ciclos de circular por la vía a cuya entrada esté situada y prohibición a los demás usuarios de la vía de utilizarla. Atravesada con franja roja indica el fin de la pista ciclista. |

| | | |
|---|---|---|
|  | BIZIKLETA-BIDEZIDORRA PARTEKATUA | Oinezkoentzako bidea, txirrindulariek ere erabil dezaketena. |
| | SENDA-BICI DE COEXISTENCIA | Camino peatonal que puede ser utilizado también por ciclistas. |

| | | |
|---|---|---|
|  | BIZIKLETA-BIDEZIDORRA BEREIZTUA | Oinezkoentzako eta bizikletaz ibiltzeko bidea, oinezkoen eta txirrindularien espazioak bereiztuta dituena. |
| | SENDA-BICI SEGREGADA | Camino peatonal y ciclista con separación del espacio de los peatones y los ciclistas. |

| | | |
|---|---|---|
|  | IBILGAILU MOTORDUNEKIN PARTEKATUTAKO BIDEA | Hirietako espazioetan egon ohi diren zenbait kaletan –bizitegi-kaleetan (S-28)–, oinezkoek eta ibilgailuek espazioa partekatzeko erak arautzen dituzten seinaleez gain, trafiko txikia dagoen eta txirrindulariek oinezko eta ibilgailuekin partekatzen dituzten bide eta errepideetan ere jar daiteke seinale hau, bide motari egokitutako abiadura-mugaketekin batera. |
| | VIA COMPARTIDA CON TRAFICO MOTORIZADO | Además de las señales que establecen normas de convivencia entre peatones y vehículos en ciertas calles como las denominadas calles residenciales (S-28), propia de espacios urbanos, en caminos y carreteras de bajo tráfico en los que los ciclistas comparten la vía con peatones y vehículos motorizados, se puede implantar esta señal acompañada de unas limitaciones de velocidad adecuadas al tipo de vía. |

PAPER BIRZIKLATUA PAPEL RECICLADO

| | | |
|---|---|---|
|  | BIZIKLETA-LERRO ETA BIZIKLETA-BAZTERBIDEA | Bizikleta-lerro edo galtzadari atxikitako bizikleta-bidea adierazten duten S-64 seinaleen egokitzapena. |
| | CARRIL-BICI Y ARCEN BICI | Adaptación de las señales S-64 de carril bici o vía ciclista adosada a la calzada. |

| | | |
|---|---|---|
|  | TXIRRINDULARIENTZAKO BIDEGURUTZEA P-22 | Ibilgailu motordunei adierazten die txirrindularientzako pasabide bat gertu dagoela. |
| | CRUCE DE CICLISTAS P-22 | Advierte a los vehículos motorizados de la proximidad de un paso de ciclistas. |

INFORMAZIOA EMATEN DUTEN SEINALE BERTIKALAK / SEÑALES VERTICALES INFORMATIVAS

| | | |
|---|---|---|
|   | BIZIKLETA-IBILBIDEA | Bidea Gipuzkoako Bizikleta Bideen Sare Orokorraren barruan dagoela adierazten du. |
| | ITINERARIO CICLISTA | Indica la pertenencia a la Red General de vías ciclistas de Gipuzkoa. |

| | | |
|---|---|---|
|  | IBILBIDEA ADIERAZTEN DUTENAK | Bizikleta-ibilbidea zein den adierazten dute. |
|  | INDICATIVAS DEL ITINERARIO | Informan sobre el recorrido del itinerario ciclista. |

| | | |
|---|---|---|
|   | KILOMETROEN BERRI EMATEN DUEN GEZIA | Bizikleta-bide baten barruan, leku jakin batzuetara dagoen distantziaren berri ematen du, geziak adierazten duen noranzkoan. |
| | FLECHA KILOMETRICA | Informa de las distancias a lugares determinados dentro de una vía ciclista en la dirección indicada. |

PAPER BIRZIKLATUA PAPEL RECICLADO

| | | |
|---|---|---|
|  | TXIRRINDULARIEK BETE BEHARREKO SEINALEAK S-880 | Dagokion seinale bertikalaren azpian, seinale hori bizikletentzat bakarrik dela adierazten du. |
| | APLICACION DE SEÑALES A LA BICICLETA S-880 | Indica, bajo la señal vertical correspondiente, que la señal se refiere exclusivamente a las bicicletas. |

| | | |
|---|---|---|
|  | BIZIKLETA-APARKALEKUA | Bakar bakarrik bizikletak aparkatzeko gunea. |
| | APARCAMIENTO BICICLETAS | Espacio destinado exclusivamente al aparcamiento de bicicletas. |

BIDEAREN GAINEKO SEINALEAK / MARCAS VIALES

| | | |
|---|---|---|
|   | TXIRRINDULARIENTZAKO PASABIDEA | Galtzadaren gainean egindako bi zeharmarra dira, etenak eta paraleloak. Seinaleak txirrindularientzako pasabidea dagoela adierazten du. |
| | PASO DE CICLISTAS | Marca consistente en dos líneas transversales discontinuas y paralelas sobre la calzada indicando un paso para ciclistas. |

| | | |
|---|---|---|
|   | BIZIKLETAREN SINBOLOA | |
| | SIMBOLO BICICLETA | |

PAPER BIRZIKLATUA PAPEL RECICLADO

| | | |
|---|---|---|
|   | OINEZKOAREN SINBOLOA | |
| | SIMBOLO PEATON | |
|   | BIZIKLETEK ZER NORANZKOTAN ZIRKULATU BEHAR DUTEN ADIERAZTEKO GEZIA | |
| | FLECHA DE SENTIDO DE CIRCULACION CICLISTA | |
|   | OHARTARAZTEKO MARRA | Zehar-marrak dira, elkargune arriskutsu bat gertu dagoela adierazteko. |
| | LINEA DE ADVERTENCIA | Líneas transversales para advertir de la aproximación a una intersección peligrosa. |
|   | GELDITZEKO MARRA | |
| | LINEA DE DETENCION | |
|   | STOP SINBOLOA | |
| | SIMBOLO STOP | |

<table>
<tr><td rowspan="2"></td><td>PASATZEN UTZI BEHAR DELA ADIERAZTEN DUEN MARRA</td><td rowspan="2"></td></tr>
<tr><td>LINEA DE CEDA EL PASO</td></tr>
</table>

<table>
<tr><td rowspan="2"></td><td>PASATZEN UTZI BEHAR DELA ADIERAZTEKO SINBOLOA</td><td rowspan="2"></td></tr>
<tr><td>SIMBOLO CEDA EL PASO</td></tr>
</table>

<table>
<tr><td rowspan="2"></td><td>BIZIKLETA-LERROAK BEREIZTEKO MARRA</td><td rowspan="2"></td></tr>
<tr><td>LINEA DE SEPARACION CARRILES BICI</td></tr>
</table>

<table>
<tr><td rowspan="2">
</td><td>GALTZADA MUGATZEN DUTEN MARRAK</td><td>Galtzada mugatzen duten marrak, bizikletak ibiltzeko zerrenda bereiztuta daukaten bizikleta-pista, bizikleta-espaloi eta bizikleta-bidezidorretan.</td></tr>
<tr><td>LINEAS DE DELIMITACION DE CALZADA</td><td>Delimitación de calzada en pistas bici, acera bici y sendas bici con segregación de banda ciclista.</td></tr>
</table>

<table>
<tr><td rowspan="2">
</td><td>NORANZKOAK BEREIZTEKO MARRA</td><td>Bi noranzko dituzten bizikleta-bideetan, noranzko bakoitza bereizteko marra (jarraitua edo etena)</td></tr>
<tr><td>LINEA DE SEPARACION DE SENTIDOS</td><td>Línea de separación de sentidos en vías ciclistas bidireccionales (continua o discontinua).</td></tr>
</table>

PAPER BIRZIKLATUA PAPEL RECICLADO

<table>
<tr>
<td rowspan="2">




</td>
<td>BIZIKLETA-BIDEETAN GEHIENEKO ABIADURA ADIERAZTEKO SINBOLOA</td>
<td rowspan="2"></td>
</tr>
<tr>
<td>SIMBOLO DE VELOCIDAD MAXIMA EN VIA CICLISTA</td>
</tr>
</table>

(Neurriak cm-tan daude) / (Dimensiones en cm.)

II. ERANSKINA / ANEXO II

EREDUZKO SEKZIOAK / SECCIONES TIPO



BIZIKLETA-BIDEZIDORRA BEREIZTU GABE
SENDA BICI SIN SEGREGACION



BIZIKLETA-BIDEZIDORRA BEREIZTUTA
SENDA BICI CON SEGREGACION

PAPER BIRZIKLATUA PAPEL RECICLADO



BIZIKLETA-ESPALOIA NORANZKO BIKOA
ACERA BICI BIDIRECCIONAL



BIZIKLETA-ESPALOIA NORANZKO BAKARREKOA
ACERA BICI UNIDIRECCIONAL



BIZIKLETA-PISTA NORANZKO BIKOA
PISTA BICI BIDIRECCIONAL



BIZIKLETA-PISTA NORANZKO BAKARREKOA
PISTA BICI UNIDIRECCIONAL

PAPER BIRZIKLATUA PAPEL RECICLADO



BIZIKLETA-LERROA ETA BIZIKLETA-BAZTERBIDEA
CARRIL BICI Y ARCEN BICI



BIZIKLETA-LERRO BABESTUA
CARRIL BICI-PROTEGIDO



IBILGAILU MOTORDUNEKIN PARTEKATUTAKO BIDEA
VIA COMPARTIDA CON TRAFICO MOTORIZADO

## III. ERANSKINA / ANEXO III

HERRI JABARIA - BABESGUNEA / DOMINIO PUBLICO - ZONA DE PROTECCION




## IV. ERANSKINA / ANEXO IV

«GIPUZKOAKO BIDEGORRIAK» MARKA / MARCA «GIPUZKOAKO BIDEGORRIAK»

gipuzkoako

bidegorriak